



Ruper Ordorikari  
elkarrizketa, diskoa  
atera berrian

Azaroaren 25a:  
sentsibilizatu,  
prebenitzeko



## Ezberdinen batasuna, helburu handietarako

Euskaldunon esperientziatik edan eta jakintzak elkarbanatu  
dituzte bederatziz hizkuntza komunitatetako hamazortzi kidek /2

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategien  
aditu titulua ikasten diharduten  
Kideak, Huheziren Eskoriatzako  
fakultatearen kanpoko aldean.

JAGOBA DOMINGO

# Indarkeria matxistari aurre egiten

Eskualdeko udalerrri guztietan gaitzetsiko dute emakumeen kontra eragiten den biolentzia /ikus 'Herriak' saila

**Abenduaren 1ean  
sartuko da indarrean  
Arrasaten polemika  
eragin duen garbiketa  
ordenantza** / 10

**Bergarako  
euskaltzaleak  
batzeko kanpaina  
abiarazi du Jardun  
Euskara Elkarteak** / 29

**Coprecik hitzarmena  
sinatu du  
Aretxabaletako  
Udalarekin, lantegia  
handitzeko** / 17

**3,5 milioi euro  
inbertituko ditu Sprik  
Bergarako  
Larramendi  
industrialdean** / 6



**KILOMETROAK 2017** / 21

### SINADURAK

 JUDITH ERAÑA / 8	 AITZIBER PLAZAOLA / 30
 AITOR ORO BENGOA / 10	 ALAITZ JAUREGI / 32
 RAFAEL BENGOA / 15	 AMAIA MADINA / 36

# Hizkuntzaren bidez anaitzen

Garabidek eta Huhezik antolatutako hizkuntza biziberritzeko estrategien aditu ikastaroaren hirugarren edizioa bukatzeaz da. Bederatzi hizkuntza komunitateko hamazortzi kidek euskal esperientziatik edan eta euren jakintzak elkarbanatu dituzte

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

Urriari hasi eta abendura bitartean hamar asteko ikastaro mamitsua antolatu dute Garabidek eta Huhezik hirugarrenez.

Aurtengo ikastaroan Afrika, Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikako hizkuntza komunitateen ordezkariak izan dira. Benineko baribea, Txileko maputxea, Boliviako aimara eta guarania, Ekuadorreko kitxua, Kolonbiako nasa, Guatemalako kaqkichela eta Mexikoko nahuatla eta maia yukatekoa izan dira

parte hartu dutenak. Hamar astez, euren familia eta lanak alde batera utzi dituzte, esperientzia ahaztezin eta aberasgarri bat bizitzeko.

**Helburuak garbi**

Bi helburu nagusi ditu aditu ikastaroak. Batetik, Euskal Herriari euskara bizirik eta osasuntsu mantentzeko dauden estrategiak zeintzuk diren ikustea, ondoren euren hizkuntza komunitateetan aplikatzeko. Eta bestetik, euren hizkuntzak ba-

besteko alde aurretik egindako lanen lekukotasunak ematea, guztien artean jakituria sarea hedatzeko eta sendotzeko. "Esaterako, asko dabilta ikasten Kolonbiako errealitatekin. Nahuatl eta maia yukatekoek ere indargune asko dituzte hizkuntzen berreskurapen prozesuei dagokionez. Horretaz gain, hemen gauza asko ikusi dituzte, eta betiere dagokion filtroa aplikatuta, oso ikastaro mamitsua izan dela uste dugu" adierazi du Jon Sarasua Garabideko kideak.



Gipuzkoako Foru Aldundian Irizarrekin eta Olanorekin. GARABIDE



Bariatuko haurrei nahuatlerazko kanta abesten. GARABIDE

## Zein izan da ikastaro honetatik jaso duzun ikasgai nagusia?



**VIVIANA GONZALEZ**  
KOLONBIAKO NASA

**"Mobilizazio gaitasun handia duzue hizkuntzaren inguruan"**

"Nire ustez euskal esperientzia honetatik atera dudana ikasgai nagusia hizkuntzaren biziberritzerako daukaguen mobilizazio gaitasuna da. Komunitateak eta biztanleak gure hizkuntzaren inguruan mobilizatzea lortzen badugu, berdin dio zein erataria, hizkuntzaren bihotza osasuntsu egotea lortuko dugu. Hori da euskal esperientzia honek erakutsi didana. Bestalde ikuspegi global bat beharrezkoa dela ere, hezkuntza eta komunikabideetatik haragokoa".



**CANDELARIA RAMOS**  
KOLONBIAKO NASA

**"Hezkuntza estrategia oso eraginkorrek dituzue"**

"Hemen ikusi ditugun estrategia guztien artean hezkuntzarekin erlazioatutakoak dira niretzat eraginkorrenak. Helburu oso garbiak dituzue, eta zentzu horretan nire komunitatean onura handiak egiteko aukera dudala uste dut. Baina ez bakarria. komunikabideen ekarpenak ere ezinbestekoa da. Gu bertan badaukagu bat, baina hori elikatu eta indartzeko tarte handia daukagula ikusteko aukera eskaini dit ikastaro honek. Oso pozik nago bi hilabete hauei atera dieran etekinarekin. "



**INTI CARTUCHE**  
EKUADORREKO KITXUA

**"Familiako aho transmisioa eta hezkuntza dira gakoak"**

"Nire ustez, familiako aho transmisioa eta hezkuntza zure hizkuntzan egitea dira hizkuntza bizirik mantentzeko estrategiarik garrantzitsuenak. Gure komunitatean ez da belaunaldien arteko transmisioa ez da nahi beste ematen ari, eta horrek asko arduratzen nau. Euskal esperientzia honetan arreta deitu didana hizkuntzaren baitan daukaguen batasuna da. Ezberdinen arteko batasunarekin helburu handiak lortu daitezke munduan eta kasu honetan hizkuntzekin ere bai".



**FILOMENA NINA**  
BOLIVIAKO AIMARA

**"Helduen hezkuntzan lan handia daukat egiteko"**

"Niretzako esparru guztietako estrategiak dira garrantzitsuak. Denak dira beharrezkoak hizkuntzak indartzeko. Tamalez, ezin ditut denak bertan aplikatu eta baten zentratuko naiz; helduen hezkuntzan. Pertsona helduak formatzeko beharra daukat ondoren hauek ikasle gazteen irakasle izateko. Badaude unibertsitateko irakasleak, aimara jatorrikoak eta ikasteko gogoz daudenak. Ulertzeko gai dira baina ez dute hitz egiten. Beraz, hauekin lanean hasteko ilusioz beterik nago.



**ELIAS CAUREY**  
BOLIVIAKO GUARANIA

**"Goazen globalizatzerara, ez gaitzaten gu globalizatu"**

"Lurralde honetan jasotako ikasgai garrantzitsuenak, komunikazio alorrean egin dituzuen aurrerapausoak gertutik ikustea izan da. Mundu globalizatu batean hizkuntzaren alde lan egiteko lanabesa da komunikazioa. Ez da beldurrik izan behar. Goazen globalizatzerara, ez uzteko kanpotik globalizatu bizitzeko elementu ezinbesteko bezala ulertzen duzue. Guk ere berdin bizi dugu, komunikaziorako tresna hutsa baino zerbait gehiago bezala".

**Ikasketa prozesu zirkularra**

"Ikasketa prozesu oso intentsiboa da. Asko dabilta ikasten, batez ere, arlo akademikoan. Horretaz gain, asko mugitu gara Euskal Herri zehar, eta erakunde eta pertsona asko ezagutu ditugu. Baina ez dira bisitatu ditugu horien esperientzietatik ikasteko saioak izan, bisitatuere ere asko ikasi dutelako eurengandik. Ikasketa prozesu zirkularra da. Oso harrera ona egin digute erakunde publikoek, euskalgintzako erakundeek, herritar xumeek eta orokorrean denek, eta oso pozik gaude orain arte emandakoarekin" adierazi du Jon Sarasuak.

**Euskal Herrian zehar**

Urrian heldu zirenetik ez dute atsedetik hartu eta Baztanetik Urepeleraino, Euskal Herria zeharkatu dute esperientzia abes-rasgarrien bila. Berria, Gara, Argia edo Goiena bezalako komunikabideak bisitatu dituzte, Gipuzkoako Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritza barrutik ezagutu dituzte, eta Tafallako zein Debagoieneko ikastolen jarduna gertutik ezagutu dituzte.

Baina horrez gain, mahai in-guruak egin dituzte euren aurretik zekartzaten lana eta jakintza euskaldunekin partekatzeko, Aramaion eta Orion besteak beste.

**Hizkuntzak opari**

Asteazkenean, orain arte ikastaro honetan bidelagun izan dituzten erakunde guztiarekin *Hizkuntzak opari* deituriko jaialdia egin zuten Aretxabaletako Arkupen.

Sarrera errituala egin eta gero, Jon Sarasua eta Txema Abarategik jaialdiaren muina azaldu zuten. Jarraian Kike Amonarri-zek hartu zuen hitza, eta besteak beste, euskara uste duguna baino hizkuntza handiagoa dela esan eta Garabide egiten duen lana goraiatu zuen.

Behin hau eginda opari kateari ekin zioten. Ikastaroko ikasleek eta eurekin harremanetan egon diren erakundeek esanahiez beteriko opariak elkarbanatu zituzten. Saio hunkigarria izan zen, baina batez ere, hizkuntza gutxituen etorkizuna bizia eta argitsua izango dela sinisteko jaialdia izan zen.



Hizkuntzak opari jaialdiko familia argazkia. IMANOL SORIANO



Goienaren egoitzara egindako bisita. GARABIDE



Euskal pailazoak ere ezagutu dituzte. GARABIDE

# ERNE

## "SD EIBAR" BIRUSA HEDATZEN ARI DA...

EIBARRERA ABONATU

Eta **PRIMERAKO AFIZIO BAT** kutsatu

Informatu zaitetz: [www.sdeibar.com/abonatuak](http://www.sdeibar.com/abonatuak) edo 943 201 831

## SDEIBAR

# kutsatuzureafizioa

# DIN DAN DON

ABESTU GABON KANTA  
ETA IRABAZI SARI GALANTA

## 1. FASEA

Azaroaren 18tik  
Abenduaren 17ra

## FINALA

Abenduaren 23an

Oinarri osoak ikusteko:  
[centrocomercialgorbeia.com](http://centrocomercialgorbeia.com)

 Parque Comercial Gorbeia

SARIETAN  
6.000€  
BAINO GEHIAGO  
DITUZU ZAIN




Babeslea:

**EL CORREO**  
PARTE DE TI ZURE BAITAN



**GORBEIA**  
[www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)

Laguntzaileak:



# "Bakea ematen duten esperientziak dira"

**AINZANE EZENARRO** GOGORA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Biktimen eta herritarren testigantzek, hitzaldiek, mahai-inguruek, tailerrek eta dokumentalek osatuko dute astelehenetik aurrera Arrasaten izango den Memoria Plaza

**U. Madera / T. Madina** ARRASATE

"Herri honetan ditugun memoria desberdinak jaso eta transmititzea" helburu du eskualdez eskualde dabilen Memoriaren Plazak, Gogora Institutuaren ekimenik publikoenak. Astelehenetik abenduaren 4ra arte izango da Arrasaten eta Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuko zuzendariak, bertan parte hartzeko zein ekimena ikusteko gonbita egin die herritar guztiei.

**Egongo da esango duenik: garai berriak badira, zergatik atzera begiratu, zergatik ez aurrera bakarrik?**

Zerbait ikasi badugu beste esperientzia historiko batzuetatik da – Espainiako trantsizioa aipa genezake – horrelako egoera eta hainbeste urtetako giza eskubideen urraketaurrean, aurrera begiratzeko ezinbestekoa dela iraganera begiratu, gaizki egin dena onartu, begirada kritikoa eta autokritikoa izan eta horretatik ikasiaz bat, aurrera egin. Ezin da muga bat jarri eta esan hemendik aurrera giza eskubideetan oinarrituko da gure elkarbizitza. (...) Beraz, atzera begiratzean, ezinbestean gogoeta kritikoa eta autokritikoa egin behar da. Horrek ez du esan nahi ideologia politiko bat baztertu behar denik, baina bai erabat gaizki egin diren gauzak. Ez bakarrik aurrera begiratu eta elkarbizitza egokiagoa egiteko, baizik eta mina eragin dieten pertsona horiek guztiek merezi dutelako esatea: "Bai, gaizki egon zen zure aitari, zure arrebari, zure semeari egin zioten hori"; eta horretarako ere balio du espazio hauek sortzea herriaren erdian: elkarbizitza lasai baten artean entzun normalean entzuten ez ditugun testigantzak; normalean entzuten ez ditugun bizipenak ezagutu, eta haiekin batera emozioak bizi, enpatizatu eta horrek berak gogoeta sustatzea. (...) Batez ere, badugulako asmo goren bat:



Ainzane Ezenarro Goiena Tebistara sartu aurretik. JAGOBA DOMINGO

## "15-18 URTE BITARTEKO GAZTEEK IA EZAGUTU ERE EZ DUTE EGITEN GERTATUTAKOIA"

elkarrekin bizi nahi dugu. Orain arte ikusi izan duguna da oso esperientzia eraikitzaileak eta bakea ematen dutenak direla; jendea oso gustura ateratzen da, eta horregatik gonbidatu nahi dut herri guztia parte har dezan. **Herritarrek parte hartzeko aukera ere badute, zela?**

Bertan ikus-entzunezko grabazioa egin daiteke, hiru minutukoa, norberak kontatzeko duenarekin. Azken batean, memoria eraikitzen da errealtate objektibo baten gainean, baina norberak bizi izandako galbaetik pasata (...) Grabatzen dena gure webgunean jarrita dago, edozein herritarrek ikusi nahi badu (...) Horretan ausartzen ez denak idatziz ere egin dezake; horrela ere jaso ditugu ehunka testigantza. Horiek guztiak dira gure herri memoriaren parte. Beti esan dugu gure helburua ez dela memoria bakar bat, ofiziala ezteza, baizik eta herrian ditugun memoria desberdinak jasotzea eta, batez ere, haien arteko el-

karrizketak sustatzea. Kontua ez da bakarrik elkar entzutea, normalean entzuten ez ditugun bizipenak entzunaz, ezinbestean horrek gogoeta eragiten du. Igual gu bezala pentsatzen ez duen beste muturreko baten irakurketak politikoa ezaguna izango zaigu, baina igual ez dugu inoiz entzun berak ze bizipen izan zituen gertatutakoa eta gero.

**Nolabait gure gizartean egon den gu eta besteak dikotomia hautsi egiten du...?**

Hausten du, batez ere, giza ikuspegitik. (...) Ezagutu dugu gertaeraren titularra, baina ikusten denean horrelako gertaera batek, indarkeria eragin duenak bilatzen zuen inpaktua, eta hori konparatzen denean hainbat eta hainbat pertsonarengan eragin duen bizi osorako minarekin... hori ikusten denean, ez dago inor esango duenik: "Indarkeriak merezi du, indarkeria justifikatua dago". Hain da desproporzio handia bataren eta bestearen artekoa... Honek zenbait jarrera zalantzan jartzen ditu; eta batez ere, giza eskubideen apustua sendotu, eta berriro horrelakorik gertatu behar ez duen sinismen hori sendotu egiten du. Gure esperientzia guztietan, ez bakarrik helduekin, gaztetxoekin ere gauza bera gertatzen da.

**Gaztetxoak aipatu dituzu; izan ere, eskualdeko ikastetxeetan ere egin behar dituzue tailerak; nondik nora?**

Biktimen testigantzak ikastetxeetara eramatean konturatu ginen 15-18 urtekoek ia ezagutu ere ez dutela egiten gertatutakoa. Ezagutu beharko dute euren herriaren historia hurbila, ezta? (...) Eta entzuten dutena baldin bada indarkeria horrek pertsona baten bizitzan eragin duen kalte guztia, horrek ja jartzen ditu indarkeriaren kontrako jarreran. (...) Indarkeria esperientzia traumatiko hauek baliabide pedagogiko bilakatzen ditugu, giza eskubideen konpromisoan sendotzeko. Eta konturatzen gara horrek sortu duela beste galdera multzo bat. "Zer gertatu da?" (...) Konturatu gara askotan ez dela hitz egin etxeetan; eskoletan historia garaiak ikasgai ez dela ez ja ETArekin historia edo gainontzeko talde armatuen historia kontatzen, askotan ez dela ezta gerra zibilaz zein frankismoaz hitz egin. Lehenago ikusten dute Italiako faxismoa edo Alemaniako nazismoa Espainiako faxismoa baino. Hori izan da Trantsizioa egin zelako egin zen moduan, isiltasunak elkarbizitza ekarriko zigula ematen zuen; ikusi dugu ezetz. Eta jarraitu dugu erdi isiltasun batean (...) Tailerretan testigantzak ikusi eta egiten duten gogoeta da giza eskubideen defentsa absolutuak eskatzen duela onartzea eta baieztatzea ez dagoela kausa politiko bakar bat, munduan onena denik ere, giza duintasunaren gainetik jar daitekeenik (...) eta bidegabekeriaren kontra ezin dela bidegabekeriak sortuz borrokatu. **ETAk hildako Isaias Carrascoren alaba Sandra Carrascoren eta Batallon Vasco Español-ek hildako Iñaki Etxaberen alaba Olatz Etxaberen arteko mahai-ingurua izango da abenduaren 1ean. Zer espero duzu?**

Hasteko, esker ona adierazi nahi diet (...) Ez da erraza hitzaldi bat ematea horrelako gertaera traumatikoa bizi izan duzunean; are zailagoa da norberaren herriki-deen aurrean egitea, denok elkar ezagutzen dugunean eta bakoitzak badakienean ikusleentzako artetik zeintzuk elkartasuna adierazi dien, ez dien... Espero dut ahalik eta jende gehienak parte hartzea eta Sandra Carrasco bezalako biktima bat inoiz entzun ez duenak entzutea, eta Olatz Etxabe bezalako biktima bat entzun ez duenak entzutea. (Elkarbizitza osoa *Goiena.eus* atarian)

## Gaur eta bihar egingo dute urteko elikagai bilketa handia

Saltoki handietan zein txikietan batuko dituzte elikagaiak; diru-bonuak ere eman daitezke

**U.M. DEBAGOIENA**

Debagoieneko saltokietan goizez –09:00-13:00– zein arratsaldez –13:00-17:00– izango dira urteko elikagai bilketarako materiala batzen, gaur, egubakoitza, eta bihar. Bergarako Elikagai Bankuaren bitartez, saltoki handietan boluntarioek jardungo dute laguntzen. Saltoki txikietan, berriz, boluntarioek ez, baina kaxak egongo dira elikagaiak batzeko. Bilketa puntu nagusiak honako hauek dira: Bergaran Eroskik dituen bi saltokiak, Dia eta Super Amara. Arrasaten, Musakolako zein Zerrajerako Eroskiren saltokiak, BMren bi saltokiak eta Lidl. Eta Aretxabaletan eta Oñatin, berriz, Eroski. "Eroskiren frankizia txikietan ere batuko da; adibidez, Antzuolan", esplikatu du Jose Antonio Agirrebeñak, Bergarako Elikagai Bankuko arduradunak. "Gure esparruan, guztira, 32 bilketa puntu dira", dio. "Eta elikagaiak eman beharrean, badago, baita ere, diru-bonuak emateko aukera. 3-5 eurokoak badaude, baina bestelako kopururik eman nahi duenak horretarako aukera ere badu; gainera, guri asko errazten digu lana bide horrek; izan ere, bonuen bitartez, premiaren arabera eskuratzen ditugu elikagaiak", azpimarratu du.

## GuraSOS ekimenaren manifestaziora joateko deia egin dute

Debagoiena Eredu Zabortegeirik Ez eta Debagoiena Zero Zabor plataformetatik dei egin dute bihar, zapatua, Donostian egingo duten manifestazioan parte hartzeko –Araba Plaza, 17:00etan– GuraSOS mugimenduak deitu du protesta, erraustegia eraikitzeko asmoaren aurrean, "irtenbide adostua lortzeko helburua izanik".

# Enpresendako bi eraikin berri, Larramendin

Bergarako Larramendi industrialdean bi eraikin egiteko 3,5 milioi euroko inbertsioa egin behar du Sprilurrek: bata 7.650 m<sup>2</sup>koa, erabilera industrialerako; bestea 765 m<sup>2</sup>koa, erabilera komertzialerako. Bost enpresak dute interesa bertan kokatzeko

**Ubane Madera BERGARA**

"Eraikitze momentua heldu arte ez da benetan neurtu zer nolako garrantzia daukan halako pausoa emateak: prest daukagun lurra erabiltzeko aukera izango dugu, aktibitate industrialia suspertzeko eta laguntzeko baliagarria izango da eta ingurumen aldetik artifizializata zegoen lurra erabiltzen dugu, ez dugu lur berriarekin hiri-lurra hornitzen...".

Berba horiek baliatu zituen, besteak beste, Elena Letek, Bergarako alkateak, Sprilurrek udalerrri horretan egin behar duen ekimenaren garrantzia azpimarratzeko: 3,5 milioi euroko inbertsioa eginda, bi pabiloi eraikiko ditu Larramendi industrialdean, erabilera industrialerako bata, 7.650 metro karratukoa, eta erabilera komertzialerako bestea, 765 metro karratukoa.

**Eraikinen ezaugarriak**

"Eraikin industrialari dagokionez, 360 m<sup>2</sup> eta 2.000 m<sup>2</sup> bitarteko 17 pabiloi modular eraikiko dira. Erabilera komertzialerako lursailaren kasuan, behe solairua gehi bi altuera eraikiko dira, bakoitza 255 m<sup>2</sup>-koa. Behe solairua gardena izango da kafetegijate txete bezala erabili ahal izateko, eta goiko bi solairuetan bulegoak egingo dira, bakoitza 100 m<sup>2</sup> ingurukoa". esplikatu zuen Alex Arriolak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailari atxikitako Spri sozietatearen zuzendariak eta Sprilurreko lehendakariak.

Prentsaurrekoa egin zuten eguaztanean bi erakundeetako ordezkariek –Bergarako Udala eta Spri– Larramendi industriaguneraren garapenaren berri emateko. Bertan, Arriolak gaineratu zuen Larramendi industrialdeak urbanizatutako lurzoru industrialerako bederatzi lursail



Alex Arriola, Elena Lete eta Sabino Azkarate, azalpenak ematen. ENEKO AZURMENDI

## ERAIKITZE OBRAK URTARRILEAN HASI ETA 12 HILABETEKO EPEAN BUKATU GURA DITUZTE

dituela eskuragarri, "guztira 149.352 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria dutenak. Lursail urbanizatuak 510 m<sup>2</sup>-ko azalera dute oin-plantako okupaziorako eta 612 m<sup>2</sup>-koa eraikuntza aprobetxamendurako, beren instalazioak beren kabuz eraiki nahi dituzten enpresentzat".

**Konexio onak**

Horrekin batera, Bergarako industriagune horren balioak nabarmendu zituen Spriko ordezkariek, ezaugarriak zein kokapenari dagokienez: "Larramendi industrialdeak era askotako azalera eta erabilera eta jarduerak motak eskaintzen ditu, hurbil dago komunikazio lotune oso garrantzitsu batetik –Beasain-Durango ardatza–, AP-1 autobidetik, eta aukera ematen du euskal hiriburuekin konektatzeko Eibarko AP-8tik, distan-

tzia berera dagoelako Bilbotik, Donostiatik eta Gasteiztik".

**Bost enpresa interesatuta**

Bestalde, alkateak jakinarazi zuen "bost bat enpresak" agertu dutela bertan kokatzeko interesa; eta esan zuen "horregatik" hartu duela erabakia Sprilurrek. "Gure programan agertzen gure bezala, Larramendi industriagunea eraberritzea eta piztea funtsezkoa da Bergararen etorkizunerako". Zentzu horretan, alkateak azpimarratu zuen "bide honen hasiera" 2003-2007ko udal legealdian dagoela, eta Udaleren eta Jaurlaritzaren arteko "elkarlan on" baten ondorioa dela Larramendi industrialdea bera.

**Urtarrilean hasiko dira obrak**

Xehetasun praktikoetara joz, pabiloiak eraikitze interesak duten enpresek abenduaren 7ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko. Asmoa da obrak urtarrilean hastea, eta 12 hilabetean bukatzea. 3,5 milioi euroko aurrekontuari dagokionez, berriz, hiru milioi bideratuko dituzte pabiloi industrialerako eta gainontzeko milioi erdia eraikin komertzialerako.

## San Juan Batailatzailearen elizan da Arizmendiarieta

Kooperatibismoaren aita zenaren gorpuzkiak San Kristobalگو hileritik elizara eramán zituzten atzo

**Maite Txintxurreta ARRASATE**

On Jose Maria Arizmendiarieta gorpuzkiak Arrasateko parrokiako Errosarioaren Ama Birjinaren erretaularen beheko aldean gorde zituzten atzo, San Kristobalگو hileritik aterata. Iaz, aita santuak beneragarri izendatu zuen apaiza, eta atzoko beatu edo santu izendatzeko bidean pauso bat gehiago da.

Hilkutxa hilerriko hoberik ateratu zuten, eta peritu medikuak ikuskatu egin zuen. Bukatzean, elizara jaitsi zuten hilkutxa.



Arizmendiarieta gorpuzkiak kutxan.

**Hobiratze ekitaldia**

Elizan, erretaularen oinean sartu zuten hilkutxa. Besteak beste, Arrasateko kooperatibagintzaren sortzaileak izan ziren San Juan parrokiak: Jose Maria Ormaetxea eta Alfonso Gorroño-goitia.

Etzi, domeka, Arizmendiarieta hil zeneko 40. urteurreneko meza egingo dute, eta Donostia-ko gotzain Jose Ignacio Munilla etorriko da.

## Danobat Group-en lehiaketa Euskararen Eguna begira

Danobat Group-ek "euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendu eta sentsibilizazio berezia" abiapuntu eta "kooperatiba gisa duen gizarte erantzukizunari erantzunez euskararekiko konpromisoa" ezagutzera eman guran, lehiaketa jarri du abian Euskararen egunaren bueltan. Part hartzeko, galdetegi bat osatu beharko da, [www.danobat-group.com/euskara/lehiaketa](http://www.danobat-group.com/euskara/lehiaketa).

html helbidean sartuta, abenduaren 3ra bitartean. "Sartu ariketan, kontsultatu webgunea, sartu hiztegi teknikoan, klikatu Tailerreko Eskuliburu Teknikoan... osatu ariketa eta hartu parte bi smart-watch-en zozketan. Aldean dugun euskara hori erabili dezagun lanean, etxean, kalean..." animatu dute.

Danobat Group-eko kooperatiba guztietan euskara planak ditu martxan "langileen artean euskararen erabilera areagotzeko, langileen motibazioan eragiteko eta eza-gutza handitzeko".

## 'Baietz 1.000!' kanpaina, dendariekin euskaraz

Arrasateko komertzioetan euskararen erabilera sustatzea helburu duen *Baietz 1.000* kanpainaren bigarren fasea abian da. "Jendeak euskaraz bizitzeko nahia praktikara eramán dezan nahi dugu", azaldu du AEDko kide Itxaro Artolak. Eta bide horretan, 12 herritar dabilta ekimenaren bigarren fasean parte hartzen. Egiten dutena da

Arrasateko dendaren batera sartzean, bertakoekin euskaraz jardun.

Lehen fasean herritarren argazki bidezko atxikimendua bultzatu dute. Dagoeneko helburutik gertu daude, 800 lagunek babesa erakutsi diote-eta kanpainari, nork bere argazkia bidalita. Erroka, baina, 1.000 lagun babsa lortzea da eta parte hartzeko atea zabalik daude. Argazkia bidaltzeko: 688690017 (whatsapp-a) edo [baietz-mila@gmail.com](mailto:baietz-mila@gmail.com) helbidea.

## Aulkiak, kafea eta hamaika iritzi: etorri Torresoroara

**PEDRO ITURBE**

ANTZUOLAKO EH BILDU-REN IZENEAN  
ANTZUOLA

Honezkerok kalean ikusiko zenituzten *Abenduak 3 Torresoroan...* leloa eta koloretako aulki huts batzuk erakusten dituzten kartelak. EH Bildukook jarri ditugu, datorren larunbatean Torresoroan jarriko ditugun aulki hutsak bete, hitz egin, eta etorkizunerako norabidea denon artean markatzen hasi nahi dugulako.

Zer izan behar du EH Bilduk Antzuolan? Zer eskaini behar die herritarrei? EH Bildu osatzen dugun familien arteko harremanak nola sendotu behar ditugu? Zelako etorkizuna irudikatzen dugu?...

Galdera horien eta gehiagoren inguruan hitz egiteko aukera izango dugu abenduaren 3an. Kezkak, zalantzak, ideiak, gogoak eta ilusioak partekatze elkartuko gara. Tarteka serio arituko gara, triste ere bai akaso, ezustekoren bat izango dugu, barre egiteko aukera ere ez zaigu faltako eta, batez ere, lasai eta aske hitz egiteko

gune bihurtuko dugu Torresoroa.

Goiza kafearekin eta Peio Urizarren bisitarekin hasiko dugu. Gero, gure, zure, denon txanda izango da.

Aulki hutsak betetzera gonbidatzen zaitugu, aulki hutsak bete eta herri honen koloretako etorkizuna marrazten hasiera.

## Xabier Legorbururi

**BEÑARDO KORTABARRIA**

ANTZUOLAKO ALKATEA  
ANTZUOLA

Ez naiz ni komunikabideetako ping-pong gutunen zalea –hau da, aste honetan nire gutuna, hurrengoan zurea, eta buelta...–, baina aurreko astean Xabier Legorburuk idatzitakoaren inguruan pare bat gauza komentatu beharra daukat. Aprobetxatuko dut alde zureatik esateko ez diodala ping-pong partidari jarraipenik emango hemendik bi astera.

Komentatzeko lehena, eta hau iritzia da: atari bereko bigarren eta hirugarren solairuetan bizi garela kontuan hartuta, Goienara gutunak bidaltzea baino, gauzak esateko modu zuzenago eta naturalagoak badituk ba! Ez al zaik horrela

iruditzen, Xabier? Hala ere, eskubide eta askatasun osoa daukagun hori horrela egitea edo ez egitea erabakitzeke; ni, aldiz, hire aurreko gutunak behartzen nau euskarri bera erabiltzera.

Benetan komentatu nahi nuena, hire idatziaren pasarte hau: *Alkatiaren idatzixan txakurren kakarik ez azaltzia idatzixa egitterakuan ez akordatzian ondorixua izan dala pentsatu nahi dot; aldiz, herriko hormetako pintaden aipamenik ez egitiaren arrazoia zein dan jakin nahiko nuke; izan be, honek garbitzeko eta berriz holakorik ez egiteko alkate deirik ez dot ikusi.*

Hau da, esaldi horretan, hik heuk erabaki duk txakur-kakak aipatzea ahaztu egin dudala; eta, pintadak aipatzea, berriz, ez zaidala ahaztu, ez ditudala aipatu ezkutuko arrazoiren bategatik edo intenzionalitatearen bategatik... Eta, galderak: zertan oinarritzen haiz hori horrela botatzeko? Zein intenziorekin egiten duk bereizketa hori?

Pintadek zikindu egiten dute. Jakina, baina pintada gehien asmoa ez da zikintzea izaten, baizik eta salatzea, ezkutuan dagoen

zerbait azaleratzea, aldarrikatzea... horregatik, ez dira bere horretan alderatzeko modukoak. Eta hori esaten dost, zikintzea eskubidea ez dela dioen batek. Honetaz hitz egiteko, lerro mugatu hauek eskaintzen dutena baino denbora eta toki gehiago behar denez, badakik non bizi naizen!

## Eskerrik asko!

**ION UNAMUNO**

LOKATZA ZIKLISMO ESKOLAREN IZENEAN  
BERGARA

Pasa den larunbatean Lokatza Ziklismo Eskolaren 40. urteurrena ospatu genuen.

Lokatzen hain errotuta dugun moduan antolatuta eta gauzatu genituen ekintza guztiak: elkarlanean.

Aranzadi Ikastolako gimnasioa jangela eta auditorium bihurtu genuen. Nola? Udalak utzitako mahai, aulki, eszenatoki, mikrofono, eta abarrekin.

Lokatza osatzen dugunok, guraso, txirrindulari edo laguntzaileok, dena bere lekuan jartzeko ardura hartu genuen, eta baita lortu ere. Eskerrik asko!

Bolintxo Okindegia eta Gorla Auto Group enpresek emandako laguntzarekin 40

urteetan eskolatik pasatako guztiak irribarrez sartu ziren bazkarira eta han ezusteko aparta eduki zuten olagarroarekin, okela-carpaccioarekin, marmitakoarekin eta txakolin-sorbetarekin, besteak beste. Ondo sukaldatu eta ondo zerbitzatuta. Aupa zuek!

Bukatzeko, omenaldi, bertso, dantza eta tertulia. Egun ahaztezina.

Eskerrik handiena Lokatzako sortzaileari: gora, Fermin!

## Iñigo Martinez, errudun eta heroi

**MIKEL ARANTZABAL**

EIBAR

Bai, ba, halaxe da. Realeko atzelariak bi alderdi horiek bizi izan ditu astebetean.

Espainiako Selekzioarekin jokatu zuen, eta partidu eskasa irten zitzaion. Eta hurrengo astean, Realarekin jokatu, bere taldearekin, eta a zelako gola sartu zuen 30 metrotik falta bat botata! Eta defentsan sendo.

Bueno, ba, espainiarrak haserre bizian ondarrutarrarekin eta realzaleak, berriz, pozez gainezka. Bejondeiola!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otorala Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

JUDITH ERAÑA

## Kaskoarekin bueltaka

Ez naiz kirolzale amorratua, lehiatzen duen horietakoa, ez eta azkenaldian hain modan jarri diren *extrem* probak egiten dituenetakoa; izan ere, nire burua ez dut horretarako gai ikusten. Alabaina, esan beharra daukat, bategatik edo besteagatik, nire buruarekiko gustura sentitzea gustatzen zaidala, eta, hargatik, ahalegintxo bat edo beste egiten dudala. Ez larregi, egia esan... Eskerrak nire jendartea horretara emandakoa dela; familia, lagunak eta lan-giroa.

Lana aipatzen dudala aprobetxatuz eta kontatzeko dudan gertaera batera hurbilduz... lanera bizikletaz nindoan egun euritsua zen, paisaiatz eta lasaitasunaz gozatuz bat, Aretxabaletatik Arrasaterako bidean, bidegorritik. Bat-batean, maldan behera, ohartu gabe, aurrez aurre korrikalari talde batekin topo egin eta nire bizikletarekin korrikalarien artetik pasatzeko zirrikiturik ezin topatu nengoela, korrikalari batekin

### USTE DUGU NORBERARI EZ ZAIOLA INOIZ EZER GERTATUKO, BAINA GERTATZEN DIRA

talka egin eta txilinbuelata burua eta bizkarra lurraz jo arte. Hori astindua hartu nuena! Hori burukomina hori! Begiak zabaldu eta korrikalariak, anbulantzia, denak nire inguruan zeuden, nire erantzunaren zain.

Kristoren kaskatekoa,

kolpeak eta zauriak non-nahi, baina burua libre! Hori bai, kaskoa bost zatitan leher eginda. Hau da hau! Zer gertatuko zen kaskorik eraman izan ez banu? Batek jakin! Hobe horretan ez pentsatzea... Sarritan ez diogu kontuari duen beste garrantzirik ematen, uste dugulako norberari ez zaiola inoiz ezer gertatuko, baina gertatu, gertatzen dira. Horren lekuko, ni neu.

Ni ez nindoan Frantziako Tourra jokatzeko, ez eta kirol proba bat egiten ere, lasai asko bidegorritik lanera bidean baizik. Baina ustekabean, bizikletako kaskoa eramateak egoera larri bat jasatetik libre utzi ninduen. Honekin esan nahi dudana da istripuak agudo eta konturatu orduko pasatzen direla eta haiek eragindako ondorioetatik errekuperatzea motela dela, eta, kasu batzuetan, zaila.

Zutabe honekin, nire esperientzia norbaiti baliagarri izatea espero dut, inoiz ez baitakigu zer gertatuko zaigun, eta, behintzat, gure esku dagoen apurra egiten badugu, lagungarri izango zaigula, ziur.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



# AZTETXIA

## ZEUK ESANA

### Frantzian, lanorduetatik kanpo, nagusiek langileei ezin izango diete ez deirik egin ez mezurik bidali; zer diozu?

**IRITZIHON**  
ARRASATE

Ba... pentsetan dot lanbidearen arabera izengo dala, ezta? Izen be, gauza bat da fitxatu eta etxera joatea, baina persona horrek ardurak badauzko enpresan, ba, zoritxarrez, edo zorionez, 24 ordu egon biherko dau alertan.

**ZUKUGAILUA**  
OÑATI

Frantziarrak beti aurretik!  
Izan ere, *kontziliazioa*

berbarekin ahoa betetzen zaio askori, eta gero, egunerokoan, telefonoa ezin gainerik kentzera behartuta daude langileak. Adibidez, kontratuan zortzi orduko eguneko jarduna agertzen bada, hortik aurrera, jailarai!

**AIMAR DEFONDO**  
OÑATI

Bua... a ze erabaki zuzen eta egokia. Lanetik irten, eta libre, hurrengo egunean lanera bueltatu arte. Horrela izan beharko luke leku

guztietan, baina, tamalez, ez da hala izaten.

Ezagutzen ditut hainbat pertsona lanari lotuta bizi direnak; lagunartean afarian egon, eta poltsikoko telefonoa mahai gainean izaten dutela, laneko deiren bat jasoko ote duten beldur.

Ulertzekoa da nagusiek ardura handiagoak izatea enpresan eta lanetik kanpo ere *ojo avizor* egotea, baina langile arruntek ez daukate zertan ardura hori euren gain hartu.

**HURRENGO ZENBAKIAN: ETORKIZUNENKO PUBLIZITATE-ERREMINTAK IZANGO DIRA 'CHALLENGE'-AK?**

Iritzia emateko posta elektronikoa: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) / Webgunea: [goiena.eus](http://goiena.eus).

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantxabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.  
**Erredaktore burua**  
Ubane Madera.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Goitz Arana.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Marta Leturia.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura),  
Leire Kortabarria (Ekonomia).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.  
**Publizitatea**  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin, Imanol Elortza,  
Jokin Uribeetxeberria.  
**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## PROTAGONISTA

# "Plaza berezia izaten da Euskal Herriko finala"

MIREIA IBABE PANDERO JOLEA

Maite Txintxurreta BERGARA

Mireia Ibabe pandero jole beragararrak Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketako finalean parte hartuko du Eneko Arbeo trikitilari azpeitiarrarekin batera. Azken bi edizioetan pandero jolerik onenaren saria eskuratu du Ibabek.

Domekarako urduri?

Apur bat. Izan ere, aurtun ez dugu beste urte batzuetan beste denbora izan entsegutarako; ni unibertsitatean hasi naiz, eta Eneko ere ikasten dihardu... Orduan, azkenengo momentuan ibili behar izan dugu; dena den, gogoz gaude.

Zelan moldatzen zarete entseguetarako?

Ni Donostian nabil ikasten, eta hura Azpeitian bizi da. Orduan, elkarren etxera joaten gara. Denbora laburragoa dugu, zailagoa da elkartzeko, baina ahalegintzen gara ahal dugunetan egoten.



Mireia Ibabe, Zeanuriko txapelketan. MIREIA IBABE

**Izan ere, garrantzitsua izango da trikitilariak eta pandero joleak entseguak elkarrekin egitea.**

Bai. Nork bere aldetik egitea eta noizean behin biak elkartuta ere egin daiteke, baina binakako

txapelketan behar den konplizitate hori bilatzeko garrantzitsua da elkarrekin entseatzeko.

**Azkenengo bi txapelketetan, pandero jole onenaren garaikurra lortu duzu. Errepikatzeko asmoz?**

Berez, txapelketa horietan binakako saria ez genuen guk eskuratu; aldiz, niri eman zidaten pandero jolerik onenarena. Baina, bikoteen sari hori lortzeko ere, esperientzia oso polita izan ohi da beti, eta pasatako urduritasun eta tentsio horiek guztiek merezi izaten dute. Euskal Herriko txapelketakoa plaza berezia da; frontoi batean jokatzeko da, eta oso ondo prestatutako oholtza da. **Bikoterik onenaren saria lortzea da zuen helburua?**

Aurtun inoiz baino argiago dugu txapelketa guztietan ez dugula irabaziko, ez baitugu beste batzuetan adina ordu sartu. Gure helburua ahalik eta ondoen egitea da.

Guk txapelketak horrela hartzen ditugu, lehiakortasun handirik gabe, disfrutatzen.

Ze kantu jo beharko duzue?

Lau pieza eskatzen dizkigute: trikiti bat, porrusalda bat, fandango bat eta arin-arina. Bikoteak aukeratu dezake abestia, fandangoan izan ezik. Fandangoa antolakuntzak aukeratzen du.

Desberdina da txapelketa batean ala kalejira batean jotzea?

Bai. Txapelketako ikusleek begiak norberarengan izaten dituzte, eta tentsioa ere nabaritzen da. Kalejira batean, jai giroa dago.

## HAU BE BADOGU!

**Trikuharriak, 'Cuarto Milenio' saioan**



Cuatro telebista kateko *Cuarto Milenio* saioan, Leintz Gatzagan aurkitu berri dituzten trikuharrien inguruan aritu ziren. Hona hemen Iker Jimenez aurkezleak bota zuen txioa:

@navedelmisterio:

"Hileta-tokia basozain batek aurkitu zuen Leintz Gatzagan (Gipuzkoa) eta kontserbazio egoera onean dago #CuartoMilenio" (itzulita).

**Ezusteko elurteak, argazki ugari**



@gatzmuseoa: "Elurra dago Leintz Gatzagan eta gu epelean gatza egiten. Elurra vs. sua. @debagoiena @Basquetour\_eus @Bekerreke #Debagoiena".

Debagoieneko hainbat tokitan ezusteko elurteak izan zen eguaztenean. Leintz Gatzagako inguruak zuritu ziren, eta sarean hainbat argazki partekatu zituzten erabiltzaileek. Goiko argazkia @etxazk6-k atera zuen.

**EAJren eta PSEren akordioa, #inbestidura**

*Trending topic* izan dira asteon Legebiltzarreko kontuak, eta, batez ere, #inbestidura traolarekin bildu dituzte iruzkin gehienak. Eusko Jaurlaritzak osatuko duten alderdien akordioa dela eta, #PNV-PSE traola, gainera, *trending topic* izan da Espainia mailan ere.

#RitaDEP eta #ritabarbera traolak, senatariaren heriotzaren harira, hizpide izan dira ere sare sozialetan.

## ITURRI ONETIK

**Desfileak irekiko du Gabon azoka**

Bigarrenegun egingo dute Gabonetako azoka, abenduan, Aretxabaletan. Aurtun, Aretxarte merkatarien elkarteak antolatutako moda desfilearekin irekiko dute, abenduaren 16an, hain zuzen ere. Merkatariarekin batera Jaiki elkartereko kideak izango dira Herriko Plazako karpazpian egongo den alfombra gorriaren gainean. Beste ekitaldi eta eskaintza mordoak ere izango dira Gabonen bueltan Aretxabaletan, bonuak esaterako. 20 euro ordaindu eta 30 euroko bonua emango dute trukean, Aretxartereko komertzioetan gastatzeko.

## GORA ETA BEHERA



**TAO makina bota egin zuten joan den asteburuan**

Datorren hilean abiarazi gura du Oñatiko Udalak aparkatzeko txandakako sistema. Funtzionamendu horrek berezkoak ditu denborak zaintzeko makinak, eta horiek ipinita daude. Bada, gure irakurle batek salatu du horietako bat bota egin zutela joan den asteburuan; hain justu ere, Aita Madina kaleko espaloi bazterrean ipinita zegoena – argazkian hutsunea–.



# Indarrean jartzear da ordenantza polemikoena

Abenduaren 1etik aurrera kale garbiketaren arautegia izango du Arrasatek. Agintaldiko orain arteko gairik eztabaidatuena izan da; gobernuak dio herri txukunago baterako erreminta izango dela eta oposizioak, berriz, adierazpen askatasuna urratzen duela

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

Martxoaren 22ko osoko bilkuran behin-behineko onarpena eman eta uztailaren 12ko osoko bilkuran behin betiko izaeraz onartu ostean, hurrengo egunean, abenduak 1, jarriko da indarrean kale garbiketa ordenantza. Udal Gobernuaren orain arteko erabakirik polemikoenetakoa izan da, oposizioak alderdi politiko guztiak eta herriko hainbat eragile kontra dituen. Ordenantzaren 17. artikulua hautsak harrotu ditu –kartelak, pankartak, pintaketak eta muralak arautzen ditu artikulua horrek, besteak beste–; artikulua horrek adierazpen askatasuna urratzen duela uste dute kontrakoek.

Gobernuaren arabera, herri txukunago eta erakargarriago baterako erreminta izango da ordenantza berria.

**Zigorren aurretik, "pedagogia"**

Zer ekarriko duen ordenantza hori indarrean jartzeak? Hone-la azaldu du Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeko buru Oscar Garciak: "Pankarta bat jartzen duenak argi izango du noiz jarri eta kendu beharko duen, kartelak dagokien lekuan jarri beharko dira eta ez horma edo luminaria baten... Hori guztia arautu beharra dago".

Arautegia indarrean jarri ostean, edozein isun edo zigor ezarri aurretik "pedagogia" egingo du gobernuak. "Badakigu aldaketa handia dela hainbat herritarrendako, ohitu egin beharko direla. Arazo bat dagoenean arazo hori identifikatu dugu, banaka. Kartel bat lekuz kanpo jarrita badago, kartel hori jarri duenarekin jarriko gara harremanetan eta ordenantzaren berri emango diogu. Pedagogia lan horren ostean, uste dugu herritarrak konturatuko direla Arrasate hobeto dagoela ordenantzarekin ordenantza barik baino", adierazi du Garciak.



Altsasuko atxilotetak salatzeo pintaketa Seber Altube plazan, joan den astean. i.s.

## "PEDAGOGIA LAN BAT EGINGO DUGU, BADA KIGULAKO ALDAKETA HANDIA IZANGO DELA"

**Pintaketengatik 55.000 euro**

Gobernuak ohar bidez jakinarazi duenez, 2015eko ekainetik Udalak 55.000 euro bideratu ditu pintaketek eragindako garbitasun gastuetarako. "Ez du inolako zentzurik alde batetik bitartekoak jartzeak, esaterako, giza eskubideen aldeko adierazpenak jartzeko eta, bestetik, Udalarri galera ekonomikoa sortuko dien pintaketak egitea ordenantzatik kanpo. Izan ere, konbentzitutako nago Udalak herriari zor diola hiri garbia, erakargarria eta txukuna izatea", gaineratu du zinegotzi sozialistak.

Garciak ez du uste ordenantzak adierazpen askatasunaren kontra egiten duenik: "Interes politiko argia dago atzetik, gezurra da". Gogora ekarri du Donostian, Gasteizen, Zarautzen, Durangon eta beste zenbait herritan badagoela halako orde-

nantza bat: "Ez dut uste herri horietan bizi direnek askatasun gutxiago dutenik. Argi dago denok ez dugula berdin pentsatzen eta horregatik, hain justu, arauak jarri behar dira. Askatasunaren kontzeptua ezin daiteke nahi dena, nahi den lekuan eta nahi den moduan esateko eskubide moduan ulertu. Herri-tar guztiek nahi dutena esan ahal izateko lan egingo dut, baina errespetua bermatu beharra dago. Horretarako sortu zen ordenantza, arrasatear guztiei begira. Arazoak sortu ahala aldaketak egin daitezke, noski".

**Balorazioa, txosten teknikoak**

Ordenantzak jasotzen dituen honako puntu hauek, beste askoren artean: kartelak aurrez eskatu barik jarri ahalko dira hartarako lekuetan, eta leku horietatik kanpo jartzeko baimena beharko da; pankartak jartzeko zein mural artistikoak margotzeko baimena beharko da, eta pintaketak egitea debekatuta dago kanpoko edozein lekutan. Adierazpenetako mezuen balorazioa –iraingarriak edo giza eskubideen aurka doazen, esaterako– txosten teknikoaren arabera egingo da.



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

## Juli Berezibarrek, 100 urte gaur

Gaur duela 100 urte jaio zen, Maalako Errabala kalean, Juli *Salturni* –aitaren baserria da– Berezibar. "Mende oso bat, denetik bizi izan duena, baina beti osasunez eta adoretz emanda. Zorionak eta segi urte askoan bizitzari aurre egiten hain zurea duzun umore fin horrek!", adierazi du Josemari Velez de Mendizabalek bere blogetako baten. Argazkian, Elena alabarekin ageri da Juli.

## Beste 24.000 euro banatu ditu Nebraska tabernak loterian

Azaroaren 19ko Espainiako loteriako bigarren sariaren bi dezimo banatu ditu Nebraska tabernak. Dezimo bakoitzak 12.000 euroko saria izan du eta tabernako bi arduradunak –Alazne Ezkurra eta Jokin Belategi– eta bi bezero dira irabazleak: Fernando Martin eta Anselmo Vigarra. Iaz 2.243.955 euroko saria banatu zuten Loteria Primitiboan.

## ARRASATE IRRATIA

### Sarrerren zozketa

Koiltur Ostegunak ekimenaren barruan, Gente Mayor taldeak kontzertua eskainiko du abenduaren 1ean gaztetxean (22:00). Bestalde, Gorakada Teatro antzerki taldeak familiei zuzendutako *Moby Dick* antzezlan taularatuko du abenduaren 3an Amaian (17:00). Bi ikuskizunetarako sarrerak zozketatuko dira irratian; parte hartzeko: 943 25 05 05 edo [irratia@goiena.eus](mailto:irratia@goiena.eus).



NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA

## Janari lasterraren erronka

Euskal nekazaritzaren ekoizpenaren balioa geroago eta txikiagoa da; gure Barne Produktu Gordinaren %0,9 besterik ez da. Era berean, azken 24 urteotan nekazaritzako errenta %50 jaitsi da. Azkenik, nekazaritza-ustiatzearen kopurua %33 jaitsi da azken hamar urteotan.

Joera horien aurrean beste honako hau agertzen da: Euskadin iaz 93 milioi euroko salmenta izan zen janari lasterrean –*fast food* deritzona– eta Espainiari dagokionez salmentak 1.980 milioi eurokoak izan ziren. Gizarte mailan eman diren aldaketen eraginez eta baita aipatutako kontsumoen eraginez, elikadura geroago eta desorekatuagoa da. Ondorioz, Euskadiko neska-mutikoen %15 gizona da.

Aipatu bi joera horiek Europa osoan gertatzen dabilta. Hori ikusirik, aberri ugari bere interesa erakutsi du bere janari lasterra eta osasuntsua sortzeko. Besteak beste, Suediak, Finlandiak, Frantziak eta Italiak. Euskal sukaldaritzak ezin lezake euskal janari lasterra eta osasuntsua sortu bertako landa garapenari irtenbide berriak eman ahal izateko?

# Badira beste era bateko opariak egiteko aukerak

Txatxilipurdiren Jostailu Truke Merkatua, Emaus fundazioaren enkante solidarioa, Zuberoako Eperra Ikastolaren aldeko saskiak edota Ibai-Arte elkartearen otarreak Gabonen bueltan urtero antolatzen diren ekimenak dira, bestelako erregaluen adierazle

## Jokin Bereziartua ARRASATE

*Black Friday* da gaur, azaroko azken egubakoitza. 1960ko hamarkadan AEBetan sortutako fenomeno da, Gabonetako erosketen hasiera iragartzen duena. Eta AEBetan sortutako beste hainbat ohituraren antzera, Debagoienara ere heldu da. Arrasaten bertan, Ibai-Arte elkarteak 44 saltokik ospatu zuten iaz *Black Friday*-a, %15era arteko deskontuekin. Eta aurten ere ospatuko dute, beste modu batera.

## Jostailuak trukatzu, berrerabili

Baina ohiko erosketez harago, Arrasaten badago aukera bestelako kontsumo eredu baten oinarritutako opariak egiteko. Txatxilipurdiren Jostailu Truke Merkatua dago, adibidez. "Etxe-ko armairu eta apalak aztertu eta erabiltzen ez diren jostailuei beste erabilera bat ematera animatu nahi ditugu umeak eta gazteak", diote Txatxilipurdikoek. Truke azoka abenduaren 17an egingo dute Biteri plazan (11:00-13:00) eta dagoeneko hasita daude jostailuak biltzen; beste sei hitzordu egongo dira, 17:30etik 19:00etara: azaroaren 29an, Okendoko ludotekan; azaroaren 30ean, San Antolin parkean; abenduaren 1ean, Usaetxeko ludotekan; abenduaren 12an, Santa Mariako ludotekan; abenduaren 13an, Okendoko ludotekan eta abenduaren 14an, amaitzeko, Arimazubiko plazan.

Jostailu guztiek balio bera izango dute eta bakoitzeko truke txartel bat jasoko da; ez dira onartuko egoera onean ez dauden, sexu bereizketa egiten duten edota eta indarkeriaren aldeko jarrera erakusten duten jostailuak. Gainera, abenduaren 17ko azokan bertan jostailuak sortu eta horiek trukatzeko aukera ere egongo da. Jostailuak trukatu eta berrerabiltzeko aukera badago, beraz. Argibide gehiagorako: 943 79 54 46.



Hainbat jostailu Udal Azokan, Txatxilipurdiren Jostailu Truke Merkatuan. TXATXILIPURDI

## Emausen enkante solidarioa

Emaus fundazioak Arrasateko Bidekurtzeta kalean duen dendan enkante solidarioa dago asteon. Dendaren ordutegi barruan hartu ahalko da parte enkantean; edozein objektu eskuratzeko txartel bat bete beharko da. Txartel hori sekretua izango da eta bi euroko fidantza ordaindu beharko da objektua eskuratzeko benetako interesa dagoela erakusteko. Askotariko 80 objektu daude enkantean, Ramon Barea historialariak tasatutakoak.

Jostailuak, erlojuak, Arrasaten egindako ikatzezko plantxa bat, koadroak, etxeko tresneria eta beste hainbat bitxikeria aurki daitezke. Jasotako dirua Emaus-ek beste proiektu batzuetarako erabiliko du, baztertzeko egoeran daudenei begira. "Gabonetarako opari ezberdin eta bitxi bat egiteko aukera ederra da", dio Emauseko komunikazio zerbitzuko arduradun Idoia Larrañagak. Enkantearen gaineko argibide gehiago: 943 77 18 71.

## Saskiak: Eperra eta Ibai-Arte

Gabonetako saskien artean, nabarmentzekoa da Arrasaten arrakasta izan ohi duen Zube-

roako Eperra Ikastolaren aldeko ekimena. Ahüzki (40 euro) edo Irati (52 euro) otarreen artean aukeratu ahalko da; eskaerak egin ahalko dira abenduaren 12ra arte ([nikere@ikaskoli.eu](mailto:nikere@ikaskoli.eu)).

Gainera, Ibai-Arte Gabonetako "kalitatezko produktuez" osatutako 100 otzara zozketatuko ditu. Bezeroak fidelizatzea du helburu kanpainak; abenduaren 23ra arte Arrasate Txartelarekin erosketak egiten dituzten bezeroen artean egingo da zozketa. Saskiak abenduaren 23an banatuko dira, Herriko Plazan (13:30).

## Indarkeria matxistaren kontrako elkarretaratzea eta jaialdia

Azaroaren 25aren harira antolatutako ekintzen barruan, kontzertazioa egingo dute gaur Seber Altuben (19:00)

### J.B. ARRASATE

Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna da gaur eta aurten ere Emakume Txokoak egitarau berezia antolatu du hainbat eragilerekin elkarlanean. Joan den aste bukaerarako *Indarkeria matxista han eta hemen* tailerra eta *Emakume musikariak solasean* mahai-ingurua antolatu ostean, gaurko, elkarretaratzea deitu dute Seber Altube plazan, 19:00etan. Egitaraua borobiltzeko, abenduaren 15erako, *Emakume musulmanak berdintasunaren erronkaren aurrean* hitzaldia antolatu dute

Kulturaren (19:00); Munduko Emakumeak taldeko kide Maya Amrane eta Emakume Musulmanen Elkarteak arduradun Hajar Samadi izango dira hizlariak.

Bestalde, Potto Gorriak taldeak antolatuta, jaialdi feminista egingo dute bihar gaztetxean. Egun osorako egitaraua antolatu dute: *Alu poteo girotua* gaztetxetik hasita (12:00), bazkaria gaztetxean (14:30), *Txabela Bragas* antzezlana bazkalostean, poteo musikatua (18:00) eta Las Klitorix eta talde sorpresa baten kontzertua (23:00).



ZAHAR-BERRI

## Gurasoekin ere mintzapraktikan

Goiena komunitatea / Zahar-Berri elkarte / ARRASATE

Azaroaren 18an hasi ginen Zahar-Berri mintzapraktikako ikasturtearekin. Aurten, gurasoak aktibatze ahalegin berezia egiten ari gara Txatxilipurdirekin, Arrasate Herri Eskolarekin eta Arizmendirekin batera. Izena eman daiteke AEDn, udal euskaltegian, AEKn edota [www.mintzalaguna.eus](http://www.mintzalaguna.eus) webgunean.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa  
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 [www.zenbaki.eus](http://www.zenbaki.eus)

30  
1986-2016

# "Taldean titular zarela uste izatea akatsa da"

**AITOR FERNANDEZ ABARISKETA** NUMANTZIA FUTBOL TALDEKO ATEZAINA laz Vila-realeko bigarren taldearekin mailaz igotzeko puntuan egon zen arrasatearra; aurrerapausoa eman eta uztailetik Jagoba Arrasateren aginduetara dago Numantzian

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Ia lau urte pasa dira Athletic-eko harrobiko jokalaria arrasatearrak Vila-realera joateko mailetan egin zituenetik. Erreferente bilakatu zen bigarren taldean, kapitain izendatu zuten, eta jokatu zitekeen guztia jokatu zuen -102 partidua guztira-. Baina ezin izan zuen lehenengo taldearekin Lehen Mailan debutik egin. Horregatik baino gehiago, arantza kategoriaz igotzeko pausotxo batera geratu izanagatik dauka. Ikasketa prozesuan beste aurrerapauso bat ematera joan da Numantziara.

**Valladolid taldeari irabazita [2-1], taldeak arnasa hartu du asteburuan.**

Bai; halako garaipen bat behar genuen, dagoeneko zazpi partidua generamatzalako partidurik irabazi barik.

**Suspenseko pelikuletan moduan, 90. minutuan egindako golari esker [Manu del Moralek].**

[Barre] Ez pentsa partiduan sufritu ez genuenik...



Aitor Fernandez, uztailean, aurkezpen ekitaldian. DESDESORIA.ES

**Halako garaipenak, gainera, aulkitik beharrean zelai barrutik beste modu batera bizitzen dira. Eta loreak jasota, gainera.**

Bai, zalantza barik. Asteburu honetan jokatzeko zortea izan

dut, eta irabaztea lortu dugu. Hori ere garrantzitsua izaten da, bai.

**Jagoba Arrasateren postua kolokan zegoen partidua aurretik.**

Guk ere entzun genuen zerbait. Egia da jokalariorok eguneroko

lanean murgilduta egoten garela, baina guri ere iristen zaizkigu halakoak. Ondo ikusten dut Jagoba, taldean zentratuta, eta, gainera, taldeak sinisten du entrenatzaileak duen lan egiteko moduan.

**Vila-real en hiru denboraldi egin ostean Soriara joateko erabakia hartu zenuen udan. Zeri eman zenien garrantzia?**

Iazko urtea ona izan zen niretako, esango nuke orain arte egin dudana denboraldirik borobila izan zela, baina mailaz igo ez izanaren arantza badut oraindik. Ondoren, hotzean, jabetzen zara sekulako denboraldia egin genuela eta irakurketa positiboa izan behar dela, baina etapa hura amaitutzat eman nuen. Hainbat aukera izan nituen udan, baina Jagoba Arrasateren deia jaso eta Numantziara etortzeko konbentzitu ninduen.

**Munir eta biok ari zarete postuagatik borrokan. Lehenengo eta bigarren atezain moduan zaudete; rol hori garbi duzue?**

Ez dakit zelan geratuko den esatera noan hau, baina iaz Vila-real taldearekin 42 norgehiagoka jokatu nituen *play-off*-a kontuan hartuta, eta inongo momentutan ez nuen barneratu atezain titularra nintzenik. Horrela pentsatzen hasten zaren momentuan ikasteari uzten diozu, erlaxatu egiten zarela. Numantziara ikastera etorri naiz, egia da Vila-real en askotan

entrenatzen nintzela Lehenengo Mailako jokalariekin, baina konpetizioa erabat ezberdina da, eta hemen guztiok gura dugu jokatu. Hala, Jagoba Arrasateri, nor aukeratu erabakitzekeo zailtasunak jartzen ahalegintzen naiz.

**Urte batzuk Valentzia aldean egin ostean Soria etxetik gertu egoteak zeresana izan zuen erabakia hartzeko orduan?**

Ez; futbol jokalaria baten kirol bizitza laburra da, eta kirol proiektuari eman diot lehentasuna, ez etxetik gertu egoteari. Jagobak konbentzitu ninduen esanaz giro jatorreko taldea zela, eta hazten jarraitzeko leku proposa zela.

**Murtziaren kontra duzue asteburuan, atzean daude eurak ere.**

Irabazi beharreko partidua da. Mailaz igo berri dira, eta ez dabilta oso ondo; irabaztera joango gara. Dena dela, etxetik kanpora puntu bat ere ez da emaitza txarra.

**Gabonak gainean ditugu; etxera etortzeko aukerarik bai?**

Bai; aurten, Gabonetan, opor mordoak ditugu, eta santamask Arrasaten pasa ahal izango ditut, etxekoekin eta lagunekin.

**"PENA IZAN ZEN IAZ MAILAZ IGO EZ IZANA, BAINA DENBORALDI EDERRA EGIN GENUEN"**

## Valladolid taldearen bisita izango du MUK bihar Iturripen

Azken bi partidua galdu ostean Larreategiren mutilek berriro gora begira jarriko dituen garaipena gura dute

**X.U.** ARRASATE

Azken bi porrotetatik ondorio asko atera dituzte MUKoek. Batez ere, duela bi aste La Gallofaren kontrako partidua (62-67) egin zuen min, partidua errematatzen asmatu ez zutelako.

Joan den astean Santanderren galdu izana *logikoagoa* izan zen. EBAn kategoriaz igotzeko diseinatutako taldea da Kantabria Estela, eta horretarako aurrekontua dute. Kantxan maila oneko jokalariek izanda ere -ACBko jokalaria ohiak-,

lehenengo bi laurdenetan zuri-moreak maila onean izan ziren. Baina Riley Stockton moduko jokalariek min handia egiten dute -hiruko marratik oso fin ibili zen estatubatuarra: 8/12, eta 35 puntu guztira-.

**Valladolid bosgarren postuan** Bihar (18:30), bosgarren dagoen Valladoliden bisita izango dute. Beste kontrario gogor bat; Paul Isasa min hartuta dago, eta ezin da aurreratu Zeziaga jokatzeko moduan egongo ote den.

## Ford Mugarri Corazonistasen kantxara bihar

Joan den astean Txikipolit taldearen kontra Iturripen galdu izana (27-30) ez zegoen pronostikoen artean, eta horrek erakusten du aurten iaz baino parekotasun handiagoa dagoela Euskadiko Txapelketan -lider dagoen Oñatiko taldeak ere gorriak ikusi zituen sailkapenaren atzealdean dagoen Escolapiosen kontra (25-23)-.

Bihar, berriz (18:30, Corazonistas Ikastetxean), Ford Mugarri Arrasatek sailkapenean ondoan duen talde baten kantxara -Gasteizera- egingo du bidaia. mondagoetarrak laugarren daude (11 puntu), eta Corazonistas bosgarren (10).



AITOR ALCAIDE

## Oier Etxebeste bigarren mailara

Zapatuen bukatu zuten Gipuzkoako Hirugarren Mailako Xake Txapelketa, eta Arrasate/Arlutz taldeko hiru kidek hartu dute parte: Oier eta Asier Etxebeste arrasatearrek -aita- semeak- eta Harri Lasa aretxabaletarrak. Oier bigarren sailkatu zen eta Bigarren Mailara igo da. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Fernando Markina (federazioko lehendakaria), Markel Kerexeta -txapelduna-, Oier Etxebeste eta Iñaki Odriozola.

# Herriko 22 margolariren lanak Kulturaten ikusgai

Arrasate Margo Taldeak urtean zehar egindako lanen erakusketa irekiko du. Inaugurazio ekitaldia gaur egingo da, 19:00etan hasita. Abenduaren 17ra arte, erakusketa astelehenetik zapatara egongo da irekia, 17:30etik 20:30era bitartean

## Ibon Carmona ARRASATE

Kulturateko klaustroak Arrasate Margo Taldearen pintura erakusketa jasoko du. Gaur 19:00etan inaugurazio ekitaldi xumea egingo da, eta, hortik aurrera, abenduaren 21era arte, astelehenetik zapatara bisitatu ahal izango da erakusketa.

## 22 margolari

Guztira, belaunaldi askotariko 22 margolariren lanak egongo dira ikusgai. Margo Taldeko lehendakari Tano Ribasen esanetan, lanak ikusgai izango dituzten margolari guztiak elkarrearen parte dira. Hala ere, badago salbuespen bat; izan ere, Xeli Mendizabal margolari esperientziadunak iaz utzi zion elkarteko kide izateari. "Pertsona hori Margo Taldea sortu zenetik egon da elkartean, eta orain, Margo Taldearen ohorezko kide da", adierazi du.

## Teknika eta estilo asko

Erakusketarako, margolariek 4-5 lan inguruko hautaketa egin dute, teknika eta estilo ezberdinak oinarri hartuta. Ribasek azaldu du bakoitzak panel antzeko bat izango duela bere lanak

bertan erakusgai jartzeko; hortaz, kopurua margolanek daukaten tamainaren arabera izango da.

Margolanen estiloak dagokienez, askotarikoak izango dira; horien artean, natura hilak, erretratuak eta errealismoa lantzen dituzten lanak daude. Teknika aldetik, berriz, arkatzak, akuarelak, olio-pinturak eta margo akrilikoak erabili dira. Honen harira, Ribasek esan du margolari bakoitzak "bere ukitu pertsonala" uzten duela pituretan.

## Gaur inaugurazioa

Gaurko inaugurazioan, Arrasate Margo Taldeko kideek erakusketaren aurkezpen txiki bat egingo dute, ikusiko diren lanen gaineko gaineko zergatiak eta nondik norakoak azalduta. Gerturatzaren herritarrentzat luntxa egongo da. "Normalean, horrelako erakusketa bat urtean behin antolatzen da. Hala ere, urte batzuetan, ekintza ezberdinak direla-eta ezin izan dugu antolatu. Elkartetik, Kulturatera gerturatu eta herriko artisten ardura artistikoak ikuskatzera dei egiten diogu jendeari".



Kulturateko klaustroan eskegi diren artista ezberdinen lanak. I.C

## Harresitik Kulturatera

Iaz egindako 25. urteurreneko erakusketa salbuespen izanik, azken urteetan, espazio txikiagoa duen Harresi aretoan jarri izan dituzte lanak erakusgai. Horrenbestez, aurten Kulturateko klaustroan izanik, elkarteko kideek toki zabalagoa izango dute lanak erakusteko.



JOKIN BEREZIARTUA

## Zarzelaren lehen emanaldiak

Pasa den zapatuan, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak, Arrasate Musikaleko musikariek batera, *La del Soto del Parral* zarzuela estreinatu zuten. Umore eta drama, biak nahastu ziren Amaia antzokia ia goraino bete zuten emanaldian. Protagonisten esanetan, nahiko zarzuela zaila izan arren, ikusleek nota oso ona jarri zieten.



E



### CITROËN C3 BERRIA ZU BEZAIN BEREZIA

ConnectedCAM Citroën™ | 36 personalizazio aukera | Citroën Advanced Comfort®



**CITROËN-ek nahiago du TOTAL**

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isurpena (g/km): Citroën C3: 3,2-4,7 / 83-109


[citroen.es](http://citroen.es)

## TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

# "Praktikan matxismoa ez da oraindik gainditu"

LIERNI ALTUNA ARAMAIOKO ALKATEA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren baitan ekintza ugari antolatu dituzte Aramaion, kontzientzia sortzeko eta gizartearen arazo estrukturala dela adierazteko

**Xabi Gorostidi** ARAMAIO

Aramaioko alkatea herriko eragileekin batera aritu da aurten ere azaroaren 25arekin lotutako ekintzak presatzen.

**Gaur, azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen da. Hobeto, ez balitzateke ezer ospatu beharko?**

Ez dakit ospakizun edo salaketa egun bat den, egia esan. Baina, tamalez, urte asko eta askotan salaketa egun hau egon beharko dela uste dut.

**Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren erronkaren aurrean Aramaio Udal Gobernuak zein neurri hartu ditu?**

Udal Gobernu honek eginda dauka berdintasun diagnostiko bat, eta baita berdintasun plan bat ere. Beraz, plana jarraitzen ari gara. Berriki, Gorbialdeko Kuadrillan berdintasun teknikari bat kontratatu dute udalerrri guztietarako, eta horrek ere zerbitzu bat emango digu. Hala, espero dugu honen laguntzarekin astindu handiagoa ematea planari. Azkenean, ditugun baliabideekin egiten dugu aurrera. **Gorbialdeko Kuadrillan ere badago kontzientzia gai honen inguruan. Horren adierazle dira begiraleentzako ikastaroak eta baita martxan jarritako emakumeen aurkako biolentziaren diagnostia?**

Bai; azkenean, bertako udal guztiek ikusten dugu gizartearen gaitz bat dela. Diru laguntza bati esker orain berdintasun teknikaria edukiko dugu, baina irailetik ari gara udalerriz udalerriz diagnosi bat egiten. Herri bakoitzean emakumeen aurkako biolentziaren errealitatea aztertuko du. Oraindik bukatu gabe dago, eta zain gaude bertatik ateratzen diren datuak aztertzeko.

**Azaroaren 25aren inguruko ekintzak lantalde berezi baten prestatu dituzue. Nortzuek osatzen duzue?**

Azken lau urteetan funtzionatu dugun lantalde berberarekin



Lierni Altuna, Aramaioko alkatea. x.g.

prestatu dugu aurten ere. Hura osatzen dugu Itur-zuri emakumeen elkarteak, Udalak eta Gazte Asanbladako partaide batzuek, gai hauetaz asko dakitenak.

**Zein helbururekin prestatu dituzte aurtengo kontzentrazioa, bakarriketa, hitzaldia eta tailerra?**

Kontzentrazioaren helburua salaketa bera da, kontzientzia hartzeko. Askotan, 10.000 gauzarekin ari gara aldi berean, eta hilketa baten albiste entzun arte ez dugu horri buruz hausnartzen. Gure ustez, indarkeria matxista ez da pertsona solte batek egiten duen erokeria, arazo estruktural bat da, eta zentzu horretan doaz bakarriketa, hitzaldia eta tailerra. Horretaz gain, Emakunderen eskuorriak banatu ditugu taberna eta komertzioetan, indarkeria kasuak antzeman eta neurriak hartzeko, eta pin batzuk banatuko ditugu gaitz honen aurkako jarrera ikusgai jartzeko.

**Gazteengan kontzientzia handiagotzen duzue?**

Berez, Emakunderen azken ikerketak hartuz gero, datuek ez dute hori islatzen, eta nahiko egoera beldurgarria da. Biolent-

## Indarkeria matxistari ez!

**Azaroak 25**

• **19:00etan**

Kontzentrazioa Herriko Plazan

• **20:00etan** *Sexijentziak askatuz* bakarriketa osoko bilkura aretoan.

**Abenduak 1**

• **18:00etan** Oihana Etxebarrietaren hitzaldia Sastiñan.

**Abenduak 2**

• **17:00etan** *Gure gunie* tailerra Sastiñan.

tzia eta errespetu falta asko daude oraindik. Teorian, gizarte mailan denok aurka egotea lortu da. Baina praktikotasunean galdu egiten garela uste dut. Dena eginda dagoela dirudien arren, ez da helburua guztiz lortu. Hilketa kasuak eta matxismoa oraindik hor daude.

## Oiligor elkartearen txapelketa

Pasa den zapatarako Oiligor Ehiza eta Arrantza Elkarteak ehiza txapelketa antolatu zuen Aramaion.

28 lagunek hartu zuten parte eta guztira bederatzi oilagor harrapatu zituzten. Irudian ageri den Ricardo Trojaola izan zen irabazlea, hark bota baitzituen bederatzi oilagorretatik hiru. Zorionak!



OILOGOR EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA

## Autobus zerbitzuan ordutegi aldaketa izango da

Arabako Foru Aldundiak Aramaio Gasteiz eta Arrasaterekin lotzen duen autobusaren ordutegiak aldatu zituen. Aramaioarrrek azaldutako kexa guztiekin Udalak azterketa bat egin eta errepikatzen zirenak Arabako Aldundira bideratu zituen. Udalaren eta Goienaren webgunean dauden ordutegi berriak azaroaren 28tik aurrera hasiko dira.

## Udalak bi peoi kontratatuko ditu mantentze-lanetarako

Hiru hilabeterako lan-kontratua egingo diete, eta honako egin-kizun hauek egin beharko dituzte: espazio publikoen eta espazio berdeen mantenu eta egokitzapena, horretarako, erakuntza, lorezaintza eta antzeko lanak eginda.

Izen ematea azaroaren 18tik 28ra arte (biak barne) egin daiteke, Lanbiden bertan, edo [www.lanbide.eus](http://www.lanbide.eus) webgunean 162016010845 erreferentzia zenbakia erabilita. Udalak mezu hau helarazi du: "Interesa duzuenok berri zuen curriculum Lanbiden eta eman izena peoi kategorian, edo adi egon lan eskaintza honi aipatutako datetan izena emateko".

## Ur biltegi berriko lanak laster bukatuko dituzte

Ibarrako ur biltegi berria egiteko lanak bide onetik doaz, eta gutxi barru amaituko dituzte. Biltegi berriko lanek hainbat ur mozketaren eragin dituzte azken hilabeteetan, baina dagoeneko martxan da ur hornikuntza.

Zalgoko ponpaketa kentzea izango da azken urratsa, eta, behin hau eginda, amaituta egongo dira biltegi berriko lanak.

## Manex Agirre eta Xabi Igoa, Eguneko Zentroan bertsoan

Gaur, egubakoitza, 16:00etan, Aramaio Udal Manex Agirre eta Xabi Igoa bertsoarietako saioa egingo dute herriko Eguneko Zentroan. Ordu bete iraungo du eta zentroan dauden adindunak protagonista izango dira. Saioa hasi aurretik bertsoarietako solaldia egingo dute zentroko kideekin, gero euren kontakizunen inguruan abesteko.

Saioa Aramaio Udal antolatu du, *Adin-Adin* programaren baitan. Bertsoarietak pertsona adindunengan sor ditzakeen onurak ikusita sortutako egitasmoa da eta zentro hauetan dauden pertsonen adimena eta gogo aldatzea hobetzea du helburu.



Euskalkiak eta euskara bizirik mantentzeko lan egin behar dela azpimarratu zuen Uribarrenek; argazkian hitzaldian. X. GOROSTIDI

# Euskararen etorkizuneko erronkez jabetzeko saioa

Patxi Uribarren idazle eta euskaltzain aramaiarra jaioterrira itzuli zen Euskararen Egunaren baitako hitzaldia eskaintzeko. Gaur egun hizkuntzak dituen hainbat arrisku mota aipatu zituen, eta euskara salbatuta ez dagoela ohartarazi zuen

**Xabi Gorostidi** ARAMAIO

Euskararen Egunaren inguruko bigarren hitzaldia egin zuten martitzenean osoko bilkura aretoan. Aste honetan gonbidatu berezi baten eskutik etorri da hitzaldia; izan ere, Aramaioko seme kuttun Patxi Uribarren izan zen hitza hartu zuena. Idazle eta euskaltzaina Markinako karmeldarren etxea utzi eta sorterrira itzuli zen *Euskara lehen, orain eta etorkizunean* izeneko mintzaldia eskaintzera.

**Euskara arriskuan**

"Kontziente izan behar dugu, euskaldunok, euskara ez dagoela salbatuta". Mezu hori zabaldutako Uribarrenek euskarak gaur egun erronka handiak dituela adierazteko.

Hainbat faktore aipatu zituen euskarak dituen arriskuak azaltzeko. Lehenik eta behin, hizkuntzaren eremu geografikoa gero eta zabalagoa dela aipatu zuen. Telebistaren, Interneten eta telefono mugikorren erabi-

lerarekin mundu guztiko eraginak jasotzen ditu hizkuntzak eta hori hizkuntza gutxituentzat arriskutsua izan daiteke. "Horren eraginez, besteen eremuan gero eta sartuago gaude. Beraz, ez baditugu espazioak topatzen gure hitzak erabiltzeko edo gure hartu-emanak euskaraz egiteko, hizkuntzaren eremua arriskuan egon daiteke".

Euskal hitzak gaztelarazkoekin ordezkatzearren arriskua ere aipatu zuen. Badira gaztelarazko hitzak denboraren eta erabileraren poderioz euskaldundu egin direnak. Baina *entenditu hitza aditu* edo *ulertu* hitzen ordezkari erabiltzea okerra dela nabarmendu zuen. Era berean, euskaratik gaztelarara

**"GAUR EGUN HIZTEGIAK EGITEA EZ DA ERRENTAGARRIA, ETA NIK AFIZIO LEGEZ HARTZEN DUT"**

salto egiteko ohitura aipatu zuen. "Autobusean noanean sarri ikusten dut joera hori; zailtasun apur bat duten espreiotarako gaztelarara salto egitea. Horrela, euskaraz mintzatzeko erreflexuak galtzen ditugu. Hizkuntza erreflexu kontu bat da, hitz egin behar da, ohitura da".

Azkenik, euskalkiak erabiltzearen garrantzia aipatu zuen. *Jare egin* espresioa erabili zuen euskalkien gainbeheraren adibide gisa. Aramaiora etorrira, auzotarrak izatetik kaletarrak izatera pasatzea aipatu zuen euskalkiak ahultzeko arrazoietako bat bezala.

**Hiztegi gintza afizio**

Uribarren aitandaria izan zen euskal hiztegi gintza. 1982an hasi zen jardun horretan, eta gaur egun ere horretan dihardu. "Jubilatzerakoan garrantzitsua da gustuko jarduerak edukitzea, eta, nire kasuan, egunero bost ordu eskaintzen dizkio".

## Kimetz abesbatzaren emanaldia zapatuan Kultura Etxean

Aramaioko Udalak antolatuta, Algortako Kimetz abesbatzak kantaldia eskainiko du. Zapatuan izango da, Kultura Etxean, 18:30ean.

San Nikolas ikastetxean du jatorria abesbatzak. Ikastetxearen 50. urteurrena ospatzeko elkartu ziren berriz 2013. urtean, eta ordutik hona abesten jarraitzen dute.

## Elai abesbatzaren emanaldi solidarioa Arrasaten

Elai abesbatzak kantaldia egingo du bihar goizean Arrasateko parrokiaren, 12:30ean. Fair Saturday mugimendu barruko 340 ekitaldietako bat izango da.

Emanaldi hauetan lortzen den dirua hainbat GKE diruz laguntzera bideratuko da, eta, kasu honetan, kontzertuan batutakoa Arrasateko Caritas erakundearentzat izango da.

## Martxan da gaztetxoentzako Kultur gura lehiaketa

Zortzi urtetik aurrerako gazteei zuzenduta dago, eta Gorbeialdeko Kuadrillari buruzko zazpi galdera erantzun behar dira abenduaren 18a baino lehen.

Galdera guztiak ongi erantzuten dituztenen artean, 100 euroko lau diru-sari zozketatuko dira: bi, kirol materiala erosteko; eta beste bi, liburu denda baten erabiltzeko.

## Zarzuola ikusteko aukera Alaiak elkartearen eskutik

Pasa den zapatuan estreinatutako *La del Soto del Parral* zarzuela Arrasateko Amaia antzokian.

Asteburu honetan ere ikusgai izango da, gaur eta bihar, eta Alaiak elkartearen irteera antolatuta dute zapaturako. Elkarreko bazkide direnek 20 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 22.



NIRE USTEZ

RAFAEL BENGOA

## Gaurko nire itxaropena

Emakumeen aurkako biolentziari buruz iritzia emateko, egun hau erabiltzea topikoa iruditu daiteke. Baina nire ustez, denoi, eta bereziki, guri, gizonei, dagokigu egoera hau salatzea urteko egun guzti-guztietan. Egundak hainbat helburu betetzeko: alde batetik, emakumeen aurkako edozein biolentzia mota bukatzeko. Bestetik, galdera hauek egiteko: zergatik erabiltzen da indarkeria beste pertsona baten aurka? Zergatik, zoritxarrez, izaten da jokaera hau hain sarritan? Heziketa arazoa da? Gaizki ulertutako nagusitasuna aldarrikatzea? Garbi dago ezberdintasunaren ondorioa dela, emakumeen eskubideekiko errespetu ezaren ondorioa. Hori bukatzeko, emakumeen eskubideak errespetatu beharko genituzke, berdintasunezko eta errespetuzko balioetan hezi, dauzkagun desberdintasunak baloratuz eta aintzat hartuz.

Aurrera jotzeko, biolentzia eta diskriminazio egoera guztiak salatu beharko genituzke. Lan handia dugu egiteko, baina hau da egun honetarako nire itxaropena: helduko da eguna, non emakumeen aurkako biolentzia ez den albiste izango? Nik badut itxaropen hau...

## Trikiti Eskolaren aurtengo zozketaren irabazleak

San Martin eguneko trikiti kalejira bukatu ostean egin zuten Trikiti Eskolakoek urteroko zozketa.

Lehenengo saria 359 zenbakiak lortu du, eta nekazaritza etxe baten asteburua jasoko du. Bigarren saria, urdaiazpikoa, 897 zenbakiarentzat izan da; eta hirugarren saria, gazta, 769 zenbakiarentzat.



Iaz egindako elkarretaratzea. M.A.

# Indarkeria matxistari ezetz esango diote gaur

Elkarretaratzea deitu du Udalak 'Emakumeen aurkako indarkeriarik ez' leloarekin; 19:00etan izango da, Herriko Plazan, eta ondoren, bakarrizketa saioa eskainiko dute, Arkupen, Maria la Vikinga eta Oscar Tramoyeres umoregileek

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna da gaur, azaroak 25, eta Aretxabaletan ere hainbat eragilek egingo dute bat horrekin. Udalak elkarretaratzea deitu du *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* leloarekin, 19:00etan, Herriko Plazan, eta herritar guztiak gonbidatu ditu

hara. Agerraldi horretan Eudelek proposatutako adierazpena irakurriko dute. Ondoren, bakarrizketa saioa dago Arkupen, 20:00etan; Maria la Vikinga eta Oscar Tramoyeres umoregileek jardungo dute emakumeen aurkako indarkeria gai hartuta.

Atxabaltako Feministak Elkartia-eko kideak, berriz, 18:00 in-

gururako plazan izango dira, eta argazkiak aterako dituzte puntu morea aldean hartuta.

**Berdintasuna eztabaidako gai**

Azaroaren 25eko kontuak astelehenean egindako osoko bilkuran eztabaidatu zituen udalbatzak; izan ere, horren gaineko mozio bi aurkeztu zituzten.

## Emakumok indarkeria barik, libre!

**ATXABALTAKO FEMINISTAK ELKARTIA**

Gaur, eguakoitza, azaroak 25, kalera urteteko eta emakumionganako indarkeriarik onarketan ez dogula ozen esateko eguna da.

Igazko zapata odoluek aurten be ez daue etenik eduki. Feminizidio eta jaixetan gertatutako erasuak die zirrara gehixen eragiten doskuenak, baiña honeik izebergaren puntia besterik ez die. Azpizen dauen izotz puska haundi hori da ikustarazi eta landu behar dana; indarkeria sexistaren inguruan sentsibilizatu eta kontzientziatzeko. Danok gara arduradun eta erantzule prebentziñuen.

Samiñez eta amorrus lerro honeik aprobetxatu gura dittugu Udalak berdintasun politiken aurrien erakusten dauen pasibidadia salaketako. Bide batez, Udalari eskatu gure dotzagu lehentasunezko gaitzat hartu deixela, behinguarren, parekidetasuna.

Guk, gure aldetik, lanian jarraituko dogu tratu onaren alde, emakumok indarkeria barik, libre, bizi gaittezen bermatzeko.

EH Bilduk konpromisok hartzeko eskatu zion Udal Gobernuari mozio bidez: "Konpromiso zehatzak eta baliabideak behar dira indarkeria matxistari aurre egiteko. Horregatik eskatu dugu aurrekontuetan behar besteko partida sartzea eta Berdintasun Saila martxan jartzea", zioen Ion Albizu zinegotziak. Udal Gobernuak, baina, ezezkua eman zion mozioari, eta datorren urtean ez dela Berdintasun Sailik izango ezta teknikaririk ere iragarri zuten: "Berdintasunak transbertsala izan behar duela uste dugu, eta udaleko sail guztietan barneratuta egon beharra duela.

Ondorioz, 2017ko aurrekontuan partida bat zehaztuko dugu kanpoko enpresa bat hartzeko aholkularitza eman dezan", argitu zuen Ongizate zinegotziak, Karmele Uribarrik. EAJk aurkeztu zuen bigarren mozioa 2011ko Europako Hitzarmenarekin bat eginenez; hau da, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko hitzarmenarekin; aho batez onartu zuten hori.

Alkateak gaineratu gura izan du "penagarria" dela halako eguna "beste interes batzuetarako" erabiltzea: "Beste helburu batzuetarako aprobetxatzen dabilta".

## Pobrezia energetikoaren gaineko mozioa ez dute onartu

Irabazik aurkeztu zuen asteleheneko osoko bilkuran, baina Udal Gobernuak "oportunista" zela erantzun zion

**M.A.** ARETXABALETA

Pobrezia energetikoa saihesteko mozioa aurkeztu zuen Irabaziko Luis Mariano Gomez zinegotziak asteleheneko osoko bilkuran: "Negua badator eta horren aurrean neurriak hartzea komeni da", zioen, eta gaineratu zuen EAEn ere familia asko direla horren beharra dutenak: "Krisi sasoiaren etxea berotu ezinik dabilzan kasuek gora egin dute %168". Ondorioz, neurriak hartzeko eskaera egin gura izan zuen, estatuko gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldun-

diari luzatzeko: "Udaletako Gizarte Zerbitzuetara ezin da gurtia bideratu, eta arautu beharra dago multinazionalak ez daitezen aberastu". Mozio hori, baina, EH Bilduko zinegotziek bakarrik babestu zuten.

Unai Elkoro alkatea haserretu egin zitzaion "mozio oportunistak" zela aipatuta: "Espainiako errealitateak ez du zerikusirik hemengoarekin; hortaz, mozioak bertara egokitu behar dira". Gainera, Jaurlaritza badabilela horren gaineko lege bat lantzen adierazi zion.

## Gabon apaingarriak egiteko tailerra abenduaren 3an

Birziklatutako materialarekin Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra antolatu du Udalak. Abenduaren 3an izango da, zapatua, 10:00etatik 13:00etara bitartean, Arkupen. 8 urtetik gorako neska-mutikoei bideratua dago eta tailerrera doazenei bererabilitako ur botila gardenak eroateko eskatu diete.

Izena emateko epea gaur bukatuko da; horretarako, Arkupe kultur etxeko harrerara jo behar da, edo, bestela, mezu bat bidali honako helbide honetara: [anabel@aretxabaleta.eus](mailto:anabel@aretxabaleta.eus).

Tailerrean egingo dituzten apaingarriekin herriko leku esanguratsuak apainduko dituzte; Herriko Plaza, esaterako.

**AZAROAK 25**  
GENERO INDARKERIAREN  
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

**Egitaraua**  
**19:00**  
Herriko Plazan agerraldia  
**20:00**  
Bakarrizketa saioa Arkupe kultur etxean

Aretxabaleako Udala



# Hazten jarraitzeko bidea zabaldu diote Copreciri

Udalbatzak hitzarmena sinatzea onartu du herriko kooperatiba handienarekin; horren arabera, Basabe baserri azpiko lursaila emango dio aparkalekuak egin ditzan eta inguru horretako planeamendua aldatu beharko dute urtebeteren bueltan

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Copreci kooperatibak hazten jarraitzeko asmoa dauka. Hazte prozesu hori noiz eta nola gauzatuko duen zehaztu gabe du oraindik, baina bidelagun izango du Udala. Hain zuzen, astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak hitzarmena sinatzea Coprecirekin –gaia eztabaidatu bitartean bi zinegotzik alde egin zuten aretotik, kooperatibako bazkide izateagatik–. Unai Elkoro alkateak zera adierazi zuen: "Herrian dagoen enpresarik handiena da eta ondo joatea pozgarria guztiontzat. Horregatik, ahal denean, laguntzeko gertu dago Udala". EH Bilduko kideek ere "hitzarmen ona" zela adierazi zuten, eta babes osoa agertu zioten.

## 98 aparkaleku berri

2015ean handitu zuen eraikina Coprecik. Orduan aparkalekuek dako solairu bat egin zuen, eta orain, solairu hori erabili gura du beste behar batzuk asetzeko. "Legeak dio 100 metro karratuko aparkalekuko plaza bat behar dela. Eta inguru horretan leku handirik ez dagoenez, Udalak utziko dio lantegiaren inguruan duen lursaila", argitu du Elkoro. Basabe baserriaren azpian dagoen lursaila da, hain zuzen, Udalarena, eta hori emango dio: "Horren trukean beste lursailen bat eman beharko digu Coprecik, permutaren bat edo beste egingo dugu". Aparkalekuak egiteko hartuko duten sail horretan hainbat ortu daude orain; Kurtzebarri eskolako ikasleena, esaterako: "Horren ordez, Santutxu inguruan, beste bat egiteko konpromisoa hartu dute lantegiko ordezkariak".

Alkateak jakinarazi du parking berriak 98 aparkaleku izango lituzkeela eta publikoa izango litzatekeela; hau da, herritarrei irekia, "beti beteta egoteagatik



Copreci lantegiaren eraikina. MIRARI ALTUBE

Coprecirentzat eragozpenik sortzen ez bada, behintzat".

## Planeamendu aldaketa

Aurreikusitakoa betez gero, eraikigarria den metro kopurua gaindituko du handitutako erai-

kinak; ondorioz, hainbat aldaketa egin beharko dituzte planeamenduan ere: "Ingurune horretako plana aldatu egin beharko da. Proiektua Coprecik berak egingo du, eta ondoren, Udalak onartu".



## Inbertsio garrantzitsuak

**LOREA BARRUTIA** COPRECI-KO PRESIDENTEA

Copreci etxetresna elektrikoentzako osagaien sektorean dago. Sektore honetan kontzentrazio prozesu bat gertatzen ari da. Tamaina eta inplantazio internazionala izatea konpetentziarako faktore garrantzitsuak izaten ari dira. Eszenario honetan, abantaila konpetitiboak lortzeko gure teknologiaren eta internazionalizazioaren aldeko apustua egingo ari gara.

Ondorioz, Aretxabaleako plantan prozesu teknologiko guztiak zentralizatzen ari gara, inbertsio garrantzitsuekin eta oso prozesu automatizatuekin. Aretxabaleatik kontinente desberdinetan dauden kanpoko plantetara bidaltzeko osagaiak fabrikatzen ditugu eta kanpoko plantetan pertsonalizatu eta bezeroei entregatzen zaie. Helburu honekin, azken urteetan 15 milioi euro/urteko baino gehiagoko inbertsioak egingen ari gara Aretxabaleako plantan.

Estrategia honekin, urrutiko herrialdeetan izaten ari diren aukera berrietara heltzen ari gara.

Hau guztia lortzeko, datozten urteetarako prozesu industrial berriak behar dira, eta horiek instalatzeko lekua ere bai. Hori da gaur egun planifikatzen ari garena Udalarekin. Hazkunde hau nola eta noiz egingo den oraindik erabaki gabe dagoen gaia da.

## Baso jabeek alegazioa aurkeztuko diote Udalak onartutako tasari

Bilera egin zuten egubakoitzean, alkatea bertan zela, eta bidea erabiltzeagatik fidantza eskatzea proposatuko dute

**M.A. ARETXABALETA**

Herri bideak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa izan zuten eztabaidagai joan den egubakoitzean herriko auzo alkateek eta basoen jabeek. 40 lagunetik gora elkartu ziren udaletzeko ganbaran, eta Udalaren izenean Unai Elkoro alkatea izan zen.

Jabeen ordezkariak azaldu zion alkateari 2012tik datorrela kontua, eta orduan, Udalak erabaki zuela Arrasatekoarekin berdintzea: "Arrasateko tasan, baina, %75eko hobaria aplikatzen diete bideak egiten finan-

tzatu dutenei. Eta Aretxabaletan ez da halakorik egingen".

Alkateak adierazi zuen tasaren helburua ez dela dirua biltzea, bideak garbi mantentzea baizik. Horregatik, horren ordez fidantza ezartzea proposatu zuten: "Fidantza bat jarri bideak aurretik eta bideak txukun utziz gero itzuli egingo litzateke".

Hori horrela, auzo alkateek eta interesatuek osatutako komisio bat sortzekotan geratu ziren, Udalak urrian onartutako tasari zein alegazio aurkeztu zehazteko.



GURABARRI ELKARTEA

## Zientzia Astea Kurtzebarri

Arrakastatsua izan da aurten ere Kurtzebarri eskolako kideek eta Gurabarri guraso elkarteak antolatutako Zientzia Astea. Eskolan esperimentuak egin dituzte, eta eskolaz kanpo gurasoek bideratutako tailerrak. Astea bukatzeko, Donostiako Eureka Zientzia Museoa bisitatu dute: "Oso gustura ibili gara eskola komunitatea osatzen dugun kide guztiok elkarlanean".

## Irteera egingo dute abenduaren 1ean 'Atxabalta Mugi'-rekin

Bigarren irteera egingo dute *Atxabalta Mugi* egitasmoko kideek deituta. Oinez izango da hau ere, abenduaren 1ean, eguean, 10:00etan irtenda Basotxo erretiratuen egoitzatik. Elkartutako araberak intentsitate handiko eta txikiko ibilaldiak proposatuko dituzte begiraleek. Eta bukatutakoan, salda hartuko dute Basotxon.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# "Bidaiatzean beti daramat kamera alboan"

**JOSEBA EGIBAR ARGAZKILARIA**

Martitzenean *El desierto del Terneré* dokumentala eskaini zuen Arkupeko Zاراia aretoan. Hilaren 29an, 19:30etan hasita, formatu bereko *Bhutan* aurkeztuko du.

**Ibon Carmona ARETXABALETAK**

Joseba Egibar argazkilaria bere bi zaletasunak bateratzen ditu; izan ere, bost kontinentetan zehar egindako bidaietan, argazki kamera beti eramanean du alboan. Argazki horiek oinarri harturik, martitzenean *El desierto del Terneré* dokumentala eskaini zuen Arkupe kultur etxeko Zاراia aretoan, eta hilaren 29an gauza bera egingo du *Bhutan* dokumentalarekin.

**Noiztik daukazu argazkiak ateratzeko zaletasuna?**


Duela berrogei bat urte hasi nintzen argazkiak ateratzen. Hasiera batean, nire mendi zaletasunarekin nahastu zen; izan ere irteera ezberdinetara beti eramaten nuen argazki kamera. Aurrerago, mendi irteeretatik harago, antolatzen nituen bidaietan ere argazkiak ateratzen hasi nintzen. Voigtlander marka alemaniarreko kamera bat izan zen eduki nuen lehena. Geroztik, nire kabuz joan naiz teknika ezberdinak ikasten, inongo ikastarorik behar izan gabe. Arlo horretan nahiko autodidakta izan naizela esan daiteke.

**Zer gustatzen zaizu jasotzea argazkietan?**

Denetarik argazkiak atera izan ditut, baina, bi argazki mota aipatzekotan, herrialde ezberdinetako jendearen erretratu eta paisaiak esango nituzke. Horretaz aparte, historiarekiko nire zaletasuna kontuan izanik, Euskal Herriko egoera politikoarekin erlazonaturiko ekitaldi jendetsuetan ere argazkiak atera izan ditut.

**Bidaiatzea, beraz, zure beste zaletasunetako bat da.**

Bai, hala da. Bidaiatzeari esker munduko bost kontinenteetan egon naiz, kamera uneoro alboan eramanda. Esan daiteke herrialde ezberdinak kameraren bisore optikotik begiratuta bisitatu ditudala. Orokorrean, ez nintzateke toki edo herrialde konkre-



Joseba Egibar, Arkupe, martitzeneko emanaldia hasi aurretik. MIRARI ALTUBE

**"KAMERA ERABILTZEKO MODU EZBERDINAK NIRE KABUZ IKASI DITUT"**

tu batekin geratuko, bisitatutako txoko bakoitzak bere edertasun propioa dauka.

**Nola agertu zen dokumental horiek egiteko aukera?**

Behin, bidaietan ateratako argazkiak begiratzen ari nintzela otu zitzaidan ideia. Izan ere, argazki horietako askok zeukaten edertasuna ikusita, jendea irakutsi beharrekoak zirela iruditu zitzaidan. Hain zuzen, irudiak bata bestearen osteko segida batean imajinatzen nituen, istorio bat kontatuko balute bezala. Ondoren, istorio hori osatuagoa egoteko, irudiak soinu eta hitzekin lotuko nituela erabaki nuen. Horrela, kalitatezko proiektu bat sortu nahian, Oreretako lagun batek edizio lanetan lagundu zidan, eta Gasteizko beste lagun batek soinuaren muntaietan. Esatari lanak, berriz, Cadena Ser irratiaren ka-

zetari den Eva Domaikak eta irrati esatari ohi den Mari Carmen Odriozolak egin zituzten; bata gaztelaraz eta besteak euskaraz.

**Zer kontatzen da dokumental horietan?**

*El desierto del Terneré* ikus-entzunezkoa Saharako desertuan dagoen Terene eskualdean kokatzen da. Argazkietan, basamortuan egindako 2.500 kilometrotan zehar ikusitako paisaia eta pertsona ezberdinak jasotzen dira. 90eko hamarkadan hiru alditan egin nuen bidai hori. Jendeak basamortuan ezer gutxi dagoela pentsatzen du, baina, argazkilaritzaren ikuspegitik, parajeak oso aberasgarriak dira. *Bhutan* izeneko dokumentalean, berriz, bertara egindako bidai jasotzen da, beste behin, argazki bitartez. Bidai espirituala izan zela esan daiteke, bertako erlijio nagusia den budismoa oinarri bezala harturik.

**Nola agertu zen dokumental horiek egiteko aukera?**

Horrelako proiektuak egiteko aukera agertzen zaidanean, ez dut epe luzeko prestaketarik behar. Hala ere, hasiera batean, ez daukat proiekturik buruan.



XABIER URZELAI

## Santa Zezilia eguneko ekitaldiak

Leizarraga musika eskolako kideek martitzenean ospatu zuten musikarien zaindaria omentzeko eguna. Hainbat instrumentutako ikasleek, taldeka, abesti ezberdinak eskaini zituzten. Hizkuntza musikalean eta tailerretan dabilzan ikasleek, ostera, hainbat kanta abestu zituzten. Eguraldi kaskarra zela eta, ikasleek plazako arkupeetan ospatu zuten eguna.

## Egun osoko egitaraua Euskararen Eguna ospatzeko

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna dela ospatzeko, Loramendi elkarteak Iristu gazte taldeak egun osoko egitaraua prestatu du.

Eguna 10:00etan hasiko dute herriko lagun-talde eta elkarten arteko *Gora euskara!* erronkarekin. Talde bakoitzak gutxienez hiru partaide izango ditu, eta bi ordu eta erdi izango dituzte

mendirara igo eta bertan argazki original bat ateratzeko. Argazki originalena lortzen duen taldeak bertako produktuz osatutako saski bat irabaziko du. Parte hartzeko, aurrez izena ematea komeni da honako helbide honetara idatzita: [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus).

Erronkaz gain, 13:00etan bertso saioa egingo da, 19:00etan batukada-poteoa eta 22:00etan herriko taldeen kontzertua. Ekitaldiak udaletxe zaharrean egingo dira.

## Jaiki elkarteak Ecstatic Dance saioa antolatu du biharko

Saioak Ibarra kiroldegian egingo dira, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Oskar Estanga DJak egingo ditu gidari lanak.

Oraingoz, hamar lagunek eman dute izena. Hortaz, izen emate epea ez da itxiko, eta larunbatean zuzenean bertan azaltzeko aukera ere egongo da. Prezioa hau da: 10 euro langileendako eta 7 euro langabeendako.



Jaiki elkartearen dantza saio bat. M.A.

# Diru laguntzen plan estrategikoan aldaketak

Axtroki Merkatarri Elkarteari eta Atxorrotx gobernuz kanpoko erakundeari diru laguntzak ematea onartu da osoko bilkuran. Horrez gain, hainbat adierazpen egin zituen Udalak, eta tratatutako gai guztiak aho batez onartuak izan ziren

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Azaroko osoko bilkura egin zen martitzenean Eskoriatzan, eta hainbat gai atera zituzten mahai gainera. Garrantzi handiena izan zuena diru laguntzei buruzko Plan Estrategikoaren aldaketa egitea izan zen.

Aurrekontuak tratatzerakoan, Axtroki Merkatarri Elkartea alde batera utzi zuten, PERCO programa gauzatu behar zelako. Uste baino kostu handiagoa izan du programak, baina honen ondoren, lehen urratsa, merkatarrien elkarte indartzea dela adierazi dute udalbatzan. Joserra Zubizarreta alkatearen esanetan: "Orduan, ez zegoen aplikatuta laguntza; beraz, nonbaitetik abiatzeko 2.000 euroko laguntza eman diegu. Honekin, merkatarri elkarte bera indartu, eta bertan erosteko kanpaina hasteko erabiliko dute..."

Honez gain, Atxorrotx gobernuz kanpoko elkarteak ez zuen laguntzarik eskatu Atxorrotx Egunean karpan egin zituzten gastuei aurre egiteko. Hala, orain aurkeztu dizkio Udalarri eta 700 euroko laguntza ematea erabaki da.

## Merkatarri elkarteari babesa

Honen aurrean, EH Bildu alderdiko Aitor Zubizarreta bozera maileak laguntza ematearen alde daudela adierazi zuen, "beharrezkoa" dela adierazita, baina aurrera begira, "modu hobean eta elkarlanean" egin beharko dituztela gauzak, epe luzera begira, batez ere Eskoriatzako giroa eta herriko merkatarrien egoera hobetzeko.

## Adierazpen instituzionalak

Bestalde, hiru adierazpen instituzional egin zituzten bilkurari amaiera emateko. Batetik, Saharako giza eskubideak bermatze aldera, ikerketa bat egin nahi izan da, eta ukatu egin zaie. Honekin bat egin du Uda-



Eskoriatzako Merkatarri elkarte bi taberna. I.B.

lak: "Beraien egoera adierazteko eta jakiteko... halako ikerketak beharrezkoak dira", azaldu du alkateak.

Bestetik, azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izanda, udalbatza osoak bat egin zuen indarkeria matxista egoerak jasaten dituztenei elkartasuna adierazita. Honen harira, Amuska Emakume Elkarteak deituta, gaur, 18:30ean, elkarretaratzea egingo da plazan egoera hori jasaten dutenekin bat egiteko. Udalak bat egin du elkarretara-

tze horrekin eta herritarrei dei egin die bertan parte hartzeko.

Azkenik, Euskararen Eguna ere ate-joka dator, eta erakunde adierazpena egin zuten. "Aurtengo leloa da *Gutariko bakoitzak zer egiten dugun Euskararekiko*. Gogoeta interesgarria da, besteei eskatu beharrian, norberarengandik hastea..."

Horren harira, Ixotu Euskara Taldeak funtzionatzeko eran aldaketa izango du. Eskoriatzako Txirikilla elkartearekin batera funtzionatuko du hemendik aurrera.

## Elizateetako beharrak aztertzen

Udal Gobernuako kideak herriko elizateetan egon dira auzotarrek dituzten beharrak, zailtasunak, kekak, iradokizunak... entzuten. Iaz, hainbat eskaera jaso zituzten eta egindako deskargua ematera eta eskaera berriak jasotzera bertaratu dira. Egindako ekintzak: Bolibar eta Apotzaga elizateetako ur deposituen konponketak eta telekontrolen instalazioa, hainbat bideren konponketa edota Zarimutzen emandako diru laguntza auzo-lokalaren egokipenerako izan dira.

Jasotako eskaeren artean burutzeko bidean daude hainbat baserrian jarriko diren farolak eta elizate guztietan jarriko diren su-kontrako mangera eta ur-harguneak, Apotzagan haur-jolasak berritzea eta ur-sareak konpontzeko diru laguntzak ematea.

## Txapa bat, emakumeei eskainitako hitz politen truke

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean harira hainbat ekintza izango dira Eskoriatzan

### I.B. ESKORIATZA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izanik, Eskoriatzako herritarrek emakumei hitz politikak esatera animatzeko ekintza egingo dute gaztelekuan. Zapatuan, 16:30ean hasita, hitz polit bat idaztera animatzen denak gaztelekuan egindako txapa bat jasoko du trukean.

Gaztelekuko ekintza honez gain, *Mujer, ¿cómo hemos llegado a esta situación?* hitzaldia egin zen eguaztenean, kultura

etxean. Arantza Miguelek eskainitako hitzaldian, emakumearen berdintasunik ezaren inguruan aritu zen.

Luis Ezeiza Herri Eskolan ere hainbat ekintza prestatu dituzte. Patioan elkartuko dira gaur, eta *Tratu Onen Aldeko Eguna* ospatuko dute. 14:30etan hasita, ikasleek egindako horma-irudia aurkeztuko dute. Ondoren, *Besarkatu* abestia kantatu eta dantzatuko dute eta amaitzeko, tratu onen inguruko azalpenak emango dituzte.

## 'Euskaldun berrien plaza' inauguratuko dute abenduaren 3an

*Euskaldun berrien plaza* inauguratuko dute abenduaren 3an, zapatuan, 13:15ean -Egokiena elkarte ondoko plazan-.

Udalak iaz osoko bilkura batean onartu zuen euskaldun berriei euskara ikasteko egindako ahaleginaren aitortza herriko txoko horri izen hori ematea. Ekitaldi instituzionala izango da, eta, plaka jartzeaz batera, Ixotu Euskara Taldekoak

margotzen hasi diren murala amaituta ikusteko aukera izango dute ekitaldira gerturatzen direnek. Ixotukoak pozik agertu dira egindako lanarekin, baina amaitu barik dute: "Hamar lagun inguru hasi ginen txantxangorriaren irudia marrazten, baina ez da samurra... Hala ere, detaileak falta dira oraindik egiteko, eta eguraldiak ere zeresan handia izango du. Asmoa da *Euskaldun berrien plaza* inauguratzean, murala amaitzea", adierazi du Xabi Uriartek, taldeko ordezkariak.

## Jose Mari Legarreta viatorista gogora ekarriko dute domekan

Eskoriatzako ekintza musikaletan parte hartu zuen eta parrokiako koruko zuzendaria izan zen

### I.B. ESKORIATZA

Azaroaren 13an hil zen, Basaurin, Jose Mari Legarreta, 79 urterekin. San Viatorren, Eskoriatzan, eliz nobiziotza hasi zuen 1954an, abuztuaren 15ean botoak eginda. Herrian bizi izan zen urteetan ekintza musikal askotan parte hartu zuen, eta Eskoriatzako parrokiako koruko zuzendaria ere izan zen, 2002an Perura joan aurretik.

Hala, domekan, Santa Zezilia dela-eta, Legarretaren omenezko meza izango da 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokiaren.



Legarreta. ESKORIATZAKO PARROKIA

# Musika banden topaketa ospatuko da zapatuan

Beheko Errota Musika Eskolak antolatuta, San Asentsioko (Errioxa), Orduñako eta Eskoriatzako bandek kontzertua eskainiko dute kiroldegian, 20:00etan. Banda bakoitzak bi pieza joko ditu, eta gero, elkarrekin beste hainbat pieza joko dituzte

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Santa Zezilia egunaren harira, Beheko Errota Musika Eskolak musika banden topaketa antolatu du Eskoriatzan. San Asentsioko (Errioxa) eta Orduñako bandak izango dira zapatuan gonbidatu, eta, Eskoriatzako bandarekin batera, kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar, 18:00etan hasita.

Kalejiraren ondoren, 20:00etan, kontzertua eskainiko dute hiru bandek Manuel Muñoz kiroldegian. Bertan, banda bakoitzak bi pieza joko ditu, eta banda guztiek elkarrekin hiru pieza joko dituzte.

Ekimen hau egitearen arrazoiak da uztaillean San Asentsioko bandaren gonbidapena jaso zutela Eskoriatzako bandako kideek bertara joateko, eta, han izan ostean, orain, trukean, errioxarrak eta Orduñakoak etorriko dira Eskoriatzara. San Asentsioko banda Jesus Urrutia Eskoriatzako musika eskolako ikasle ohiak gidatzen du, eta, Eskoriatzako bandako Angel Bañares zuzendariarekin hitz eginda, bandei indarra eta bultzada emateko antolatu dute topaketa. "Erlazio bikaina dugu bi banden artean, eta elkarri laguntzen saiatzen gara. Uztailkoa ez da lehen aldia izan bertan izan



laz, Eskoriatzako bandak Zaldibar antzokian eskainitako kontzertua. IMANOL SORIANO

## ELKARRI INDARRA ETA BULTZADA EMATEKO ANTOLATU DUTE MUSIKA BANDEN TOPAKETA

garena, beste behin ere izan ginen duela bi urte. Orain, Eskoriatzan elkartuko gara hiru bandak eta Orduñara ere joango gara aurrerago. Herrian giroa jarri nahi dugu, eta eguraldia lagun badugu, hobeto...", adie-

razi du Angel Bañaresek, Eskoriatzako bandako zuzendariak.

**Haize-instrumentu joleak falta** Eskoriatzako bandak 30 urte inguru daramatza herrira musika zabaltzen. Urtean zehar hainbat ekitaldi egiten dituzte, eta, urte horietan gorabehera asko izan arren, goranzko bidean doazela adierazi du Bañaresek. "Gaur egun, haize-instrumentu joleak ditugu faltan, baina banda sortu zenetik jarraitzen duten musikariak ere baditugu... pozik egoteko moduan gaude".

## 'Cabaret' musikala ikusteko irteera antolatu du Amuskak

Broadwayko *Cabaret* musikala izango da Bilbon abenduaren 17an, eta Amuska Emakume Elkarteak bertara joateko irteera antolatu du. Izena emateko astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara, Bolintxo okindegian egin daiteke azaroaren 29a baino lehen. Informazio gehiago, 622 761 831 telefono zenbakira deituta.

## Korrikari eskainia

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Eskoriatzan egindako *Tipi-tapa, Korrika* ikuskizunak jende asko batu zuen kiroldegian aurreko zapatuan: 1.200 pertsona, hain zuzen ere.

Datorren urtean izango den Korrikaren 20. edizioa dela eta, pailazo konpainiak ikuskizun berriaren ardatz bihurtu du AEKren ekimena.



IMANOL SORIANO

# LEINTZ GATZAGA



Ume bat bere amarekin, irribartsu. GOIENA

## 'Cuidar antes de educar' doako hitzaldia gaur, kultura etxean

Gurasoei, aitona-amonei, hezitzaileei zein nork bere burua hobetzeko irrika duenari zuzenduta egongo da

**Eneko Azurmendi** LEINTZ GATZAGA Gaur, egubakoitza, *Cuidar antes de educar* hitzaldia eskainiko du Cristobal Gutierrez hezitzaileak, 19:00etan kultura etxean.

Gutierrezek 30 urte daramatza helduen formazioan lanean eta 20 urte haurren eta familien zaintzari loturiko jardueretan. 1995. urtean Kataluniako lehen bi eskola libreak -La Casita eta El Roure- sortu eta zuzendu zituen, emaztea zenarekin. Gaur egun, haurrak eta familiak zaintzen dihardu, hitzaldiak eta ikastaroak emanda.

"Helburua haur bat zaintzea denean, garrantzitsua ez da hori egiteko dauden informazio eta teknikak jakitea, baizik eta zainzailea norbere arimarekin sintonian egotea. Soilik horrela sintonizatu dezake haurraren arimarekin eta ordutik aurrera hasten da benetako komunikazioa, sorkuntzaz eta poztasunez

betetako mundu bat sortuz", dio Gutierrezek.

### Bi hilean behin, ikastaroa

Bihar -zapatua- hasita, aurrerantzean bi hilean behin Gutierrezekin haurren zaintzari lotutako ikastaro bat egitea da asmoa.

Lehen saioa bihar izango da, egun osoan zehar, 10:30ean hasi eta 19:30ak arte. Etzi, domekan, izango da bigarren saioa, 10:00etatik 14:00etara.

Ikastaro hauetan, egunerokotasunean egiazkotzat jotzen diren kontzeptuak aztertuko dira: beldurra, borondatea, aurreiritziak, gorrotoa, eta abar. Era berean, gorputzaren ezagutza sakona eta haren hizkuntzaren ulermena landuko dira.

Ikastaro hauetan parte hartu ahal izateko, izena eman behar da [elorrio@fundacioncai.com](mailto:elorrio@fundacioncai.com) helbide elektronikora idatzita.

## 'Herri Txiki, Infernu Handi' ETBko programa, Gatzagan

Urtarril erdialdera emitituko da Leintz Gatzagan grabatutako programa.

Herri txikiak oinarritzat hartu eta bertako herritarrekin osatutako umorezko saio bat da *Herri Txiki, Infernu Handi* Euskal Telebistako programa.

Saioa bi zatitan banatzen da. Alde batetik, herritar saltseroenak hartu eta haiekin solasaldi


bat izaten dute Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleek. Bestetik, herritar guztiak batzen dira solasaldi horiek pantaila erraldoi batean ikusteko, aurkezleen umorezko komentarioak entzunaz. Grabaketa ere bi zatitan egin dute. Aurreko astean grabatu zituzten aipatutako solasaldiak eta atzo iluntzean, berriaz, saioaren bigarren partea grabatu zuten. Juan Mari Makazaga -Pequeño-, Eugenio Otxoa eta Benedikto Elkorobarrutia dira elkarriketatuko batzuk.


# KILOMETROAK 2017




**LEKAIXOKA!**  
KILOMETROAK 2017 OÑATI

[www.kilometroak.eus](http://www.kilometroak.eus)

 [kmk17Onati](https://www.facebook.com/kmk17Onati)

 [@kilometroak](https://twitter.com/kilometroak)

 [kilometroakbideoak](https://www.youtube.com/kilometroakbideoak)



Ezkerrean bi neska-mutiko kilometroetako arroparekin, eskuinean 1989ko kilometroetako argazki bat, behean ikuskizuneko une bat.



## Badator, 'Lekaixoka!'

Bota du Txantxiku Ikastolak auzolarenako lekaioa eta herritarrek erantzun egin diote deiari. Elkarlanean lan egingo da urtean zehar, ikastolatik herrira eta alderantziz.



**gelatzo** S.L.

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22 - Faxa: 943 78 15 51

# 'Lekaixoka!' egin dute auzolanerako deia

2017ko irailaren 24an egingo da Kilometroak 2017 Oñatin, Gipuzkoako ikastolen aldeko festa. Txantxiku Ikastolaren 50. urteurrenarekin bat egingo du hark, eta, beraz, ikasturte berezia izango da Oñatiko ikastolarendako

## Miren Arregi OÑATI

Ohi baino astebete lehenago, 2017ko irailaren 24an –San Migel eta Errosaixo jaiekin bat egin ez dezan– egingo da Txantxiku Ikastolak antolatuta Kilometroak jaia. Bergarako Aranzadi Ikastolaren eskutik jaso du Txantxiku Ikastolak Kilometroetako testigua, aurten urteurren borobila betetzen duen testigua. Izan ere, 40 urte beteko ditu hark. Ikastolak herritik eta herriarendako jaia izatea gura du, eta, horregatik, udaletxean izango da lekuko hori urte osoan. "Jendeak 40 urte betetzen dituenean bidaia bat egiten du kuadrillan. Eta zu Gipuzkoako herririk po-

litenera etorri zara. Oñatira", esan zion Txantxiku Ikastolako Aitor Guridik lekukoari Kilometroetako logoaren eta leloaren aurkezpen ekitaldian.

Dakizuen moduan, *Lekaixoka!* leloa du datorren urteko Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiak, eta, orain aurkeztu bada ere, denbora luzeko lanketaren emaitza da: "Udaberrian hasi ginen

**AUZOLANA DA ILDO KOMUNIKATIBO NAGUSIA ETA HORI DAGO LELOAREN ETA LOGOAREN OINARRIAN**

antolaketa lanetan. Lehenengo lana ildo komunikatiboa lantzea izan zen, logoa eta leloa zehazteko. Langileen ekarpenetatik osatu zen ildo komunikatiboa", adierazi du Kilometroetako koordinatzaile Malen Ugartek. Irekitasuna, parekidetasuna, aniztasuna, auzolana eta halako balioak zehaztu ziren orduan lan ildo nagusi bezala eta horien bueltan egituratu dira bai irudia eta baita leloa ere. Ander Etxanizek, Amaia Martinez de Arenazak eta Xanti Ugartek egin zuten irudiaren lanketa.

Bien bitartean egin zen lantaldeetako izen ematea, eta, egun, 300 pertsona inguru dabilta ha-

## Arropa denda zabalik

Orain dela 25 urte atekak itxi zituen *Hankaluz*e dendan daude salgai Kilometroak 2017ko arropak eta osagarriak. Saioa Altubek eta Itziar Zubiak izan dute denda itxuraldatzeko ardura. Paretak margotu dituzte eta argiztapena moldatu dute. Mantendu egin dituzte, berriz, lurra, apalak, mostradorea eta lehendik bertan zeuden pisuak. "Dendaren lehengo esentzia mantendu nahi izan dugu", azaldu du Altubek, eta gaineratu du, denda "iluna" zenez, lehendik zeuden apalak eta bitrina zuriz margotu dituztela, "argitasuna" emateko.

Bertan, haur, gazte eta helduendako, arropen eta osagarrien eskaintza zabala dago. Arropei dagokienez, Kilometroak 2017ko logotipoa ondo ikusten diren kamiseta eta kirol-jertse ugari daude, eta, horiez gain, kalerako arropak ere badaude. Gabon sasoirako laster iritsiko dira neguko modelo berriak, eta udaberriko eta udako arropa ere izango da bertan aurrerago.

Osarrietan, motxilak, poltsak, bufandak edota gorroak daude, eta Ezpeletako aterkiak ere egongo direla aurreratu du Altubek.

"Bizikletetan eramateko botilatxoak ere egongo dira", adierazi du Altubek. Oso harrera ona izan du dendak lehen egunetan eta jende nagusiak batez ere estimatu du dendaren lehengo esentzia mantendu izana. Biltetgia ere dendaren atzeko aldean dago eta bertan jartzen diete materialei tiketak: "Lan horretan zortziko taldea dabil, eta gurasoak dira astebururo beste herri batzuetara joaten direnak arropak eta osagarriak saltzera", esan du Altubek.



Altube eta Zubia. ITZIAR BASTARRIKA

batuak@batuak.com • www.batuak.com



MEKANIZATUAK



Zubillaga, 12- Industrialdea • Tel.: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



# EGUZKILORE

## Gu ere Kilometroekin bat!

Berezaio auzoa 16 • 20560 Oñati | maribi@eguzkilo.esl.com  
Tel.: 617 44 21 55 | 943 78 18 46



Ikuskizuneko une bat. IMANOL SORIANO

mabost lantaldetan lanean: Ekonomia, Giza Baliabideak, Protokoloa, Arropa Salmenta, Prebentzioa, Parekidetasuna, Ikuskizunak, Jasangarritasuna, Erronka, Gure Zozketa, Osasuna, Zirkuitua, Segurtasuna, Trafikoa, Muntaketa eta Komunikazioa.

#### Herriaren erantzuna, bikaina

Urriaren 15ean egin zitzaion harriera lekukoari Oñatin. Hain

zuzen ere, bideo bat grabatu zen, lekukoak Bergararik Oñatirako bidea nola egiten zuen irudikatzeke, eta Oñatiko plazan harriera beroa egin zitzaion: "Ikusi besterik ez dago zer-nolako harriera egin zitzaion lekukoari herrian. Jendea jaiarekin ilusio-natuta dago eta ilusio hau mimitzen saiatu behar dugu. Herriarren prestutasuna eskertzeke da", gaineratu du.

#### Helburuak

Oñatiko Txantxiku Ikastola irakaskuntza kooperatibak 50 urte beteko ditu oñatiarrei eta bailarako herritarrei zerbitzua eskaintzen. Hartara, gaur egungo zerbitzu horien ezaugarriak gizarteratu eta etorkizuneko proiektuak bermatzeko ahalik eta babes ekonomiko handiena lortu gura du. Ildo horretan, honela adierazi du Txantxiku Ikastolako presidentea Aitor Guridik: "Proiektu horiekin herriko hezkuntza zerbitzuak aberastea dugu helburu. Horien artean garrantzitsuena martxan ipini dugun Konfiantzaren Pedagogia dugu".

#### Kotoizko poltsak

Berrerabilpena sustatuko du Kilometroak 2017k. Hala, arropa dendan, esaterako, kotoizko poltsak egongo dira. Poltsa horiek euro baten truke salduko dira, eta, erosleak hori gura ez badu, etxetik eroan beharko du berea. Arropa saltzeko egiten diren irteeretan ere berdin egingo da.

Gure zozketako txartelak salgai daude dagoeneko, bost eurotan. 60.000 euroko saria dago jokoan.



## Gaurko garaietara egokituz

MIKEL EGIBAR KOORDINATZAILEA

Demasa izan da 2016ko Kilometroak! "Lekaixo bat entzun da, mendi tontorrean..." Aloña aldera akaso? Badator 2017. urteko Kilometroak jaia Oñatira!

Bergara utzi eta bidegorritik Oñatira iritsi da 40 urte duen lekukoa. Egur puska bat da, baina oraindik ere bere jatorriaren basoaren usaina du. Urteek edertu egin dute bere itxura, eta hainbat eskutatik pasa izanak baserri baten teilatuaren hezurduraren kolore zahar eta sendoa eman dio. Kolpeak, markak eta inskripzioak ditu azalean. Ikastolaz ikastola, herriz herri bidaiatu du gure lekukoak, eta uneoro tokian tokiko idiosinkrasiatik orbainak balira bezala, kulturaren arrastoak tatuaje maoria balitz bezala hartu ditu bere larruan. Lekukoak ez du hitz egiten; bai, ordea, mezu bat adierazten: gure nazioak hezkuntza sistema nazionala behar du. Zatiketa administratiboen gainetik, herrialdeen berezitasunak bermatuz, gure nazioak, oraindik ere, baliabideak behar ditu etorkizuneari bizirik irauteko, horien artean Euskal Hezkuntza Sistema nazionala. Kilometroek horren *lekaixo* izan nahi dute, eta, ludikotasunaren malgutasunaren bitartez, aldarrikapenen xedeak zurruntasunez atxikitzeke lan konpromisoa hartu du Txantxiku Ikastolak. Kilometroak jaiak badu oraindik bidea eta lana, eta, lekukoa denboraren eraginez bere itxura aldatzen doan bezala, gure jaiak ere birmoldaketa eskatzen du. *Kilometroakbidea* prozesuak Bergaran hasi eta Oñatin jarraituko dugu garatzen; gure jaia gaurko garaietara egokitzea du helburu. Iraganak aberasten gaitu, baina etorkizuna da ilusioa eskaintzen diguna!

[www.ulma.com](http://www.ulma.com)

Gara

munduan zehar, sustraiei eutsiz

[www.lana.eu](http://www.lana.eu)

# Adin eta urtaro guztietarako arropa

Aukera zabala dago Kilometroak 2017 festarako egokitu den arropa dendan. Zabalik dago astelehenetik eguenera 17:00etatik 20:00etara; egubakoitzetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara



# ZUBIA

TECNOLOGIA  
TUBULAR



**Espezialistak  
hodi-formako piezetan**



**NEMESIO ZUBIA S.A.**

Zubillaga auzoa 74 • 20560 Oñati | Tel.: **943 78 14 10** | [www.zubia.biz](http://www.zubia.biz) - [zubia@zubia.biz](mailto:zubia@zubia.biz)





## Denda ibiltaria

### Azaroak 27

Hernani, Usurbil,  
Ormaiztegi, Azkoitia

### Azaroak 30

Eibar

### Abenduak 3

Mendaro

### Abenduak 4

Errezil

### Abenduak 13

Urretxu, Zumarraga

### Abenduak 17

Mutriku, Oiartzun, Tolosa

### Abenduak 18

Lezo, Pasaia, Arantzazu

### Abenduak 21

Irun, Azpeitia, Donostia,  
Hondarribia

### Abenduak 22

Arrasate

### Abenduak 26

Zestoa

### Abenduak 28

Ordizia

### Abenduak 31

Elgoibar, Irun, Tolosa



ITZIAR BASTARRIKA

# UGARTE

## OÑATI

- > HORMIGOIZKO EGITURAK
- > IGELTSEROTZA
- > ZAHARBERRITZEAK
- > PROMOZIOAK

## ERAIKUNTZAK

943 78 05 54  
663 973 164

ugarte@cnes-ugarte.com



# espytes



Hotzeko estanzazioan pieza bereziak

Zubillaga auzoa 56 • 20560 Oñati | Tel.: 943 78 11 67  
www.espytes.com - espytes@espytes.com

# "Herrira zabaldu gura izan dugu gure lekaioa"

**MALEN UGARTE** KILOMETROAK 2017KO KOORDINATZAILEA

Txantxiku Ikastola buru-belarri dabil Kilometroak 2017ko antolaketa lanean herritarrekin, elkarteekin eta herri eragileekin batera, auzolanean

**Maidar Arregi** OÑATI

Orain artekoaz eta egiteko da-  
goenaz hitz egin du Kilometroak  
2017ko koordinatzailek.

**Nola doaz antolakuntza lanak?**

Hasiera fase honetan, antola-  
kuntza lanekin ondo gabiltzala  
uste dut. Lantalde gehienak ak-  
tibatuta eta gogotsu dabilta,  
eta, orain, urtean zehar zer egin  
gura dugun ari gara pentsatzen.  
Ondotxo eta indartsu hasi gara,  
baina indarrak neurtu beharko  
ditugu.

**Zergatik testigua alkateari?**

Ikastolarentzat ez ezik, herria-  
rentzat delako jaia, hurbildu  
nahi duen edozein herritarren-  
tzat. Lekukoa udaletxean utzita,

herrira zabaldu nahi izan dugu  
gure lekaioa.

**Herrigintzak garrantzia du, beraz.**

Herrigintza, lan egiteko moduan  
ulertuta, funtsezkoa iruditzen  
zait Kilometroak jaian. Egia  
izan arren herrigintzaren be-  
rezko balioak eta logikak ez  
dutela bat egiten gaur egungo  
gizarte ereduarekin, uste dugu  
auzolana herrigintzarako bitar-  
teko dela, herritarrok herriaren  
alde elkarlanean arituta.

**Lekaixoka egiten da auzolanean  
deia; diozue; zergatik auzolana  
aurtengo leloaren oinarri?**

Batetik, historikoki auzolanean  
iritsi garelako gauden lekura  
eta lan egiteko giro eta modu

honetan sinesten dugulako. Eta  
bestetik, Kilometroak bezalako  
jaiak herri kontzientzia eta hon-  
nen arabera konpromiso kole-  
ktiboaren garrantzia bistaraz-  
tzen laguntzen duelako.

**Zer eskatu gura diezu herritarrei?**

Herritarrei jaia janzen lagun-  
tzeko eta elkarlanerako dei egin  
nahi diegu, bai urtean zehar  
zein egunerako bertarako. Jen-  
dea parte hartzeraz animatu da-  
din nahi dugu, nahi duen mo-  
dura eta dituzten proposamen  
guztiak (are gehiago ideia ori-  
jinalak) eginez, denak ondoeto-  
rriak izango dira eta!

**Zelan antolatu zarete lanak bana-  
tzeko orduan?**



Malen Ugarte koordinatzailea ikastolako patioan. MAIDER ARREGI

Denen beharra dago, bai. Urte-  
ra begira, lanak batzorde ezber-  
dinetan banatu eta talde hauetan  
bai elkartetako jendea, herrita-  
rrak, irakasleak, gurasoak, ikas-  
leak, denetarik daukagu. Nork  
bere ataletik baina denon artean  
koordinatuta lan egitea da as-  
moa.

**Ikastolak 50 urte bete ditu. Horren  
bueltan sorpresarik izango da?**

Bai, noski. Aurkezpen ekitaldian,  
Ikastolaren 50. urteurrena la-  
burbiltzen zuen ikuskizuna izan  
genuen, eta berriz ikusteko au-  
kera ere egongo da. Ikastolaren  
astea aurten ere berezia izango  
da eta ikasle ohien bazkaria  
ospatuko da. Urtebetetzeetan  
ohikoa den moduan, isilpean  
sorpresaren bat edo beste ere  
prestatuko dugu.




**Mekanizazio zerbitzu integralak**

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es) / e-mail: [comercial@mekalki.es](mailto:comercial@mekalki.es)



# Natraoñati



Arantzazurako bidean z/g • 20560 Oñati | Tel.: **943 71 63 69**

# "89koa herriaren auzolan eredu bikaina izan zen"

Pili Irazabalek, Jabier Galdosek, Miguel Angel Zabaletak, Jose Ramon Aranburuk eta Lourdes Idoiak osatu zuten Kilometroetako koordinazio taldea. Haien arrimuan, 1.000 boluntariok egin zuten lan, ikastolaren aldeko festa herrikoa izan zedin

## Mireia Bikuña OÑATI

1988an Lourdes Idoiaga zen Txantxiku Ikastolako presidentea, eta, ikastolaren aldeko festa Oñatin egin behar zela jakin bezain pronto, kolaboratzaileak elkartu zituen bere arrimura.

Segituan hamabi bat batzorde sortu zituzten, eta bakoitzean bina arduradun izendatu. Lanerako gogoia hedatzen joan zen eta boluntario kopurua handitu egin zen, 1.000 lagun inguru elkartu ziren arte. "1988ko azaroaren 30ean jakin genuen festa guk antolatu behar genuela, eta urtarrilean hasi ginen lanean. Ikastolako irakasleen eta gurasoen inplikazioa izugarria



89ko Kilometroetako koordinazio batzordeko kideak. MIREIA BIKUÑA

izan zen", diote orduko antolatzaileak.

Herriko elkarte gastronomikoetan proiektua aurkeztu eta herrira zabaldu zuten. "Herritarrek antolaketa lanetan parte hartu gura zuten. 1989ko Kilometroak auzolan eredu bikaina izan ziren", azpimarratu dute.

## Helburu ekonomikoa

Burukominak ala poztasunak? Zer izan zituen gehiago boskote hark? "Buruhauste handirik ez. Erabakiak batzordeetan hartzen genituen. Adostuta. Lanak ere modurik bidezkoenean banatzen genituen", diote.

Guztiak azpimarratu dute poztasunak buruhaustek baino poztasun gehiago izan zirela. "Eta poztasun handiena herritarrek lanerako erakutsi zuten grina izan zen. Guztiak zeuden lan egiteko gertu. Edozer gauza egiteko gogo. Lantalde indartsuak osatu genituen. Eragile ezberdinekin. Talde aberatsak. Eta emaitza bikaina izan zen". Festa haren helburu nagusia ekonomikoa zen. "Egungo Bigarren Hezkuntzako eraikina finantzatzeko dirua behar genuen. Erronka

handia zen ikastolarendako, baina lortu genuen", diote.

## Disfrutatze gogoz

2017ko irailaren 24a gorritz markatuta du boskoteak. Eurenadako, "disfrutatze" eguna izango da. "89koan lanean ibili ginen. Ez genuen festaz gozatu. Hurrengo urtean bai", esan dute. Bestalde, "lanerako eta beharra dagoenean laguntzeko borondatea" dutela azpimarratu dute. "Baina, egungo antolatzaileek duten dinamika ikusita, lantalde indartsua dago martxan. Batzorde gehienak lanean hasita daude. Belaunaldi askotariko ordezkariak elkartu dira: ikasle ohiak, guraso direnak eta aurretik ikasle izandakoak, irakasleak eta irakasle ohiak... Belaunaldi indartsuak dira eta lan handia egingo dute".

Hiru hamarkadako tartea egongo da bi festen artean, eta bilakaera hori nabaria izango da. "Asko aldatu da gizartea eta antolaketa modua 30 urtetan, baina ez daukagu dudarik: 89ko festarekin lortutako arrakasta gaitu egingo da datorren urtean".



egaralur  
construcciones eraikuntza lanak

- > Eraikuntza lanak
- > Industria-nabean eraikuntza
- > Obra Zibila - Urbanizazioak
- > Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- > Etxebizitzaren eraikuntza

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 07 15 • Faxe 943 78 08 62 • [www.egaralur.net](http://www.egaralur.net)



TALDE LANA, elkarrekin, pausoz pauso  
Eskerrik asko 25 urte hauetan gugan konfiantza izateagatik



Logopedia • Psikologia (TDAH) eta ikasketa teknikak • SENA metodoa (Estimulazio NeuroAuditiboko sistema)

# 28 urte geroago ere, auzolana protagonista

1989an hartu zuen Oñatik lehenengo aldiz Kilometroak festa, eta, elkarlanari esker, ordura arteko jendetsuena izatea lortu zuen, momentu gogoangarriak utzita. 2017an ere bide beretik jarraitzea da helburua.

## Txomin Madina

Oñatiko Foruen plaza jendez lepo. Horixe izango da, seguru aski, askok eta askok 1989ko urriaren 1ean egin zen Kilometroak jaiaren irudi baten inguruan galdetuta emango duten erantzuna. Herriko jaiekin batera egin zen orduan Gipuzkoako ikastolen festa handia, eta, eguraldia lagun, ehun mila lagun etorri ziren Euskal Herri osotik Oñatira. Gehiago ere izan zitezkeen, herrira heltzeko egon ziren zirkulazio arazoengatik izan ez balitz. Aparkaleku moduan egokitutako 44 zelai, 17.000 auto eta 250 autobus inguru, iturrien arabera, 30.000 edo 40.000 ogitarteko... Egunak utzitako zenbakietako batzuk dira horiek.

Kilometroaren hamahirugarren edizioa izan zen hura, ordura arteko jendetsuena, eta garaiko prentsak Aloharen magalean prestatu zen bost kilometroko ibilbidearen ikusgarritasuna azpimarratu zuen. Egokitutako guneetan adin guztietarako ekitaldiak hartu zituzten, tradizioa eta modernitatea uztartuta: txondorak nola egiten ziren ikusteko aukera egon zen, esaterako, baina baita garai hartako ordenagailuetan ibiltzekoa ere. Jose Antonio Ardanazak, orduko lehenadakariak, moztu zuen ibilbidea-

ren hasierako zinta, Bitoriano Gandiagaren hasierako hitzaldiaren ostean. Ekitaldian, gainera, omenaldi berezia egin zioten urtetan Txantxiku Ikastolaren alde egindako lanagatik Felisa Enparantzari.

*Euskaraz Kilometroka aurrera* izan zen orduko leloa, eta helburua zen BBB (Batxilergo Balio-niztu Bateratua) ezarri zenean kontzertazio gabe geratu ziren gelen finantziazioa ahalbidertzea. Txantxiku Ikastolako ordezkarien esanetan, baina, egunak horretarako baino gehiagorako balio izan zuen: Oñatiren presentzia Euskal Herri osora zabaltzeko. Eta Kilometroak prestatzeko herritarrek, enpresek, merkatariek eta baserritarrek, denek izan zuten parte-hartzea azpimarratu zuten; hitz baten esanda, auzolana.

## Logoa eta leloa

28 urte itxaron behar izan ditu Txantxiku Ikastolak berriz ere Kilometroak antolatzeko. Gauzak

## KILOMETROAK 2017REN LOGOA IKASTOLAKO HIRU IKASLE OHIK DISEINATU DUTE

asko aldatu dira ordutik; baina ez dena. Izan ere, auzolanak jarraituko du izaten antolakuntzaren oinarria.

Auzolana da, hain zuzen ere, irekitasunarekin, aniztasunarekin eta parekidetasunaren barruan 2017ko irailaren 24an –ohi baino astebete lehenago– egingo den Kilometroak jaiaren.

*Lekaixoka!* da 2017ko edizioaren leloa, eta, kasu honetan ere, gauzak elkarlanean, batera, denon laguntzarekin egitearen ideia dago oinarrian. Izan ere, *lekaio* berbak oihua, irrintzia, deiadarra esan gura du; garai bateko euskaldunek abisuak pasatzeko, arazoak konpontzeko edo urrun zeudenekin komunikatzeko zuten tresna.

2017ko Kilometroak jaiaren logoa, bestalde, Txantxiku Ikastola ondo ezagutzen duten hiru pertsonak egindakoa da: Xanti Ugarte, Amaia Martinez de Arenaza eta Ander Etxaniz ikasle ohiek. Eta logoaren irudiak lotura zuzena du leloarekin, irrintziaren errepresentazioa da-eta bertan agertzen den irudia.

Konfiantzaren Pedagogia izeneko hezkuntza-eredua ezarri du Txantxiku Ikastolak, eta horrek eragindako gastuak eta etorkizuneko proiektuak bermatzeko izango dira 2017ko Kilometroak.



Oñatiko Foruen Plaza, 1989ko Kilometroetan. TXANTXIKU IKASTOLA



2017ko Kilometroaren aurkezpen ekitaldiaren une bat. IMANOL SORIANO



1989ko logoa. TXANTXIKU IKASTOLA



2017ko logoa. TXANTXIKU IKASTOLA



Santxolopetegi auzoa - Tel.: 943 78 21 05 - 943 71 63 09 - Emaila: magdagaso@gmail.com

**MAGDALENA**  
**ASOLINDEGIA**  
auto garbiketa integrala

# Herriko euskaltzaleak batu nahi ditu Jardunek

Bergarako euskara elkarteak bazkietza kanpaina berria aurkeztu du, Euskaltzaleen Topagunearekin eta Euskal Herriko beste zortzi euskara elkarterekin batera martxan jarri duena. 'Zurekin Bergara euskaldunago' leloa aukeratu dute kanpainarako.

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Astelehenean aurkeztu zuen jendaurrean Jardun Euskara Elkarteak bazkietza kanpaina berria, dagoeneko martxan dena. Kanpaina horren baitan hainbat ekintza egingo dituzte datozen asteetan, eta, besteak beste, abenduan erdigunean lokal bat irekiko dute; bi hilabetez zabalik izango da. Urtarrilaren amaierara arte iraungo du kanpainak.

Elkarteko zuzendaritza batzordeko kide Miren Etxeberriak azaldu du kanpaina horren helburua ez dela soilik bazkide berriak lortzea: "Helburu nagusiak dira egungo bazkideak aktibatzea eta herriari Jardun zer den eta zertan diharduen eza-gutaraztea. Bazkideak egitea ere bai, noski, baina ez da gure helburu bakarra". Bada, asmo horrekin, atzo, eguena, pintxo-potean, Iralan izan ziren Jardunekoak herritarrei kanpainaren eta elkartearen berri ematen.

**Leloa eta irudia**

*Zurekin Bergara Euskaldunago.* Horixe da Jardunek kanpaina berrian zehar erabiliko duen lelo nagusia.

Ikurra, berriz, batuketarena da, eta horrekin gehitzearen garrantzia, elkarlanean aritzearen beharra azpimarratu nahi izan dute. Hala, lelo nagusi horrez gain, azpi-leloak ere sortu dituzte; esaterako: *Jardun + zu = Bergara euskaldunago, Zure laguntza, gure indarra edota Jardunera batzeko prest?*

**Bazkietza mota desberdinak**

Kanpaina horrek dakartzan berrikuntzen artean, nabarmen-tzekoa da hiru bazkietza mota izango direla aukeran: bazkidea-laguntza ekonomikoa-, bazkide laguntzailea-Jardunen ekintzak antolatze edo laguntzeko bere denbora eskaintzeko prest dagoena- eta biak uztartzen dituen formula.



Miren Etxeberria eta Nerea Mendizabal, kanpainaren irudia atzean dutela. M.T.

## 'Euskara begi bistan' egitasmoa

Martxan da *Idazlaguna*, euskara begi bistan egitasmoa. Herriko merkataritzako eta ostalaritzako hizkuntza paisaia euskalduntzeko egitasmoa da honako hau. Animatu eta parte hartu!

Egitasmoa ezagutzera emateko eta herritarrek sentsibilizatzeko kanpaina desberdinak egingo ditugu, eta lehenengoa *Idazlaguna* hizki zoparena da. Astelehenero hizki zopa eredu bana jartzen dugu Bergarako tabernetan, eta horietan herriko denden izenak aurkitu behar dira. Parte hartzeko, hizki zopak bete eta tabernetan dauden dauden kutxetan sartu beharko dira, edo, bestela, argazkia atera eta Whatsapez 605712469

zenbakira bidali. Astero sari bana zozketatuko da: 15 euroko bonua.

**Goiena komunitatea**

Jardun Euskara Elkarte / BERGARA

Hala, bazkide egiteko asmoa dutenek abenduan Jardunek irekiko duen lokalean egin ahal izango dute, edota Errotalde jauregiko betiko bulegoan -bulego hau ere zabalik mantenduko dute kanpainan zehar, beti bezala-. Horrez gain, Internet bidez ere egin daiteke, *jardun.eus* webgunean, *Egin zaitetz bazkide* atalean, hain zuzen.

Gaur egun, 500 bazkide inguru ditu Jardunek, elkarteko langile Nerea Mendizabalek azaldu duenez.

**Herriko presentzia areagotzea**

Kanpainan zehar, kale ekintzak egingo dituzte; esaterako, *photocall* bat kalera ateratzea. Bestetik, erdiguneko lokalean ere askotariko ekintzak antolatuko dituzte; besteak beste, hitzaldiak, kultur emanaldiak eta haurrendako ekintzak.

Aurreratu dutenez, abenduaren 17a izango da kanpainaren baitako egun handia. Egun osoan hainbat ekintza egingo dituzte herritarrekin eta herriko hainbat eragilerekin.

## Jesus Mari Lazkanoren hiru hamarkadako ibilbidea, liburuan

Donostia 2016 barruan atera dute, Miguel Zugazaren, Edward J. Sullivanen eta Kirmen Uriberen hitzaurreekin

**J.I. BERGARA**

Artista bergararraren monografia Iberdrolaren eta Donostia 2016ren lankidetzari esker argitaratu du Nerea argitaletxeak, eta liburuaren ardatza Lazkanoren ibilbidean behin eta berriz errepikatzen diren elementuek osatzen dute: naturak, denborak, argiak eta arkitekturak.

Liburuak 336 orrialde ditu, 177 ilustrazio eta Kirmen Uribe idazle bizkaitarraren, Edward J. Sullivan arte kritikari estatubatuarren eta Madrilgo Pradoko museoko zuzendari Miguel Zugazaren hitzaurreak.

Martitzenean Donostian egingako liburuaren aurkezpenean, artista bergararrak adierazi zuen pintura, beretzat, gehiago dela "eraikitze intelektual bat", azkenean koadroan islatuta geratzen dena baino; koadroaren atzean "hausnarketak, askota-



Aurkezpeneko irudia. DONOSTIA2016

riko aldarteak, hainbat gertakari, prozesu oso bat, istorio bat eta galdera gehigarri ugari" daudela zioen. Eta normalean artistaren baitarako geratzen diren horiek eta haiek eragindako hausnarketak ere jasotzen dituzte liburuko testuek.

## Lau auzotarako bideetan lanak

"Landa ingurua bultzatzen eta indartzen jarraitzeko", Aritzetako San Migel auzorako bidea, Osintxuko Azkargorta etxeetara doana, Elosuko Agerre eta Egileor baserrien artekoa eta Goiauzora doana konpontzen dihardu Udalak. Lanen aurrekontua da 33.825 euro, eta Aldundiaren diru-laguntzarekin ari dira egiten. Lan denak abendu hasierarako amaiteza da asmoa.



JULEN IRIONDO

## Euskal sorkuntzaren gaineko tailerra eta bertso-afaria Osintxun

Euskararen Eguna dela-eta, Jon Maia eta Onintza Enbeita izango dira Osintxuko Txuringon hilaren 3an, 21:00etan. Auzoko tabernetan daude salgai txartelak -hilaren 1a azken eguna-, 25 eurotan -20, langabe eta ikasleentzat-. Aurretik, eguenean, euskal sorkuntza aztertze tailer-tertulia egingo dute Irizarren, pintxo baten bueltan -19:00-.

## Ur jolasak izango dira domeka arratsaldean Agorrosinen

Askotariko ur jolasekin gozatzeko aukera izango dute neska-mutikoez domekan Agorrosingo igerilekuan. Umeentzako eta familientzako da deialdia. Jolasak 17:00etan hasi eta 19:00ak arte izango dira. Jolaserako materiala bertan izango da, eta, gainera, begiraleek dinamizazio lana egingo dute arratsalde osoan zehar.



Telebista kameraren pantailan Izaro Arbe, eta agertokian hura eta Reyes Azkoitia. JULEN IRIONDO

## "Gonarekin jokarazi ziguten ETB zetorrelako"

Berdintasuna helburu, kasu honetan pilotan, bi emakume erreferentekin –Reyes Azkoitia eta Izaro Arbe– mahai-ingurua egin dute astean Zabalotegi aretoan, Azaroaren 25aren bueltako egitarauaren barruan. Tamalez, interes txikia eragin zuen

**Julen Iriondo** BERGARA

Indarkeria matxistaren adierazgarri nagusi erailketak izan arren, bestelako desberdintasun adierazpideei ere arreta jarri nahi izan diete Udalak eta Martxantere; honela, eguazten iluntzean *Las pelotaris* eta *Pilota girls* ikus-entzunezkoak eman zituzten Zabalotegin, eta herriko pilota eskolako entrenatzaile Reyes Azkoitiarekin eta Izaro Arbe puntista bizkaitarrarekin solasaldia egin zuten gero, Maite Aristegik gidatuta: *Indarkeria sinbolikoa. Frontoiak ere badira gureak!* izan zen goiburua.

Bertan azaldu zuen Arbek, kirolari edo pilotari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak izan ditzakeen hamaika ertzetatik bat era argian erakusten duen pasadizoa, oso adibide grafikoa, zestan hasi aurretik palan jokatzeko zueneko: "ETB zetorrela-eta gonarekin jokatu behar genuela erabaki zutela esan ziguten. 'Nola? Ez, nik normalean prakekin

jokatzen dut, eta ez', esan nien". Jokatzeari uko egin zion berak, baina beste batzuk aritu ziren, baldintza haietan: "Telebistan irudi hori atera zen, emakumea, baina atzetik beste mezu horrekin", zioen.

Reyes Azkoitiak txikitatik jokatu izan du pilotan: "Nik jokatu izan ditudan partiduetan, kontziente izan naiz beti loreak bota izan dizkidaten gizon horiek ez zizkioketela botako jokatzeko zebilena euren andrea balitz. Nafarroatik idatzi zidan behin batek esanez nahiko lukeela nire kontra jokatzeko; hitzordua egitekotan geratu ginen, baina gutxira deitu zidan, gizonak uzten ez ziola-eta, jokatu ezin zuela esanez". Berak halakorik ez duela bizi izan zioen Azkoitiak: "Etxean patata tortilla preparamen hobeto nengokeela eta halakoak entzun ditut, hala ere".

Lehiarako aukera txikia –kopuruz gutxi direlako– izaten da emakume pilotarien beste ozto-poetako bat –palan, zorionez,

lanketa egiten ari dira, eta ari da fruituak ematen–; frontoiko ateak edonorentzat zabalik egonda ere, hura gizonezkoen espazio irudikatzeari egotzi zion, adibidez, Aristegik; baina auto-kritika ere eskatu zuen Azkoitiak: "Bergaran errazago behar luke neskak jokatzera etortzea, entrenatzailea emakumea izanda, baina oso gutxi etorri dira". Pena eta autokritika behar bera azaldu zuen solasaldiaren arrakasta txikiagatik. Arbek zioen berak bai ikusi duela entrenatzailea neska izateak errazten dituela gauzak.

**Gaur, bilkura eta akelarrea**

Indarkeria Matxistaren Kontra Eguna, izan, gaur da, berez, eta bi ekintza daude antolatuta: udaletxe aurrean bilkura izango da 19:00etan, eta akelarre antipatriarkala 20:00etan leku berean, musikaz girotuta. Emakumeek jasaten duten biolentziaren adibideak erreko dituzte sutan, eta queimada ere banatuko dute.

### Gipuzkoako abesbatza onenetakoa, bihar, Santa Marina elizan

Errenteriako Landarbaso abesbatzaren zapatuko emanaldia 20:00etan hasiko da, eta sarrera doan izango da. Gipuzkoako zuzendari onenetakoa den Iñaki Tolaretxipik gidatzen du taldea, eta abesbatza bera ere herrialdean puntakoen artean dagoela erakusten dute jasotako sari eta errekonozimenduek –nazioarte mailakoak ere bai–.

### Orkestra Sinfonikoa Aspanogiren alde, Soraluzeako elizan

Bergarako Orkestra Sinfonikoak Aspanogiren aldeko kontzertua eskainiko du gaur –egubakoitza–, 20:00etan, Soraluzeako elizan. Sarrerak Bolian, Iratxon eta Gaztelupen eros daitezke aurrez, 8 eurotan, eta *0 ilara* deitu ohi den sarrera solidarioa eskuratzeko aukera ere bada, 5 eurotan. Minbizia duten haurren gurasoen elkartea da Aspanogi.

### Sarrerak saldua, Egan, Kokein eta Elvis Caino gaztetxean

Mokolo Eguneako festarako sarrerak astean saldu dituzte; erosita izan ezean, beraz, bihar ezingo da Xabier Saldiasen taldearen azkenurrekoa izango den saioarekin gozatu. Eganen aurretik –22:00–, Kokein taldeak *Lurpekharia* lan berriena aurkeztuko du, rock doinu osatutakoa. Eta festarekin segitzeko, Elvis Cainoren saioa izango da.

### Martitzenean, ipuin erotikoak Irizarren, Ines Bengoarenkin

*Hotzikara* izenburua du hilaren 29an eta 19:30ean Ines Bengoak egingo duen saioa. 14-15 urtetik gorakoei zuzenduta dago –helduentzako saioa da–. Erotismoa historian zehar nola gertatu den kontatzen du: "Garai guztietako emakume eta gizonen sexu-atsegina sentitu dute, jakin-nahi, beldur eta askatasun maila desberdinetan", dio kontalariak.



NIRE USTEZ

AITZIBER PLAZAOLA

### #altsasu

Pentsatu lerro hauek irakurtzen ari zaren bitartean, Altsasun atxilotutako zazpi gazteak espetxean daudela, patioan zehar oinez, liburu bat irakurtzen edo zeldako atea itxita, gutun bat idazten. Etxetik urrun, etxekoekin gogoratzen. Altsasun izan da, baina izan zitekeen Oñatin edo beste edozein herritan.

Historia errepikatzen da, sentimenduak errepikatzen dira, frustrazioa... bertsio ofizial surrealistik, manipulazioa, epaileen erabaki partzialak, botere adierazpen argia. Eta ondorioa, beste zazpi bizitza bahituta.

Sorgin ehizak ez du etenik. Gu 28 izan ginen. Azkenak izan nahi, eta horrekin amets ere egin genuen. Bakoitzak urte eta erdi inguru eman genuen espetxean, nire kasuan ondoren akusazioa erretiratzeko! Eta Jokin, Iñaki, Oihan, Julen, Jon Ander, Aratz eta Adurrekin zer gertatuko da?

Nik argi daukat guk alde egiten ez dugun bitartean gure herri eta bizitzetan bortxaz erabakitzen jarraituko dutela. Alde egin dezagun beraz, beraiek joan daitezten!

Muxu bana Alcalá-Meco, Soto del Real eta Altsasura.

### Pol-Polen ezohiko batzarra eta gazte taldearen irteera

Astelehenean, hilak 28, izango da Pol-Polen ezohiko batzarra, 19:30ean Irizar jauregian. Elkarrean lokal berria eta 75. urteurrena izango dira batzarreko bi aztergaiak. Bestalde, abenduaren 11n egingo du Pol-Polen gazte taldeak hurrengo irteera. Kurtzebarrira izango da, eta goizeko irteera izango da. Izena ohiko egunetan eman daiteke.



Jose Mari Rubio eta Felipe Uriarte, beraiek muntatutako *Mikado* trenarekin. IMANOL BELOKI

# Gutenberg eta Edison barik, Rubio eta Uriarte

Jose Mari Rubio eta Felipe Uriarte bergararrak abilak dira ingeniariak kontuetan. Lurrunezko tren, erreka ura herrigunera igotzeko bomba, irina egiteko errota... Hainbat tresna eta tramankuluren erreplikak egin dituzte beraien tallerrean.

## I.B./M.T. BERGARA

Jose Mari Rubio eta Felipe Uriarte lagunak *Bergarako asmatzaileak* direla esan daiteke. Izan ere, denetariko tramankuluak egin dituzte. Boluko tailer batean egiten dute lan, eta bertan haien ingeniariak arloko jakintzak jartzen dituzte praktikan.

Benetan funtzionatzen duten makina eta gailuak egiten dituzte, eskala txikiagoan, baina. Esaterako, aipagarria da bien artean muntatu duten *Mikado* lurrunezko tren.

## Lurrunezko tren

Trena egitea "lagun baten bitartez" otu zitzaizela azaldu du Jose Mari Rubiok. Nafar batek halako bat eginda zuen, eta galdetu zieten ia prest egongo lirartekeen planoak emanda halako bat muntatzeko, lana burutzeko zortzi urteko epea emanaz, eta haiek baiezkota eman zioten.

Lehen Mundu Gerraren garaian Estatu Batuetan Japoniarrendako egin zuten tren baten maketa da Rubiok eta Uriartek

egin dutena. Tren horren izena *Mikado* da, eta japonieraz enperadorea esan nahi du. Garai hartan makina preziatua izan omen zen: "Japoniarrendako egiten hasi ziren, eta emaitza onak eman zituenez, eta halako hainbat egin zituzten aurrerago".

Orijinala lurrunezkoa bazen ere, Bergarako asmatzaileek haizez zein lurrunez funtzionatu dezakeen tren egin dute.

## Funtzionamendua

Trenak galdara bat dauka, lurrunezkoa, eta bertan sortzen da gurrpilak martxan jartzeko behar duen energia: "Ikatza sartu behar zaio, sua egin, eta galdara berotzen denean, lurruna sortzen du", azaldu dute asmatzaileek. "Lurrun hori, hodi batzuen bitartez, pistoiatar doa, kotxean bezala. Orduan, pistoiak mugitu egiten dira, eta horiek, aldi berean, gurrpilei ematen die mugimendua".

Trenaren abiadura azkartu edo moteltzeko, makinak duen balbula bat ireki edo itxi behar da.

20 Km/orduko abiaduraraino iritsi daiteke tren, eta atzerako martxa ere badauka.

## Umeak garraiatzeko modukoa

Abiaduraz gain, baina, makina honek "indar handia" ere baduela azaldu dute Jose Mari Rubiok eta Felipe Uriartek: "Atzeko partean hiruzpalau bagoitxo jarri ezker, bakoitzean bina ume garraia-

## Garai bateko makinak



**Uraren igogailua** Garai batean Toledo hirian erabiltzen zuten gailua da irudian ageri dena. Bertan, hirigunea ibaia baino gorago dagoenez, etxeetara ura modu errazagoan igotzeko balio zuen *igogailua* da honakoa.



**Errota txikia** "Mekanismo erraza dauka: ura erortzen doan heinean, pala betetzen joaten da, pisuagatik erortzen den arte. Orduan, mailuak alea kolpatzen du, txiki-txiki egin arte, eta horrela egiten da irina", azaldu du Felipe Uriartek.

tzeko besteko indarra dauka", dio.

Hain zuzen, horixe da Bergarako bi asmatzaile hauen ametsa. Muntatu duten gailuaren ezaugarrietara moldatuko den

trenbidetxo bat lortzea nahiko lukete, eta "egunen batean" herrian erakutsi eta umeek erabil dezatela. Hala, lurrunezko trenak nolakoak ziren ikusi ahal izango dute bertatik bertara.



**10 urte baino gehiago Bergaran!**

**943 25 06 77**

UGARTE  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

AROSZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

# "Zerbait egin behar zen" kontzientzian eragiteko

Antzuolarrak aspaldian kexu ziren herria "oso zikin" zegoelako; horren aurrean, Udalak joan den astean kontzientzian eragiteko ekimena abiatu zuen. Orain, emaitzak ikusita, herritarrek positiboki baloratu dute eta "denen ardura" dela diote

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Herria garbi mantentzeko helburuarekin kontzientziazio lanean jarraitzeko asmo sendoa daukela dio Antzuolako Udalak. Herrian, antzuolarren artean, Udalak argitaratu duen gutuna berbagai da. Honela jaso dute ekimena: "Garbi zegoen zerbait egin beharra zegoela. Aspaldian herria oso zikin zegoen eta egoera geroz eta larriago bilakatzen ari zen. Ez bakarrik zakarrak lurrera botatzen zituztelako gaztetxo zein helduek; baita gertatzen ari ziren okerkeriak ere -pilotalekuko aulkiak erre, gauzak apurtu, txiza egin, zarata atera ordur kanpo...-. Hain zuzen ere, susmoa dugu hori izan ote zen Udalak pilotalekua ixteko erabakia hartu izanaren arrazoietako bat". Gaineratu dute garbitasun falta ez dela soilik haurren eta gaztetxoaren kontua; eta diote hor helduek zerikusit handia dutela; batez ere, heziketan.



Herri Eskolako patioan umeak jolasean. MAIDER ARREGI

Udalak kaleratutako gutunak dio "oinarria ez zikintzea" dela. Azken boladak errespetu faltaz ere ohartarazi du: "Aulkiak puskatu eta erre, ate eta leihotetan pixa egin, desorduetan kolpeka jardun...". Edozer gauza

ez dela zilegi dio. Errespetua gauzei eta pertsoneri zor zaiela, alegia.

Gutunean jakinarazi du behin-behineko neurri gisa hartu zutela pilotalekua ixtea eta dagoeneko zabalik dagoela.



Auzokok astelehenean emakumeekin egindako saioa. MAITE TELLERIA

## Kultura eta berben aniztasunaz gozatu dute Auzoko saioan

Asteon, emakumeek Auzokoko saio berezia egin dute. Hitzekin fonema eta monema jolasak egin dituzte

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Astelehenean batu ziren Auzoko ekimeneko emakumeak: "Oso ondo pasatu dugu; barre ugari egin dugu eta hitzen doinuekin jolas egin dugu", azaldu du Auzoko proiektuaren dinamizatzaile Maite Telleriak. Eta horixe zela helburua, hain justu ere, gaineratu du. Talde polita batu dela dio: "Dominikar Errepublikak, Nikaragua, Maroko, Mexiko eta Euskal Herria ordezkatu duten emakumeak elkartzu gara". Modu horretan, hizkuntza aniztasuna aprobetxatuta, hitzen arteko fonema eta monema jo-

las aberatsagoak egin dituztela dio. Eta gaur, azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izanik, indarkeria matxista ere izan zutela berbagai azaldu du.

**Elkar mimatuz**

Abenduan, elkar mimatze saioa egingo dute: "Hurrengo hilabeteko saioari *Alkar mimatuz* deitu diogu, eta, bertan, masajeak, aurpegiko edertze tratamenduak eta beste elkarbanatuko ditugu".

Antzuolako emakumeek atek zabalik izango dituzte.

## Zer iruditu zaizu garbitasunaren aldeko ekimena?



**JOSEFINA IRIZAR**  
ANTZUOLA

"Neurriren bat hartu behar zen; izan ere, herria geroz eta zikinagoa zegoen. Zikinkeria, txakurren kakak... uste dut umetatik irakatsi behar zaiela bazterrek txukun edukitzen. Pilotalekua ere itxita egon da haur handiagoei okerrak egin dituztelako... egia da zerbait egin beharra zegoela".



**BENANCIO TENA**  
ANTZUOLA

"Udalak abian jarri duen ekimena oso ondo iruditu zait. Kontzientziazio beharra dago. Izan ere, zalantza daukat kontzientziazioa ba ote daukagun. Eta agian, sasoi honetan, zailagoa da kale garbiketa mantentzea. Haize boladak, hostoak, esaterako, alde batetik bestera darabiltelako".



**PATXI CAVO**  
ANTZUOLA

"Ikusi behar da ea herritarrek orain kontzientzia hartzen duten. Dena den, gauza puntuala dela uste dut. Ekimena ona iruditu zait, bai umeekin egindakoa eskolan eta baita etxeetan gaia mahai gainean jartzera bultzatu duen gutuna bidali izana ere. Haurrekin gurasoek landu beharrekoa da".



**NIRE USTEZ**

**ALAITZ JAUREGI**

## Umetu gaitzean

Gabonak datozela-eta ohiturria izeten da bai urteko errepasua egittia edo eta baita urte berrirako gauzak eskatzia. Nik urteko errepasua egittia alperrikua ikusten dot, ze egindakua egindada dago; pasau jakun gauza onenekin geratzia onena. Baiña urte berrirako bizitza hobetzeko eta ilusio berrirako eskatu eta lortzen saiatzia, hori bai beti egin biharko giñukeela. Ez urte hasieran bakarrik, edozein egun da ona gauza txarrak alde batera laga eta zeretik hasteko. Nik neuk gauzatxo bat daukat pendiente, eta orokorrian mundu guztiari luzetzen jat berdiña egitteko gonbidapena: pasau deigun denbora gehixago eta, batez be, kalidadekua gure umiekin. Askotan parkera juten gara eta literal: helduak eserlekura zuzenian eta umiei: "Benga, segizu jolastera!". Etxera aillegau eta gu sofara eta umiei: "Benga, ekarri egizu jolas bat, edo hartu egizu tableta". Gurekin jolastu, sukaldatu, garbittu, zikindu... danetik egitteko prest darella! Berdin da zer egin, gurekin bada eta jolas eran egin ezker. Geuk seguru eurek baino hobeto pasauko dogula! Badago eguneko estresa pikutara bialtzeko modu hoberik, ala?



# 'Azkarate aldetik ilunabarra', ederrena

Antzuolako gai libreko 21. argazki lehiaketak badauzka irabazleak. Helduen mailan, hain justu ere, Pablo Bonillaren erretratua saritu dute. Gazteen mailan, aldiz, Uxue Iparragirreraren 'Jokularlon' argazkiak jaso du lehen saria.

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

*Azkarate aldetik ilunabarra* da epaimahaiaren ustez aurkeztu diren lanen artean ederrena. Pablo Bonillaren erretratua da. Lehen aldiz eskuratu du, gainera, sari nagusia (200 euro). Bigarren saria Sergio Morenok eskuratu du *Colorado Ibaia* argazkiari esker (150 euro). 19 urtetik gorako maila honetan 21 lan aurkeztu dira.

Gazteen mailan (13-18 urte), saria Uxue Iparragirreraren *Jokularlon* lanak jaso du (45 euro). Iparragirrek ere lehen aldiz irabazi du herriko argazki lehiaketa. Bigarren saria, ordea, hutsik, banatu gabe uztea erabaki du epaimahaiak (hiru lan aurkeztu dira soilik). Aipatu behar da haurren mailan inor ez dela aurkeztu.

"Orain arteko parte-hartze txikiena izan du edizio honek. Baloratu beharko dugu zer gertatu den, baina hausnarketa egin beharrean gaude. Besteetan baino jende gutxiago aurkeztu da eta. Datorren urterako zerbait aldatzea planteatu beharko genukeela uste dugu. Gaur egun hain erraz ateratzen ditugu argazkiak smartphoneak direla...; izan ere, kamera beti aldean daramagu. Eta noski, ume zein gazte jendea ez aurkeztu izanak



Argazki lehiaketako irabazlea: *Azkarate aldetik ilunabarra*. PABLO BONILLA

zer pentsatua eman digu. Horiek erakartzeko lehiaketaren orain arteko formatua aldatzea ere komenigarria dela uste dugu. Hala, teknologia eta aplikazio berriekin ateratako edo tratatutako formatu desberdineko lanak aurkezteko atal bat sortzea ere komenigarria dela uste dugu", azaldu du Kultura teknikari Jone Larrañagak.

Epaimahai lanetan Juanje Amasorrain eta Mari Paz Ugalde adituak ibili dira.

**Erakusketa bihar**

Argazki lehiaketara aurkeztutako lanak herritarren aurrean erakusgai jarriko dituzte datozen bi asteburuetan Olaran etxean.

Hala, azaroaren 26an eta 27an, 18:30etik 20:30era bitartean Olaranen izango dira herritarren lanok ikusgai; guztira, 24 erretratu eder.

Abenduko lehen asteburuan ere erakusketa bisitatzeko aukera izango dute antzuolarrek: abenduaren 3an eta 4an.

## Udaletxeko komunak datorren asterako prest egongo dira

Udaletxeko irisgarritasun lanen lehen fasea bukatutzat emango da komunen obra amaitu ostean. Dutxa eta bi komun izango ditu aurrerantzean udaletxeak. Komunak udal langileendako izango dira. Baina komun publikoak (lekua erabakitzeko dago) datorren urtean egin gura dituztela aurreratu du Beñardo Kortabarría alkateak.



Udaletxeko komunak. MAIDER ARREGI

## Elkarretaratzea eta film emanaldia gaur, azaroak 25

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna da gaur. Hala, elkarretaratzea egingo da Herriko Plazan, 19:30ean. Torresoan, film emanaldia 22:00etan: *Prohibido recordar*. Eta, Olaranen, Landatxoek antolatuta Bera Bonai Capote emakume ginearraren ipuin kontaketa saioa, 17:00etatik 18:00etara bitartean.

## Gaztaina erreak eta sagardoa dastatzeko aukera bihar, zapatua

Sasoi honetan, tradizioa da Herriko Plazan antzuolarrak batu eta gaztaina erreak jatea. Hala, bihar, arratsaldeko zazpietatik aurrera, udal zinegotziek gaztaina erreak eta sagardoa banatuko dituzte gerturatzen diren herritarren artean. Aurten, gainera, 100 kilo gaztaina erreko dituzte plazan. Giro ona bermatua dago, beraz.

## Aiherrara joango dira antzuolarrak bihar, zapatua

Lurra eta lursailak gazteei zela ematen zaizkien eta zenbait kasu gertutik ezagutzeko aukera izango dute Aiherrara joango diren antzuolarrek, bihar. Iker Elosegi Laborantza Ganbarako teknikariak hainbat argibide emango dizkie irteeran parte hartzen dutenei. Udalak, Deba Garaia LGEk, Aldundiak eta Hazi Fundazioak antolatu dute.

## Nagusien ipuinak, gertaerak, istorioak... batzen dihardute

*Nagusien memoria berreskuratzen* izeneko tailer didaktikoa eskaintzen dihardu Virginia Imazek Landatxoeko erretiratuekin elkarlanean. Nagusien bizipenak, gertaerak, ipuinak, anekdotak... konpartitu eta jasotzen, alegia. Hurrengo saioa baina, azaoraren 29koa bertan behera geratu da eta beste data bat laster jakinaraziko dute.

**DANOBATGROUP**

**HARTU PARTE DANOBATGROUPEN EUSKARAREN EGUNeko LEHIAKETAN!**

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi SMART WATCH bat!

\*Parte hartzeko epea 2016ko abenduaren 3an, gaueko 12etan itxiko da

Euskara aplean,  
erabifi lanean



[www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa.html](http://www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa.html)

# Elgetako ur zikinak Sesto errekarara doaz

Ura Agentziak 2007an hartu zuen saneamendu lanak egiteko konpromisoa, baina azken jakinarazpenaren arabera ez ditu 2021a baino lehen egingo. Udala kezkatuta dago erreka egoera oso txarrean dagoelako. Lanak bizkor egiteko eskatu du.

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Elgetako ur saneamendu lanak amaitu barik daude. Falta da Sesto errekatik Bergarako San Juan auzoan dagoen kolektore-rainoko kanalizazioa egitea, eta ardura hori Eusko Jaurlaritzaren Ura Agentziarena da. Udaletxean kezka sortu du jakiteak lan horiek ez direla 2021. urtera arte egingo, eta hori aurrekontuaren arabera. "Hainbat erakunde akordio batera iritsi ziren 2007an, baina Elgetako Udalaren esanetan Ura Agentziak ez ditu egokitu zitzaizkion lan guztiak egin. "Egoera horretan gaude Gipuzkoako zazpi herri", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. "Elgetaren kasua bereziki mingarria da ur fekalak eta industrialak, teorikoki, Sesto errekarara isurtzen direlako. Erreka hori, gero, beste batzuekin elkartzen da. Ingurumena kaltetzeaz gain, errekararen biodibertsitatea ere kaltetuta dago".

Lanak lehenbailehen egiteko eskatu dio Udalak Ura Agentziari. "2021 epe oso luzea da. 2021, gainera, gutxienera jota! Ziurrenik 2021a pasako da saneamendu lanak egin orduko". Lazkanok azaldu du jarraipena egingo diotela gaiari: "Hirutan izan gara Ura Agentziarekin harremanetan. Eskatu diegu



Iraitz Lazkano alkatea ur zikinak isurtzen diren Sesto errekararen ondoan. L.Z.

lanak lehenbailehen egiteko edo gutxienez noizko aurreikuspenak dituzten esateko. Gipuzkoako Urak Partzuergoan ere bagaude, eta gure ondoeza agertu dugu kezka berdina duten gainerako udal ordezkariekin batera. Ahalgin horretan jarraituko dugu".

## Ura Agentziaren erantzuna

Ura Agentziatik adierazi dute Elgetan hainbat proiektu daukela aurreikusita urak Mekoaldeko HUAra bideratzeko. "Egia da oraingoz lan horiek egiteko aurreikuspenak epe luzera di-

rela (...) Finantzaketa bi epetan zehaztuta dago: 2016-2021 eta 2022-2027. Beraz, aurreikuspenen arabera, 2021ra begiratu behar genuke Elgetako lanak gauzatzeko, betiere aurrekontuaren arabera".

## Lanak kantxa konpontzeko

"Proiektu handiago bat genuen kantxarako eta hiru diru laguntza eskatu genituen, baina hirutik bakarra jaso dugu eta segurtasuna bermatzeko gutxienera neurriak hartzea erabaki dugu", adierazi du alkateak. Hala, lurzoruak zituen pitzadurak estali, kroska arrisksuak kendu eta marra berriak margotuko dituzte. Saskibaloian jokatzeko bi saski berri ere ipiniko dituzte. Lanek 15.000 euroko aurrekontua dute, eta %25 finantzatuko du Foru Aldundiak.

## Indarkeria matxistei aurre egiteko

Gaur, azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta Udalak elkarretaratzea deitu du 19:00etarako. Puntu morea udaletxean dago ikusgai goizean goizetik, eta elgetarrek eskuragarri dituzte paparrean ipintzeko lazoak komertzioetan eta tabernetan. Arratsaldean globo moreen banaketa (18:00) eta elkarretaratze isila (19:00) egingo dituzte. Elgetako koruaren laguntzarekin bertso sorta abestuko dute, ondoren, herritarrek.

Gaztetxean emango diote jarraipena Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunari. Poesia saio musikatu egingo du 19:30ean Soroluzeko Mantazpitik taldeak, eta afaria egingo dute 21:30ean gaztetxean. Indarkeria matxista salatzea, gaia gizarteratzea eta herritarren artean kontzientzia piztea dituzte helburu ekintzok.

## Astebururako auzolan deia, mendi irteera eta dantzaldia

Elgeta eta Aixola arteko bide bazterrak garbitzeko frontoi parean egin dute hitzordua, bihar, 08:30ean

**L.Z. ELGETA**

Udalak auzolanerako dei egin du biharko, zapatua. Elgetatik Aixolarako bide bazterrak garbituko dituzte Urbedeinkaturainoko tartean. Hitzordua frontoi parean egin dute, 08:30erako.

Domekarako, berriz, mendi irteera antolatuta du Kantsatzeke Mendi Taldeak. Orixolera joango dira Aramaiotik abiatuta. Herrian bertan bisita gidatua egingo dute lubakietara, horretarako taldea osatzen bada. 10:00etan abiatuko dira Espaloian dagoen Memoria Historikoaren

Euskal Interpretazio Zentrotik. Iluntzerako, aldiz, dantzarako gonbidapena egin du Herrixa Dantzan ekimeneko Patxi Monterok. Azaroko dantzaldi saio irekia egingo du Espaloia kafe antzokian, 19:00etatik 20:30era. Taberna itxita egongo da.

## Ate irekiak, gaur, ludotekan

Gaur, berriz, ate irekiak dituzte ludoteka zerbitzuan, 16:30etik 19:00etara. Helburua da zerbitzua ezagutzera ematea bost urtetik gorako neska-mutikoei eta haien familiei.



NEREA VILLA

## Gonbidatu bereziak gaztelekuan

Zaletasun bereziak dituzte, eta domekan horien aurkezpena egin zuten hogei bat gaztetxoren aurrean. Izar Irazabalek *manga* marrazkiak izan zituen hizketarako gai, eta Aitzol Oartzabalek eta Iratxe Bravok *Krav maga* arte martziala eta gezi-jaurtiketa. Abenduaren 11n lanbideen txanda izango da. Ate irekiak egingo dituzte, orduan ere, gaztelekuan.

## PILOTA TXAPELKETA

### EMAITZAK - 5. JARDUNALDIA

I. Ugarteburu - S. Bouzas /	
A. Telleria - A. Ibarluzea	<b>14-18</b>
O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta /	
D. Cantabrana - T. de Vega	<b>10-18</b>
E. Ormaetxea - A. Valle /	
E. Garate - E. Maguregi	<b>13-18</b>
J. Mañarikua - B. Arabaolaza /	
M. Beretxinaga -	
I. Unzetabarrenetxea	<b>12-18</b>

### PARTIDUAK, 6. JARDUNALDIA

<b>GAUR, BARIKUA, 18:30EAN</b>
J. M. Zubiaurre - Pello Larrea /
A. Telleria - A. Ibarluzea
O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta /
E. Garate - E. Maguregi
J. Mañarikua - B. Arabaolaza /
A. Elorza - O. Sarasua
D. Cantabrana - T. de Vega / M.
Beretxinaga - I. Unzetabarrenetxea



Puntu morea da azaroaren 25 eguna irudikatzen duen ikurra. O.E.

# Kolore asko indarkeria sexistari ezetz esateko

Sare feministak deituta elkarretaratzea egingo dute gaur 18:30ean Foruen plazan eta 22:30ean neskek antzetzutako 'El florido pensil' antzerkia egongo da Santa Anan. Bihar koloretako murala egingo dute Gorritxitxiko tunelean 10:30etik aurrera

## Oihana Elortza OÑATI

Azaroaren 25a da gaur, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, eta udalak dei egin du aurten ere puntu morea jartzeko herriko etxebizitza, ikastetxe, lantegi eta komertzioetan, ikur horrekin indarkeria matxisten kontrako jarrera adierazteko.

## Beltzez

Moreaz gain, baina, kolore beltza ere erabiliko da gaur Oñatin. Sare feministak, adibidez, elkarretaratzea egingo du. 18:30ean izango da, Foruen plazan dagoen kioskoaren aurrean, eta "2016an biolentzia matxistak erail dituen emakumeen oroimenez" egingo dute. Horregatik, elkarretaratzea beltzez edo arropa ilunekin joateko dei egin du herriko sare feministak.

Gaurko antolatu den beste ekitaldi bat neskek antzetzutako *El florido pensil* antzerkia da. Santa Anan izango da, 22:30ean, eta sarrera gutxi gelditzen dira.

Internet bidez sal daitezkeen guztiak salduta daude dagoeneko eta 30 bat besterik ez da egongo gaur leihatilan. Sarrera 10 euro da.

## Kolorez

Bihar, berriz, koloretako mural erraldoia egingo dute Errekalde eta San Lorentzo auzoak lotzen dituen Gorritxitxi tunelean.

Muralean emakumeak agertuko dira eta mezu hau irakurriko da: *Libria izan gura dot, ez balientia*. Herriko emakume taldeekin batera adostu zuten nolako murala egin, Ainara Azpiazu *Axpi*-rekin batera. Hura izango da zapatuko lana koordinatuko duena. "Diseinua eta leloa erabakita daude eta horrekin egin dut nik eredia, txan-

**ELKARRETARATZERA  
BELTZEZ JANTZITA  
JOATEKO DEI EGIN DU  
OÑATIKO SARE  
FEMINISTAK**

tiloia. Zazpi metro luzeran eta 2,5 metro alturan izango ditu. Herritarrekin batera egingo dugu eta askeak izango dira lanerako, baina muga batzuk ere egongo dira. Estetikoki koherente samarra izan behar du muralak eta nik izango dut horren ardurara", azaldu du Ainara Azpiazuk.

Egun osoko lana izango da biharko hori. "10:30ean elkartuko gara Gorritxitxin eta antolaketan egin ostean hasiko gara lanean. Nire asmoa da goizean egitea lanik handiena eta arratsalderako detaileak eta mezua uztea. 18:00ak aurretik bukatu gurako nuke, tunelean argia izan arren hotza ere egingo du eta", zehaztu du *Axpi*-k. Pinturak eta brotxak berak eramango ditu eta herritarrei gomendatu die zikintzeko moduko arropekin eta oinetakoekin joateko.

Oñatin indarkeria matxistak duen argazkiaren diagnostia ere egin du udalak eta horren berri gaurko *Puntua* aldizkariak dakar.

## Abenduaren 5erako apaingura egongo dira erakusleihoak

Gabonei begira antolatutako erakusleho lehiaketa zabalik dago. Joan den urtean bezala, erakuslehoetan herriko mone-ta sozialari erreferentzia egitea bereziki sarituko da; 500 txantxiko saria emango zaio erakuslehoan txantxia ondoen nabarmentzen duen dendari. Epaimahaia erakuslehoen konposizioa, argiztapena, koloreak eta

originaltasuna baloratuko ditu eta horiek kontuan hartuta bost sari emango ditu. Zazpigarren saria herritarren botoen arabera emango dute. *Kontzejupetik* aldizkarian izango den txartela betez edo Internet bidez parte hartu ahal izango da zozketa horretan. 4.700 txantxi emango ditu udalak saritan.

Komertzioen erakuslehoak abenduaren 5etik 31ra egongo dira apaingura. Sari banaketa abenduaren 17an egingo dute osoko bilkuren aretoan, 13:30ean.

## Herri curriculum lantzeko teknikaria behar du Topaguneak

Herri curriculumaren helburua da belaunaldiz belaunaldi Oñatiko historiaren eta ondarearen transmisioa egitea, horretarako adin ezberdinetara egokitutako material didaktikoa landuz, eta Topaguneak lan hori egingo duen teknikari bat kontratatu gura du. Teknikari horrek Lehen Hezkuntzarako ikas materiala sortu

beharko du, ikasturte bakoitzeko ikas unitate bat eginda. Aldi berean, proiektua sozializatu beharko du, programan parte hartuko duten herritarrekin harremanak izanez eta lanen koordinazio eta jarraipena eginez. Programari dagozkion txosten, memoria eta gainerako bildumak ere osatu beharko ditu. Bi urteko kontratua izango da, lanaldi erdian, eta izena abenduaren 7a aurretik eman behar da hemen: [kudeaketa@topagunea.org](mailto:kudeaketa@topagunea.org).

## Arropen azoka ohiko tokian egingo da aurrerantzean

Gernikako arbolaren osasun egoera ona dela jaso du azterketa egiten ibili den Gabriel Iguñiz adituak bere txostenean. Hilda zeuden arrama txiki batzuk eta pisua ere kendu diote haritzari, baina zuhaitzaren arrama nagusiak bizirik eta egoera onean daudela egiaztatu du Iguñizek. Beraz, arropen azoka ohiko tokian egingo da berriz.

## Jostailuak batzen hasiko dira Txalokan, truke azokarako

Jostailuen truke azoka egingo dute Txaloka ludotekan abenduaren 17an eta materiala biltzen hasiko dira datorren astean. Azaroaren 28an, abenduaren 5ean eta 12an egongo dira Txalokako egoitzan jostailuak biltzen. Ludoteka zabalik egongo den tartean eraman ahal izango dira trukeerako jostailuak, 16:45etik 19:45era.

AINHOA LEGARISTI LIZARRA  
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA  
**ARKITEKTOAK**

*Era guztietako proiektu arkitektonikoak*

*Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe*

Lazarraga Kalea 3, behea  
20560 Oñati (Gipuzkoa)

661 09 35 00  
645 70 17 52

BULEGOKO  
ORDUTEGIA:

Astelehena  
Osteguna  
Ostirala  
09:00-13:00

Asteartea  
Asteazkena  
15:00-19:00



Argazkian ume bat, *Euskaraz bizi nahi dut* aldarrikatzen duen kamisetarekin. GOIENA

## 'Lipdub' erraldoia egingo dute euskararen alde

Euskararen Egunaren –abenduaren 3a– bueltan antolatu diren ekintzen artean, herriko hiru ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek parte hartuko duten ekintza hori izango da berritasun nagusia; 800 ikasle inguru izango dira guztira

**Eneko Azurmendi** OÑATI

Urtero moduan, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte herriko ikastetxeek. Aurten abenduaren 3a zapatua da eta egun bat lehenago ospatuko dute, abenduaren 2an –egubakoitza–.

Berrikuntza nagusia, esan bezala, hiru ikastetxeetako –Elkar Hezi, Txantxiku Ikastola eta Urgain– Lehen Hezkuntzako ikasleek egingo duten *lipdub* erraldoia izango da. Urkoren *Guk euskaraz* abestiarekin osatuko dute –originala eta Xaramela taldearen bertsioa–.

**Maila bakoitzak 20 segundo**

Ikastetxe bakoitzeko maila bakoitzak 20 segundoko tartea izango du *lipdub*-ean. "Hainbat koordinazio bilera egin ditugu, ikastetxe eta maila bakoitzak egin behar duen tartea zehazteko", adierazi du Iñaki Akizuk, Udaleko Euskara teknikariak. Gaineratu du ikastetxe bakoitzak erabakiko duela nola jorratu

dagokion tartea –mozorroa, ko-reografia, eta abar nola egin–.

Goizean zehar pare bat entsegu egingo dituzte eta grabaketa 15:00etan izango da. Hala ere, entseguak izan arren, grabatu egingo dituzte, eta, ondo eginez gero, balekoak izan daitezke.

Eguraldi txarra eginez gero, beste egun baterako utziko dute grabaketa.

**Ibilbidea**

Honako hau izango da ibilbidea: San Juan kalean hasi, Santa Ana antzoki aurretik igaro eta Gernikako arbola ondotik pasa ondoren, udaletxeare bi buelta emango dizkiote. Azkenik, udaletxean sartu eta eskailetatik balkoira joango dira, plazako ikuspegi orokor batekin amaitzeko, guztiak elkarrekin.

### Astean egongo diren ekintzak

**Azaroaren 30a, eguaztena**

- **19:00etan.** Afari-tertua Makalena elkartearen. Jone Miren Hernandez ikerlari eta EHUKO irakaslearekin.

**Abenduaren 2a, egubakoitza**

- **12:00etan.** Antzerki-solasaldia. *Murua* antzerkia Batxilergoko ikasleentzat, Santa Anan. Ondoren, solasaldi irekia aktoreekin.
- **15:00etan.** *Lipdub* erraldoia, Lehen Hezkuntzako ikasleek.
- **16:30ean.** Gauargi taldea, plazan.
- **18:00etan.** *Familixan* kantu saioa. Euskal kantuak abestuko dira familia giroan, kontzejupean. Txokolata eta euskararen aldeko mezua duten bizkotxoak salduko dituzte.

NIRE USTEZ

AMAIA MADINA

### Azaroa

Nire estimu txikienaz gozatzen duen hilabetea da urtero. Iluntasunez jantzen duen ordu aldaketarekin hasten da, tregua egunik gabeko ibilbideari hasiera ematen dion jaiegunarekin. Hotzari ateak ireki eta kaleak biziak motelagoak eta biluziagoak ikusten ohitu izan behar gara...

Jai giroa eta kanpoko jarduera asko atzean gelditzen dira eta aurten, gainera, Trump-en hautaketa munduko gizon boteretsuena legez irentsi behar dugu.

Emakume bezala, ahalegin handiz lortutako bide batean, atzerapausotzat hartu dut. Gutaz esan dituenak eta bere ondokoak kreditu txartelaren fruitua direla ikusteak sentimendu atsekabegarria dakarkit.

Naturak oparitu digun ilargi zoragarriak ere ez du lortu nire gogo-aldartea altxatzerik. Ez dut hilabete honen irudi iluna azpimarratu nahi, baina gurako nuke munduan gertatzen ari denaren gogoetara gonbidatzea, ez dezagun burua altxatu eta gizateriaren lotsarekin aurrez aurre topo egin!

### Parrokiako Abesbatza, Oñatz eta Oñatiko Udal Banda, elkarrekin

Santa Zezilia eguna dela-eta Santa Ana antzokian izango den emanaldian elkarrekin arituko dira hiruk

**E.A. OÑATI**

Santa Zezilia egunarekin lotuta, urtero moduan, Oñatiko Udal Bandak eta Parrokiako abesbatzak kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 12:45ean. Aurten, gainera, Oñatz dantza taldearen laguntza ere izango dute, berrikuntza modura.

Bi obra estreinatuko dira. Batetik, *Vals Euskalduna*, Francisco Esnal abadeak pianorako konposatutakoa eta Iñaxio Ibarrondo Udal Bandako zuzenda-

riak bandara egokitutakoa. Bestetik, *Santa Ageda* obra, zenbait dantzarekin osatuko dena. "Ego-kia iruditu zitzaidan lan hau dantza batzuekin osatzea. Beraz, Oñatz dantza taldeari proposatu nion eta baiezkoa jaso nuen", adierazi du Ibarrondok.

Beraz, azken obra horretan, banda, abesbatza eta dantza elkartuko dira. "Zortziko bat, fandango bat, arin-arin bat eta kalejira bat" egingo dituztela adierazi du Iñigo Murgiondok, Oñatz dantza taldeko kideak.

### Bibotedunen talde argazkia aterako dute bihar iluntzean

*Movember* mugimenduarekin bat egin eta bibotea utzi dutenek bihar, zapatua, aterako dute talde argazkia. 20:30ean izango da, Foruen plazan. Gero, afaria egingo dute. Herriko ile-apaindegi eta tabernetan jarri dituzten itsulapikoetan batutako dirua prostata eta barrabiletako minbiziaren ikerkuntzara bideratuko da aurten ere.

### Bigarren eskuko azoka egingo dute abenduaren 3an

Arropa, liburu, musika, jostailu eta bestelako objektuen azoka egingo dute abenduaren 3an. *Flea market* izena du ekimenak eta bigarren eskuko objektuak saldu edo trukatu dira. Nork bereak kudeatuko ditu, egoki deritzon prezioa jarrita. Parte hartzeko bidea: [fleamarket.oñati@gmail.com](mailto:fleamarket.oñati@gmail.com). Astelehena da izena emateko azken eguna.

# Lehen garaipenaren bila, irribarrea galdu gabe

Emakumezkoen Euskadiko senior mailako azkenengo postuan dago Iturritxo Taberna Aloña Mendi, partidurik irabazi gabe; hala ere, azken partiduetan gorakada nabarmena erakutsi dute jokoan eta sinetsita daude egoerari buelta emango diotela

## Eneko Azurmendi OÑATI

Ez zuen denboraldi hasiera samurra izan Iturritxo Taberna Aloña Mendik. "Urriari hasi genuen denboraldia eta irail erdi inguruan jokatzeko moduan zeuden bederatzik jokalarik geunden taldean. Gainera, entrenzailerik ere ez genuen", adierazi du orain entrenatzailea den Ixone Lizarrak. Izan ere, hark ere ez zeukan garbi zer egin. "Hasieran, lesionatuta egon arren, sendatutakoan jokalarik moduan aritzea zen nire asmoa. Hala ere, entrenzailerik ez zegoela ikustean, ardura hori nire gain hartzea erabaki nuen", adierazi du Lizarrak.



Emaitez ez lagundu arren, baikor dira oñatiarrak. ITURRITXO TABERNA ALOÑA MENDI

Esan moduan, egoera ez zen erraza. "Denboraldi-aurrea ez genuen behar bezala egin, berandu ibili ginen. Hala ere, taldea ateratzeko moduan geunden eta aurrera egitea erabaki genuen", azpimarratu du Lizarrak.

## Hasieran, lehiatu ezinik

Baja garrantzitsuak izan ditu taldeak. Iaz maila onean aritu ziren zenbait jokalarik atzerria daude eta beste batzuk, berriz, lesionatuta. Horrez gain, talde berria da, jende gazte askorekin. "Taldea egin gabe zegoen hasieran, asko kostatzen zitzaigun ondo jokatzeko. Lehenengo partiduetan lehiatu ere ez genuen egiten, egoera ez zen erraza", zehaztu du entrenatzailea.

## Entrenamenduetan, jende gutxi

Gaur egun, hamalau jokalarik osatzen dute taldea. Horieta asko, ordea, kanpoan ari dira ikasten eta egubakoitzetako entrenamenduetan bakarrik entrenatzen dira. "Asteazkenean zehar jubenilekin entrenatu behar izaten dugu, jokalarik gutxi daude eta. Asteazkenean bakarrik entrenamendu bakarra -egubakoitzeko- egiten

du talde guztiak elkarrekin eta horrek ere eragin handia du", zehaztu du entrenatzailea.

## Pixkanaka, goraka

Egoera zailean badaude ere, azken partiduetan beste itxura bat ematen ari dira eta pixkanaka hobierantz egiten hasi da taldea. Partidurik irabazi gabe segitzen duten arren, joko aldeetik asko hobetu dute oñatiarrak. "Orain, behintzat, taldeak partiduetan lehiatu egiten ditu eta itxura ona ematen ari gara azken partiduetan, nahiz eta emaitzek ez diguten laguntzen", dio Lizarrak, baikor.

## Konfiantza osoz

Jokalariek zein entrenatzailea konbentzitu daude egoerari buelta emango diotela. "Azken partiduetan hartu dugun dinamika honetan segitzen badugu, ziur nago emaitzak etorriko direla. Lehiatzeko moduko taldea daukagu eta konfiantzaz beteta gaude", dio Lizarrak.

Aldaketarako bidean, Aiala ZKE taldea hartuko dute etxean oñatiarrak, bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian, 17:30ean.

## berria denda

### Osatu Gabonetako saskia Euskal Herriko produktuekin

<p><b>SOLAGÜEN ARDOAK</b> SOLAGÜEN</p> <p>LABASTIDA 1786 2011 65€ 6 botailako kutxa</p> <p>2014. urteko ardo ONDUA 74€ 12 botailako kutxa</p>	<p><b>URDETXE</b></p> <p>BASATXERRI BESO ONDUA (PALETA) 65€ Paleta</p> <p>URDETXE PATE SORTA 15€ pate sorta</p>	<p>2017 AGENDA Eguneko ikuspegia 13€ bl 11€</p> <p>REMELLURI ARDOAK 2009. urteko ERRESERBAko ardoa 50€ 3 botailako kutxa 92€ 6 botailako kutxa</p>	<p>MAHALA SORTA </p> <p>34€ Saskia</p> <p>2017 AGENDA Asteko ikuspegia 14€ bl 12€</p> <p>EUSKARA IRABAZTEKO BIDEAN</p> <p>ALEKA bilduma 16,50€ bl 14,50€</p>
---	---	--	--

## Osatu zure saskia!

Eskariak egiteko, jarri gurekin harremanetan **abenduaren 2a baino lehen.** Abenduaren erdialdean banatuko dira. (0034) 943-30 43 45 • [berria.eus/berrialaguna/denda/](http://berria.eus/berrialaguna/denda/)

Bidalketa gastuak **DOAN**



Arantzabalek, Askasibarrek, Bengoak eta Aiastuik oroigarriak jaso zituzten gaur egun Lokatzako erreferente diren Lizarralderen, Aristiren, Irizarren eta Etxabe anaien eskutik. IMANOL SORIANO

**Xabier Urzelai** BERGARA

Joan den zapatuan egindako Lokatzaren 40. urteurreneko bazkariak askorako eman zuen: "Pentsa, 14:30ean hasi ginen bazkaltzen, eta 19:30ean han ginen oraindik", dio Migel Bengoak. Ziklismoaz berba egiteko eguna izan zen, egungo eta garai bateko protagonistekin. Hala, bazkarian omenaldia jaso zuten Jesus Arantzabalen (Bergara, 1939), Migel Bengoaren (1947, Bergara), Santi Aiasturen (Antzuola, 1949) eta Jose Inazio Askasibarren (Elgeta, 1943) eskutik duela 40 urte pasatxoko bizikleta gainera igo da GOIENA, pedal zaharreko larruzko lokarria ondo lotu, kaskoa beharrean bisera jantzi, eta memorian atzera egiteko. Bailara honetako txirrindularitzaren historia bizi dira.

**Denak profesionalak**

Joan bedi aurretik lau protagonistak ez direla sasoi hartako Debagoieneko ziklista bakarrak. Afizionatuetan hainbat ibili ziren, Marulandako *Matxain*, Esperazate, Agirregabiria edota Arroiabe, beste batzuen artean. Eta, Guenetxea eskoriatzarra profesional mailara ere iritsi zen -Pinturas Ega taldean-, nahiz eta gazte utzi zuen ziklismoa.

Gaurko lau protagonistek, berriz, 70eko hamarkada hasiera bizi izan zuten bizikleta gainean; bai, behintzat, profesional moduan. Denak ez dira adin berekoak, Jesus Arantzabalen eta

# Bost koroako bizikleten arora

**ZIKLISMOA** 70eko hamarkadan txirrindularitza profesionalera iritsi ziren lau debagoiendar omendu zituzten zapatuan Bergaran, Lokatzaren urteurren bazkarian. Kas, Fagor eta Ferrys taldeen sasoi zen, bost koroako bizikleten sasoi

Santi Aiasturen artean 10 urteko aldea dago, baina Askasibar eta Migel Bengoa beste biek lehiatu ziren.

Jesus Arantzabal da guztietan beterranoena, eta baita palmares ikusgarriena duena ere. Vueltan bost alditan, Tourrean izan zen hirutan -1967an bigarren sailkatu zen bigarren etapan- eta, besteak beste, Eddy Merckx (Molteni), Raymond Poulidor (Gan - Mercier - Hutchinson) edota Lucien Van Impe (Sonolor) moduko ziklistekin indarrak neurtu zituen 1971n. Euskal Herriko Itzulian etapa bat irabazi

**"LEHEN, IRABAZLEAK EGITEN ZUENA EGITEN SAIAZTEN GINEN, EZ GENEKIEN ZELAN ENTRENATU ONDO"**

zuen, eta gutxiatik ez zuen Itzulia poltsikoratu: "Ihesaldian aurrera joaten utzi zidaten, eta konturatu zirenerako abantaila polita hartu nuen. Eibarko etapa irabazi nuen, baina 40 segundogatik ez nuen sailkapen orokorra irabazi". Halakoak ez dira ahazten.

**Prestakuntzan dago aldea**

Ziklista beterranoak ohituta dade kazetarion partetik betiko galderei erantzutera, lau hamarkadatan zertan aldatu den ziklismoa: "Prestakuntzan, batez ere", dio Aiastuik: "Lehen ez genuen jakiten zergatik hilabete batzuetan indartsu egoten ginen, eta beste batzuetan ez. Orain odol tanta batekin medikuak informazio osoa du, eta hori abantaila handia da, bada kitelako zelan eta noiz entrenatu". Eta Arantzabalek gehitu du:

"Lehen, lasterketako irabazlea azken hilabeteotan zertan ibili den galdezka ibiltzen ginen, sasoi betean egoteko hark egindakoa errepikatzeke. Gainera, elikadura bestelakoa zen, guk okela asko jaten genuen, eta gaur egun ia probatu ere ez dute egiten".

Egun ziklistek daramaten prestakuntzaren gaineko eguneko informazioa izaten dute, eta gaixotasun baten aurrean medikuak lehenago antzematen du arazoa non egon daitekeen. 1967an Bengoak gogorarazi du gauzak bestelakoak zirela: "Urte

**"BOST KOROAKO PINOIEKIN, MENDATE ASKOKO ETAPETAN GURPILA ALDATZEN GENUEN"**

hartan gripea harrapatu eta bi urte ibili nintzen gaixotasunarekin bueltaka. Ez neukan garbi zer neukan, eta analisiak eginda medikuak zera idatzi zuen oharrean: *Motor ona dauka, baina gasolina pobrea*.

**Elorrioren gora ihes eginda**

Askasibar elgetarrak ere badu anekdota polit bat, berak ere ondo gogoan du orduko herriko medikua: "Lehen, baserrian jaiotzen ginen, eta nire jaiotzan presente izan zen medikua ziklismo-zalea zen, gertutik jarraitzen ninduen. 1965ean Munduko Txapelketa Donostian antolatuta zuten -Lasarten- eta urte hartan amateur mailan nengoela medikuekin elkartu nintzen kalean. Bizikleta gainean zer moduz nenbilen galdetu eta erantzun nion ez nenbilela gura bezain ondo. Hori entzunda, hurrengo lasterketa noiz nuen galdetu zidan, ikustera joan gura zuelako. Hala, lasterketa egunean han zegoen, irteera puntuan, eta, antza, ez ninduen ondo ikusi. Urduri nengoela esan zidan, horrela ezin nuela nire onena eman, eta kontsultara joateko agindu zidan, ondo ez ibiltzearen arrazoiak nerbioak zirelako".

Eta, kontsultan medikuak lasaigarriak eman zizkion, hilabete hartzeko: "Bada, zazpi kilo hartu nituen, uztailetik abuztura bitartean, eta urduritzen hasi nintzen, ezin nuelako horrenbesteko pisurik hartu. Baina indarra irabazi nuen, lo

ere hobeto egiten nuelako. Hala, abuztu erdialdea zen eta herriko jaietan, Elgetan, lasterketa genekuan. Irailean Munduko Txapelketa Donostian zenez, kanpotar asko etorri ziren Elgetara lehiatzera: ziklista holandarrak, frantziarrak... Bada, lasterketan indartsu sentitu eta helmugara iristeko 60 kilometro falta zirenean ihes egin nuen, eta Elorrion 40 segundoko abantaila neukan".

Ordurako *Matxain* zuzendaria sinistu ezinda zebilen, eta urduritzen hasita: "Taldekideei agindu zien tubularrak bizkarretik kendu -arinago joateko- eta Elorriotik Elgetara bitartean ni harrapatzeko. Baina, Elgetako helmugara bi minutuko abantailarekin iritsi eta lasterketa irabazi nuen [Barre]. Gogoan dut selekzioko hautatzailea etorri zitzaidala galdezka ea ur botilatxoan zer neraman, eta nik erantzun kafea zela, besterik ez, eta gura bazuen eraman zezala botilatxoa". Bada, munduko txapelketan parte hartu ez, baina erreserba moduan aukeratu zuten Askasibar.

Horiek gertuko mediku bat izatearen abantailak ziren, gai-

xotasunak garaiz antzematen zituztenak. Gero, medikuntza aurrerapenekin, ziklismoak urte batzuetan bizi izandako garai ilunak etorri ziren: "Presio larregi izatearen ondorioa da. Babesleak, diru eta interesak jokoan... Halakoetan, ziklistak hartu behar ez diren erabakiak hartzen ditu", dio Aiastuik.

#### Bost koroako bizikletarekin

Lau ziklistak bat datoz esatean materialean ere iraultza egon dela: "Niretako, alde handiena pedalean egon da; lehen, lokarriekin lotzen genuen oina pedaleran, eta, erorikoa izanez gero, arriskutsua zen. Orain, automatikoekin, erraz askatzen dira", dio Aiastuik. Baina aldaketa gehiago izan da, Arantzabalek ondo dioen moduan: "Batetik, garapenen aldagailua koadroan izaten genuen guk, eta eskuak eskulekutik askatu behar izaten genituen. Orain, askoz erosoagoa da dena. Gainera, bizikletek hamar edo hamaika koroako pinoiak izaten dituzte, gu bostekin ibiltzen ginen. Eta malda handiko etapetan, gurpila aldatzera".

## Omendutako lau ziklistak



**JESUS ARANTZABAL**

- 1964 eta 1972. urte artean izan zen profesionala.
- Inuri, GAC-Mobylette, Fagor eta Bic taldeetan lehiatu zen.
- Tourreko hiru ediziotan hartu zuen esku.
- Garaipen asko lortu zituen; tartean, 1972an Espainiako Vueltako etapa bat irabazi zuen.



**JOSE INAZIO ASKASIBAR**

- Anaiak Eibarren erositako bizikletarekin hasi zen.
- 1965-1971 urte bitartean lehiatu zen Mobylette GAC, Fagor, La Casera-Peña Bahamontes eta Futebol Clube do Porto (Portugal) taldeetan.
- 1969an GP Bizkaia lasterketa irabazi zuen, Bilbon.



**SANTIAGO AIASTUI**

- Bi urte egin zituen profesional moduan, Kas-Kaskol taldean (1973-1974).
- Amateur mailan Gipuzkoako erlojupekoko txapeldun izan zen bi urtez (1970-1972).
- 1970ean Espainiako taldekako erlojupekoan bigarren izan zen.



**JOSE MIGEL BENGEO**

- Bi urte egin zituen profesional moduan (1972-1973) Kas-Kaskol taldean.
- Amateur mailan sei lasterketa irabazi zituen (1969).
- 1973an Errioxako Itzuliko bigarren etapa irabazi zuen.
- 1971n Espainiako errepide Txapelketan laugarren.

# "Kantxa barruan lagun izateari utziko diogu"

**ARETO FUTBOLA** Zapatuan Euskadiko Txapelketan Aretxabaleta-UDAK Eskoriatza hartuko du. Aretxabaletarrak bigarren postuan iritsi dira derbira, eta Eskoriatzak premia handiagoak ditu, joan den astean etxean galdu ostean

#### Xabier Urzelai ARETXABALETA

Joan den domekan, Scaliburren kontra partidua irabazteko mehezimenduak egin eta esku hutsik geratu ostean, Eskoriatza koen partidu osteko aurpegiek dena esaten zuten. Aratz Kortazarri *Harmailatik* saiorako hartutako adierazpenek ezintasuna erakusten zuten, baina oraingo zapatuko derbiaren gainean galdezkerakoan ezin izan zion irribarreaki eutsi: "Aste barruan ondo prestatuko dugu partidua. Motibazio handiarekin joango gara Aretxabaletara, hil ala biziko partidua izango da guretako, eta derbi oso polita bai ikusteko, eta baita jokatzeko ere. Halako partidua ederrak izaten dira, baina irabazi egin behar dira".

#### Aretxabaleta-UDA, oso ondo

Aretxabaletako taldeko ordezkari Oier Urrutiak garbi dauka Eskoriatza intentsitatez jokatzera etorriko dela: "Puntuak behar



Iaz Ibarren jokaturako partiduko une bat. IMANOL SORIANO

dituzte, galtzen badute atzaldeko postuetan gehiago murgilduko direlako. Guk ez dugu puntu premia hori, baina partidua irabazteko euren intentsitatea, gutxienez, berdindu egin behar dugu. Izan ere, derbiak derbi dira, ez du ardura bigarren postuan edo zortzigarren postuan egon".

#### Derbi 'beroak' orain artekoak

Iazko bi norgehiagokak, Eskoriatzan eta Aretxabaletan, *beroak* izan ziren: "Lehia handia dago gure artean, baita harmailetan ere. Lagunak gara denak, gertukoak, partidua hasten den arte. Hor, kantxan, lagun izateari uzten diogu". Norgehiagoka 17:30ean hasiko dute.

## FUTBOLA Lider dagoen Anaitasuna hartuko du UDAk domekan

Ohorezko erregional mailan hirugarren dagoen UDAK lideraren bisita izango du domekan (16:30). Aretxabaletakoekin batera Mondrak eta Aloña Mendik ere etxean jokatu dute. Arrasatearrei trabatu egin zaie azaroa, azken hiru partidua galdu egin dituzte, eta bihar (16:30) Hondarribiaren kontra gura dute hilabetea zapo hobearekin amaitu. Oñatierrek, berriz, joan den astean irabazi ostean, beheko postuetan kontrario zuzena den Ostadar hartuko dute etzi (16:30).

Erregional preferentean, Bergarak bigarren postura egin du salto, eta bihar (17:30) Azpeitian jokatu dute.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

**Mondra-Hondarribia**  
Zapatua. 16:30. Mojategi.  
**UDA-Anaitasuna**  
Domeka. 16:00. Ibarra.  
**Aloña Mendi-Ostadar**  
Domeka. 16:30. Azkoaga.

E. PREFERENTEA

**Ilintxa-Mondra**  
Domeka. 16:15. Legazpi.  
**Getariako-Aretxabalet.**  
Domekan. 17:30. Orio.  
**Lagun Onak-Bergara**  
Zapatua. 17:30. Azpeitia.

EMAKUMEZKOAK

**Mutriku-Arizmendi**  
Zapatua. 15:45. San Migel.  
**Ilintxa-Bergara**  
Zapatua. 16:30. Legazpi.  
**Amaikak Bat-Mondra**  
Zapatua. 18:30. Deba.

### ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

**Aretx. UDA-Eskoriatza**  
Zapatua. 17:30. Ibarra.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Euskalduna-Mondrate**  
Zapatua. 19:15. Andoain.

SASKIBALOA

EBA

**MU-Valladolid**  
Zapatua. 17:30. Santand.

EUSKADIKO BIG. MAI.

**Aloña Mendi-Hotel Bil.**  
Domeka. 11:45. Zubikoa.

SENIORRAK EMAKUM.

**Luberri-Eskoriatza**  
Zapatua. 20:00. Donostia.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKETA  
**Hondarribia-Izarraitz M**

Domeka. 12:00. Hondarr.

**Corazonistas-Ford Mu.**  
Zapatua. 18:30. Gasteiz.

EUSKADIK. T. NESKAK

**Iturrizto Aloña-Aiala**  
Zapatua. 19:30. Portuga.

GIPUZKOAKO TXAPELK

**Soraluce BKE-Egia**  
Zapatua. 16:00. Labegar.

PILOTA

**Aretxabaletan**  
Egubakoitza. 19:00etan.

**Oñatin**  
Egubakoitza. 19:00etan.  
Zapatua. 17:45ean.

**Bergaran**  
Egubakoitza. 19:15ean.

**Arrasaten**  
Egubakoitza. 20:30ean.



Iazko irabazle Iker Belintxon eta Maider Aginaga lezoarrak garaikurra jaso ostean dantzan. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

## Domekan dantza askatu txapelketa+ Bergaran

Gazte mailako Euskal Herriko txapelketa jokoan da eta hamasei urtetik beherako hemeretzi bikotek eman dute izena. Guztiak dira gipuzkoarrak. Txapelketa 12:00etan hasiko da udal pilotalekuan, eta sarrera doan izango da

### Larraitz Zeberio BERGARA

Bergarako Musika Eskolak antolatu du Euskal Herriko 39. dantza askatu txapelketa Bergarako Udalaren laguntzarekin. Bertan, 16 urtetik beherako hemeretzi bikotek hartuko dute parte, guztiak gipuzkoarrak.

Txapelketa honetan ez da Debagoieneko ordezkariarik izango. Bergarako Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo nagusien kategoriara pasa dira aurten. Lehiakideen artean izango dira, hori bai, iazko irabazle Iker Belintxon eta Maider Aginaga, lezokoak biak.

Euskal Dantzarien Biltzarrak izendatutako lau kidek osatuko dute epaimahaia, eta baloratuko dituzte gerritik beherako zein gerritik gorako mugimenduen trebezia eta kalitate teknikoa, bikotearen estiloa eta konplizitate, eta doinuaren eta erritmoaren interpretazioa. Estanga anai-arreba soinu-joleek joko dituzte dantzarako fandangoa eta arin-arina. Sari nagusia —ga-

raikurra eta 180 euro— Bergarako Udalaren eskutik jasoko

dute txapeldunek. Jantzi egokienak ere saria izango du.

### Txapelketako bikoteak

- Ekain Uzkudun - Laura Bastida (Azpeitia).
- Iker Sarasua - Enara Arrizabalaga (Azkoitia-Azpeitia).
- Eneko Sarasua - June Elorza (Azkoitia-Azpeitia).
- Unax Labaka - Ekiñe Uzkudun (Errezil)
- Julen Labaka - Janire Labaka (Errezil).
- Anaitz Lizartza - Itziar Bastida (Azpeitia).
- Aner Kerejeta - Nagore Kerejeta (Azpeitia).
- German Aranburu - Elaia Elorza (Azpeitia).
- Leire Eizmendi - Maider Arrieta (Errezil-Azpeitia).
- Iker Belintxon - Maider Aginaga (Lezo). —iazko irabazleak—
- Danel Serrano - Irati Saizar (Lezo).
- Aritz Maiza - Maddi Bengoetxea (Alegia-Lizartza).
- Unai Balerdi - Emeren Irurzun (Hernani-Villabona).
- Gorka Duran - Maitane Irurzun (Villabona).
- Ugaitz Ribera - Maren Galbez (Lezo).
- Endika Osa - Olatz Azkue (Lezo).
- Urko Puy - Ane Jaunarena (Pasai Donibane-Lezo).
- Mikel Esnaola - Ane Anuariz (Lezo).
- Danele Atxukarro - Maitane Aierbe (Hondarribia).

## Abenduaren 16ra arte proposa daitezke Laburbirarako lanak

Euskarazkoak, fikziozkoak, 2014tik hona ekoiztutakoak eta hemezortzi minututik beherakoak beharko dute lanek

### L.Z. DEBAGOIENA

Euskarazko ikus-entzunezkoen sortzaileei bultzada emateko, XIV. Laburbira antolatu du Topaguneak, eta sortzaileek abenduaren 16ra arteko epea dute lanak bidaltzeko. Euskarazkoak, 2014tik hona ekoiztutakoak, fikziozkoak eta hemezortzi minututik beherakoak beharko dute. Antolatzaileek urtarrilean aurkeztuko dute martxoaren 9tik apirilaren 12ra egingo duten Laburbira zirkuiturako aukeratutako lanen zerrenda. Iaz zortzi film labur aukeratu zituz-

ten eta 27 herritan izan ziren ikusgai. Argibideetarako, jo [leire@topagunea.eus](mailto:leire@topagunea.eus) helbidera.

### Kameratoia lehiaketa

Euskarazko sortzaileei bultzada emateko Kameratoia lehiaketa ere antolatu du aurten Topaguneak. Durangoko Azokako Iru-dienea gunean izango da abenduaren 3tik 6ra. *Piztu piztia!* lelopean barruko piztia askatze-ra animatu gura dituzte 18 eta 35 urte bitarteko gazteak. Atzo, eguena, amaitu zen izena emateko epea.



Oñatiko Ganbara abesbatza. IMANOL SORIANOÇ

## Domekan Musikenen abestuko du Oñatiko Ganbara abesbatzak

Beste hiru abesbatzarekin batera *Ez dok 13 hitzez hitz* izeneko emanaldian hartuko du parte, 12:00etan

### L.Z. OÑATI

Maiatzean Erreterian egindako Musikaste zikloan estreinatu zuten *Ez dok 13 hitzez hitz* emanaldia. Ez dok Amairu mugimenduak egindako ekarpena balioan jartzeko egindako programa da, eta bigarren aldiz entzuteko aukera izango da, etzi, Donostiako Musikene auditoriumean, 12:00etan. Iñaki Salvador pianistak emango dio hasiera eta amaiera kontzertuari, eta, tartean, Ez Dok Amairu mugimenduko kantautore Lourdes Iriondok, Benito Lertxundik, Xabier Letek, Julen Lekuonak

edo Jose Angel Irigaraik sortutako hamabi abestiren moldaketak eskainiko dituzte lau abesbatzak; Oñatiko Ganbara da horietako bat. Beste hiru abesbatzak hauek dira: Durangoko Bogoroditsie, Nafarroako Ganbera eta Erreteriarako Landarbaso. Emanaldiak bat egin du Donostiako Kultura Hiriburuarekin.

Sarreraren prezioa hiru euro da. Kontzertua hasi baino ordu bete lehenago jarriko dituzte salgai Musikenen. Erreserba egiteko, deitu 943 000 868 telefono zenbakira.



# Nikolas Seguirolaren hiru alderdiak liburuan jasota

Iñaki Beristainek, Xabier Euzkitzek eta Eduardo Urartek idatzi duten *Nikolas Seguirola, fraide, artzain eta bertsolari* liburua aurkeztuko dute bihar, zapatua, Arantzazuko Gandiaga Topagunean, 11:00etan. Aurkezpenean, Seguirolari omenaldia egingo diote

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Matxibentan jaio zen 1939an Nikolas Seguirola, eta haurra zela Arantzazura joan zen ikastera. Osasun arazoengatik etxera itzuli behar izan zuen; hala ere, Arantzazura bueltatzeko aukera ez zuen sekula baztertu. Mutil gaztea zela itzuli zen berriz ere fraide artera. Harrezkero fraide frantziskotar moduan egin du bizitza osoa, eta Gomiztegi baserria izan du bizitoki.

Askotariko lanak egin ditu Seguirolak frantziskotarren baserrian: ordu asko egin ditu ortuan eta baita mota askotako abereak zaintzen ere. Haren "bihotzeko animaliak", baina, ardiak dira; etxeko artaldearen ardura izateaz gainera, aipatzekoa da euskal artzaintza gaurkotzeko egin duen ahalegina. Ondorioz, sari asko izan ditu eta gaur egun belaunaldi ezberdinetako artzainendako erreferente da Seguirola.

## Bertsolaritza, beste pasioa

Txiki-txikitatik izan da Seguirola bertsolaritza zalea. Hainbat txapelketatan jardun zuen gaztetan, eta geroago, bertso jartzaile lanetan ere bai. Zaletasunari eusten dio oraindik ere: etxeko fraideek urtero jasotzen dute haren bertsoa urtebetetze-



Euzkitze, Seguirola, Beristain eta Urarte, eguazteneko aurkezpenean. XEBERO ZINKUNEGI

ko opari; eta, enkarguzko bertso asko egiteko ere eskatzen diote.

Horregatik guztiagatik, aspaldi zenbiltzan Xabier Euzkitze eta Iñaki Beristain biografia-liburua idazteko gogoarekin. "Lagunen ikuspegitik dago liburua idatzita: fraide alderdiaz arduratu naiz ni; Euzkitzerenak dira, bertso alderdiaz jasotakoak, eta Gomiztegi Artzain Eskolaren hastapenetan alboan izan zuen Eduardo Urarte albaitariak idatzi du artzainaren alderdiaz", kontatu du Iñaki Beristain frantziskotarrak.

**Bihar, omenaldia Arantzazun**  
EFArantzazu argitaletxeak kaleratu du, eta Gandiaga Topagunean 11:00etan aurkeztuko dute bihar. Gonbidapenik ez da aurrez behar, baina edukiera mugatua izango du. Liburuaren egile eta protagonistaz gainera, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolaria eta Ganbara Abesbatza izango dira.

10 eurotan eskuratzeko aukera izango da ekitaldian, eta ondoren, 20 eurotan salduko dute Arantzazuko dendan, liburu dendetan eta Durangoko Azokan.

Rock *gitarroa* egiten dute, melodia asko ere baduten arren. Atera berri duten bigarren lana aurkeztera datoz.

Mungiako Belako laukotea izango da hirugarrenean. Aurten eskainiko duten azkeneko emaldia izango da Arrasatekoa.

Egitaraua borobiltzeko, DJ Makalaren kutsu beltzeko doinuek dantzan jarriko dute gaztetxea hilaren 22an; eta, Arrasateko Peru Altube bateria jolea duen Huntza talde berriaren triki-pop doinuak, azkenekoan.

## Lau kontzertu eta jaialdi bat abenduko Kooltur Ostegunetan

Santamas Komisioarekin elkarlanean, DJ Makalaren saioa egingo dute Arrasateko gaztetxean, hilaren 22an

## A. A. ARRASATE

Andaluziako Gente Mayor taldeak zabalduko du Kooltur Ekiaren datorren hileko egitaraua. Noise-rock estiloa lantzen duen eskarmentu handiko talde indartsua da. Euskal Herrian

egingo duten biraren barruan, geldialdia egingo dute Arrasaten.

Kurt Baker amerikarrak NCC eta Discipulos de Dionisos taldeetako kideekin osatzen duen Bullet Proof of Love izango da bigarren eguneko gonbidatua.

## Goiena Klubaren txokoa

### Euroliga Goiena Klubean!



### BASKONIA - GALATASARAY

Partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu

Abenduaren 2an, 21:00etan Buesa Arenan jokatu den partidurako.

### PARTE HARTZEKO: AZAROAREN 29RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Baskonia"  
[baskidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA *Jatetxea*

[baskidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko Udalarri esker

*'Mody Dick' haur antzerkia ikusteko sarrerak ditugu.*

Amaia Antzokian, Arrasaten. | Abenduaren 3an, 17:00etan

### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "ikuskizunaren izena"  
[baskidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2016 + 2017 osoa: 55 euro.  
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
Bergara. Etxebizitza salgai Fraiskozurin. Hiru logela, egongela, sukalde...

4. LANA

401. ESKAINTZAK
Arrasate. Etxeko lanak egin eta bikote nagusi bati laguntza emateko...

Arrasate. Neska gertu etxeko lanak eta garbiketarik egiten, dendari edo...

Debagoiena. Zaintza lanak egiteko gertu nago, bai orduka eta baita gauetan...

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza ematen da errentan. Leku onean. Ikuspegi politikak...

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Familia eskaldun batek Antzuolan etxebizitza behar du errentan...

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan Arrasate pasealekuan. Autobus geltokitik gertu dago...

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate. Arratsaldetan orduka lan egingo nuke. Lege paperak eta esperientzia dut...

ARRASATE EDO OIÑATI

Helduak edo haurrak zaintzeko, zein etxeko lanak egiteko prest. Euskalduna. 675 70 27 47

ARRASATE, ARETXABALETA EDO ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitatean irakasle ikasketak burutzen ari den Kurdistango neska arduratsua lanera...

ARRASATE, BERGARA ETA OIÑATI

Gizonezko erizain laguntzaile gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 943 78 62 19

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Amets taberna
Arrasate erdigunean. Sukalde industrialarekin. 685 73 50 30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05
SAILKATUAK@GOIENA.EUS
WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera ez da onartuko aldatetarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:
Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
Astebeteko prezioa: 17 euro 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagok argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

ANGIOZAR: Etxebizitza 60 m2, 2 logela, erabat berri. Trastelekuarekin. 92.000€.
OSINTXU: Osintxu, 92 m2, 3 logela, igogailua, garajea. Eraikuntza berria. 165.000€.
ANTZUOLA: Errekalde, 68 m2, 2 logela. Ez du obrarik behar. Altzariak barne. 140.000€.
ELGETA: Torrealde, 77 m2, 3 logela. Berria. Oso ondo. Domingo hurbir, adosatua 150 m2 + 45 m2 garajea + 90 m2 lursaila.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



OIÑATIKO UDALAREN AZAROKO OSOKO BILKURA

'Osoko bilkurak' Astelehena, 22:30



JON SALABERRIRI BURUZKO ERREPORTAJEA

'Jon Salaberri' Eguena, 22:00

Table with 3 columns: EGUBAKOITZA, 26; ZAPATUA, 27; DOMEKA, 28. Lists various programs and their start times.

ASTELEHENA, 28
ARETO FUTBOLEKO DERBIKO IRUDIAK
'Harmailatik'
Astelehena, 22:00

MARTITZENA, 29
EGUNEKO ALBISTE GARRANTZITSUENAK
'Berriak'
Martitzena, 14:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 30
ENPRESA MUNDUKO BERRIAK
'Enpresarean'
Eguaztena, 22:00

EGUENA, 1
ERREPORTAJEAK ETA ELKARRIZKETAK
'Debagoiena Zuzenean'
Eguena, 20:00

ESKER ONA



**Teresa Ezpeleta Agirrebengoa**  
Jesus Mari Uribetxeberriaren alarguna



2016ko azaroaren 18an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2016ko azaroaren 25ean.

ESKER ONA



**Felisa Altube Irizar**  
Joxe Ramon Agirrerren alarguna



2016ko azaroaren 16an hil zen, 92 urte zituela.

*Luze bizi ondoren  
Ama joan zaigu,  
penaz eta tristuraz  
denok utzi gaitu.  
Bizi poza izan duzu  
guregan txertatu,  
bihotzeko txokuan  
gordeko zaitugu.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Besarkada handi bana bihotzez familiaren izenean.

Oñatin, 2016ko azaroaren 25ean.

ESKER ONA



**Agustina Azcona Guillorme**  
Santiago Morenoren alarguna



2016ko azaroaren 17an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 26an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko

Oñatin, 2016ko azaroaren 25ean.

ESKER ONA



**Anita Suinaga Azkarate-Askasua**  
Balentin Umerezzen alarguna



2016ko azaroaren 21ean hil zen, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2016ko azaroaren 25ean.

ESKER ONA

**Maria Luisa Madinabeitia Uriarte**  
Sebastian Gallastegiren alarguna



2016ko azaroaren 18an hil zen, 92 urte zituela.

Lerro hauen bidez Maria Luisaren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

*Agur, amaxo.*

Irteera meza abenduaren 4an, domeka, izango da, 12:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian.

Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko Arrasaten, 2016ko azaroaren 25ean.

URTEURRENA



**Mailu Okaranza Uribeetxebarria**




2015eko azaroaren 23an hil zen.


Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 27an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2016ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA



**Antonio Murua Anduaga**



2016ko azaroaren 19an hil zen, 63 urte zituela.

*Gure bilera, afari eta egonetan alkarrekin orain izango dugu aulki bat guk hutsik. Gure inguruan falta nabari baina gogoan izango zaitugu beti.*

Baserritarren sozietateko juntako lagunak. Oñatin, 2016ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA

**Regino Biain Guridi**



2016ko azaroaren 19an hil zen, 100 urte zituela.

*Urte luzez San Martin egoitzaren alde egin duzun lan isila beti izango dugu gogoan.*

*Agur eta ohore, Regino.*

San Martin egoitzako junta. Oñatin, 2016ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA

**Joxe Mari Arkauz Ezkibel**



*Tio Joxe Mari egongo da betiko gure goguan; tio saltsero ta sortzailea inor gutxiren moduan, gure Olentzero ahaztezin zenbat poz zure inguruan! Izar berri bat dizdizka dabil oin Uxarteko zeruan.*

Txarenako familia. Eskoriatzan (Mendiola), 2016ko udazkenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

<b>ARRASATE</b>	
Egubakoitza, 25	M. FCA. AZKOAGA
Zapatua, 26	FERNANDEZ
Domeka, 27	IRIZAR
Astelehena, 28	AMEZUA
Martitzena, 29	ESPAÑOL MORALES
Eguaztena, 30	RUIZ
Eguena, 1	ETXEBERRIA
<b>BERGARA</b>	
Egubakoitza, 25	URRUTIKOETXEA
Zapatua, 26	ZABALA
Domeka, 27	ZABALA
Astelehena, 28	OIARBIDE
Martitzena, 29	ESTELLA
Eguaztena, 30	MOZOS
Eguena, 1	URRUTIKOETXEA
<b>ONATI</b>	
Egubakoitza, 25	IGARTUA
Zapatua, 26	IGARTUA
Domeka, 27	IGARTUA
Astelehena, 28	GARATE
Martitzena, 29	GARATE
Eguaztena, 30	JULDAIN
Eguena, 1	JULDAIN

**ARRASATE**  
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09  
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30  
ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15  
M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99  
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri kalea 1 / 943 79 22 26  
IRIZAR: Arguin 11 / 943 79 12 39  
AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74  
ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

**BERGARA**  
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05  
ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63  
MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15  
URRUTIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74  
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

**ONATI**  
ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16  
IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22  
GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2016ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen araberak (www.cofgipuzkoa.com).

HILDAKOAK

**Feli Garitaonandia Lizarralde.** Bergaran, azaroaren 16an. 79 urte.  
**Agustina Azcona Guillorme.** Oñatin, azaroaren 17an. 88 urte.  
**Maria Luisa Madinabeitia Uriarte.** Arrasaten, 18an. 92 urte.  
**Josefa Iriarte San Martin.** Arrasaten, azaroaren 18an. 96 urte.  
**Teresa Ezpeleta Agirrebengoa.** Oñatin, azaroaren 18an. 84 urte.  
**Matilde Ezkurra Bedia.** Oñatin, azaroaren 18an. 98 urte.  
**Antonio Murua Anduaga.** Oñatin, azaroaren 19an. 63 urte.  
**Regino Biain Guridi.** Oñatin, azaroaren 19an. 100 urte.  
**Kontxi Mujika Mendizabal.** Arrasaten, azaroaren 20an. 94 urte.  
**Frantzisko Santamaria Bergaretxe.** Bergaran, 20an. 88 urte.  
**Anita Suinaga Azkarate-Askasua.** Bergaran, 21ean. 90 urte.  
**Txomin Urrutia Valdes.** Arrasaten, azaroaren 21ean. 68 urte.  
**Joxe Mari Arkauz Ezkibel.** Eskoriatzan, azaroaren 21ean.  
**Iban Barquero Diaz.** Bergaran, azaroaren 22an. 36 urte.  
**Andres Elortondo Etxabe.** Arrasaten, azaroaren 23an. 84 urte.  
**Pedro Irizar Guridi.** Oñatin, azaroaren 23an. 100 urte.

**OROILORE**  
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
**BERGARA**

## TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5



6

**1. Bergarako igerilariak**

Bergarako igeriketa elkarteko kide diren igerilariak denboraldi berriko talde argazkia atera dute Agorrosinen. 100 kirolari pasatxok hasi dute 2016-2017 ikasturtea.

**2. 1992ko bergararrak**

1992an jaiotako bergararrek kintada egin zuten joan den zapatuan. Adin bereko 40 herritar baino gehiago elkartu ziren Xirimiri jatetxean bazkaltzeko.

**3. Galartzatarren irteera**

Madrildik, Nantestik, Bartzelonatik, Bilbotik, Burgostik eta Iparraldetik etorritako 50 bat galartzatar batu dira Aretxabaletako Galartzar auzoko dorretxea bisitatzeko.

**4. Markel Irizarren lagunartea**

Markel Irizar txirrindulariaren lagunartean bazkaria egiten du urtero eta aurten ere ondo pasa dute. Zubillagako Zotz tabernan elkartu ziren eta kantuan ere egin zuten.

**5. Zahar-Berri**

AEDko egoitzan afaria eginez eman diote hasiera Arrasaten Zahar-Berri mintzapraktikako ikasturteari. Oraindik badago tokia taldean.

**6. Oñatiko saskibaloijokalariek**

Aloña Mendiko saskibaloijokalariek 100 pertsonatik gorako taldea du aurtengo denboraldian; 45 neska-mutiko eskolan eta sei talde federatu. Talde argazki ederra!



7

**7. Mari Carmen eta Domingo**

Mari Carmen Ramosek eta Domingo Castrok 1966ko abenduaren 19an eman zioten baiezkoa elkarri lehenengoz eta 50 urteren ostean errepikatu egingo dute. "Zorionak, bikote! Beste asko ospatuko ditugu, seguru! Familiaren, lagunaren eta, bereziki, Aneren, Emmaren, Noraren eta Markelen partetik. Pa!"

## #DIOTENEZ

**GASTRONOMIA**

**Sisters and the city** atariko blogariak, Idoia eta Susana Gomez ahizpa donostiarrak, Oñatin izan dira. Gipuzkoako herri edo txoko batera joan, eta haren berri ematen dute ahizpa biek **euren blogean**, batez ere **gastronomia ikuspegitik**. Oñatira egindako bisitan, Arrikruzten, Foruen plazan, Zumeltzegi dorrean eta Goiko Bentan izan ziren. **Dorretxeko eta Arantzazuko** argazki asko jarri

dituzte ikusgai atarian, eta Goiko Bentan **zer bazkaldu** zuten ere erakutsi dute. **Ondo pasa** ei zuten Oñatin.

**NEW YORKETIK**

New York hiriko **Bosgarren etorbideko** denda bateko jabea Oñatira etorriko da **otsailean**. Oñatin egiten dituzten **aterkiak** saltzen dituzte han, eta jabeak **bertatik bertara** ikusi gura du non eta nola egiten dituzte. **Eskuz**

**egindako 5.000 aterki eksklusibo** egiten dituzte urtean Ezpeleta lantegian eta **munduko denda** ezberdinetan saltzen dituzte; **New Yorkeko** horretan, adibidez.

**BIKINGOA**

**Santi Idigorasek**, Oñatiko bikingoak, jokalarik edo entrenatzaile bat baino gehiago **miretsi** ditu bizitza profesionalean. Duela urtebete hil zen **Juanito Arriaran** arrasatearra zen **kuttunenetakoa**.

**EUSKAL HERRIKO ITZULIA**

Euskal Herriko Itzuliaren **etaparen bat Arrasatera** ekartzeko ahaleginetan ari da Arrasateko Udala. **Agintaldia bukatu** aurretik Itzuliko tropela Arrasaten ikustea gustatuko litzaioke **Ander Garai** kirol zinegotziari.

**DURANGOKO AZOKAN**

Durangoko Azokan egongo diren ehunka idazle eta musikarien artean, **debagoiendarrak** ere

egongo dira. Esaterako, **Gerardo Markuleta** eta **Juan Carlos Irizar** oñatiarrak. Hainbat liburu klasikoren itzulpenekin joango da bata, eta **Izarra** diskoarekin bigarrena. Bergarako **Patxi Larrion Feriatzaileak** eleberriarekin joango da eta Arrasateko **Dirty Brothers** taldea, berri, **Mondra Calling** lanarekin. **Igor San Juan**, **Ruper Ordorika**, **Zingira** taldea eta **Nikolas Segurola** ere DA! azokan egongo dira **abenduaren 2tik 6ra**.

## ZORION AGURRAK



BERGARA  
**Oier Fernandez Lopez**  
Azaroaren 30ean, 6 urte. Zorionak, Oier! Iritsi da hainbeste esperotako eguna. Primeran ospatu! Muxu pila bat, familiakoen partetik. Mua!



OÑATI  
**Markel Zabaleta Legaristi**  
Azaroaren 30ean Markelek urtetxo bat. Zorionak, Markel, zure lehenengo urtebetetzian eta patxo handi-handi bat etxeko, danon partetik. Ondo-ondo pasatu!



ARRASATE  
**Ibai Jimenez Aldama**  
Azaroaren 28an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Jaso etxekoen partetik muxu mordo bat eta jarraitu orain arte moduan irribarretsu eta alai!



ARRASATE  
**Hegoi Galdos Martin**  
Azaroaren 28an, 4 urte. Zorionak, txapelduna! Oso ondo pasatu zure eguna. Mila muxu. Maite zaitugu. Ekiñe, aita eta ama.



OÑATI  
**Hodei Benito Alzelai**  
Azaroaren 27an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Asko-asko maite zaitugu. Unax, ama eta aitta.



ANTZUOLA  
**Amama Mila**  
Azaroaren 27an. Zorionak, amama! Ondo pasatu eguna. Danok jungo gara eta bazkari goxua prestatu. Muxu handi bat etxekoena eta, batez be, bi señorita eta bi sorginen partetik. Pa!



ARRASATE  
**Xabier Agorria Lumbreras**  
Azaroaren 26an, urtebete. Zorionak, bihotza! Urtetxo bat jadanik! Jarraitu gure bizitza alaitzen! Muxu handia danon partetik! Asko maite zaitugu!



ARRASATE  
**Ane Zubizarreta**  
Azaroaren 26an, 20 urte. Buken, Eskaroliren eta Letxugaren partetik, zorionak eta ondo pasatu eguna! Eskerrak santari gure partetik! Guk be zure falta igerriko dugu!



OÑATI  
**Malen Guridi Agirre**  
Azaroaren 25ean, 6 urte. Zorionak polit hori! Egun poli-polittaz disfrutatu eta muxu asko danon partetik!



ARRASATE  
**Katixa Garitaonandia Sagarna**  
Azaroaren 25ean, 5 urte beteko dituzu. Ondo pasatu zure egunien. Zorionak eta besarkada handi bat, etxekoena partetik. Asko maite zaitugu!



ARRASATE  
**Aimar Hernandez Lopez**  
Azaroaren 25ean, 2 urte. Zorionak, Aimartxo! Ondo-ondo ospatu zure bigarren urtebetetze eguna! Besarkada handi bat, etxekoena partetik.



ARRASATE  
**Naroa Alberdi Segovia**  
Azaroaren 25ean, 12 urte. Zorionak, Naroa! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta segi hain polit! Familiaren eta, batez ere, lbairen partetik.



BERGARA  
**Maialen Etxeberria Mujika**  
Azaroaren 24an, urtebete. Lurren eta etxeko danen partetik, zorionak eta besarkada handi bat.



GASTEIZ  
**Irene Martin Gonzalez**  
Azaroaren 24an, 5 urte. Zorionak izeba-osaben eta aiton-amonen partetik. Muxu handi bat!



BERGARA  
**Sara Taboada Muruamendiaraz**  
Azaroaren 23an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna, etxeko guztien eta, bereziki, Eleneren partetik!



ESKORIATZA  
**Maddi Arenaza Carrillo**  
Azaroaren 23an, 5 urte. Zorionak, Maddi! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, familiaren partetik. Asko maite zaitugu!



ARRASATE  
**Eki Zubizarreta Zubillaga**  
Azaroaren 22an, urtebete. Zorionak, matraka! Muxu pilo bat, familiakoena partetik.



ARRASATE  
**Sulima Carabias**  
Azaroaren 22an, 32 urte. Zorionak, Suli, artista! Disfrutatu zure egunean! Milioika muxu familiaren eta lagunena partetik. Bereziki Nora, Haizea eta Markel. Maite zaitugu!



ARRASATE  
**Xabat Otxandiano Jausoro**  
Azaroaren 22an, 13 urte. Zorionak, Xabat! Gaurko azterketan 10 bat beharrean 13 bat aterako dozu ziur. Patxo pila bat, etxekoena partetik.



OÑATI  
**Iker Isasti Arkauz**  
Azaroaren 21ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun, ja 7 urte. Ondo-ondo ospatu zure eguna eta jarraitu holako alai izaten. Asko maite zaitugu. Muxu pila-pila bat.



BERGARA  
**Iker Gomez**  
Azaroaren 21ean, 9 urte. Zorionak, Iker, etxeko denon eta, batez ere, Iraiaren eta Juneren partetik. Muxu handi bat.



OÑATI  
**Antton Oleaga Mugarza**  
Azaroaren 21ean, 10 urte. Zorionak, Antton! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxekoena partetik!



OÑATI  
**Goizane Zelaia Altube**  
Azaroaren 21ean, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako. Muxu potolo bat, etxekoena partetik.



ESKORIATZA  
**Malen Azkune Zubia**  
Azaroaren 21ean, urtebete. Zorionak, maittaa! Ederto pasatu zure lehenengo urtebetetzian. Patxo potolo bat, etxekoena partetik.



OÑATI  
**Manex Axpe Intza**  
Azaroaren 20an, 7 urte. Zorionak Manex eta urte askotarako! Ondo baino hobeto pasatu zure urtebetetze egunien! Laztan handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE  
**Arane Torres Sanchez**  
Azaroaren 20an, 3 urte. Zorionak, *potxo!* Milaka muxu familia osoaren eta, bereziki, Lierren, aitaren eta amaren partetik!



ARRASATE  
**Oiana Sanchez**  
Azaroaren 18an, 31 urte. Zorionak nire neskatala heavyari! Eguna disfrutatuko duzulakoan. Patxo eta besarkada izugarri bat zure *txptskiren* partetik.



ARRASATE  
**Lorena Canales Arribas**  
Azaroaren 16an, urtebetetzea. Zorionak, Lore! Asko-asko disfrutatu zure eguna, maittaa! Mila muxu familiaren, lagunena eta, bereziki, Markelen eta Haizearen partetik! *Muaka, guapa.* Animo! Asko maite zaitugu.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 25

**ELGETA Ate irekiak ludotekan**  
Zerbitzua ezagutzera emateko.  
*Ludotekan, 16:30etan.*

**ANTZUOLA Helduendako ipuin kontaketa**  
Bera Bonai Capote emakume ginearraren saioa.  
*Olaranen, 17:00etan.*

**OÑATI 'Atxikitzeo sena. Atxikimendu motak'**  
Haurdun dauden gurasoendako eta 0-1 urteko arteko haurrak dituztenendako.  
*Txantxiku Ikastolan, 17:00etan.*

**BERGARA Umeentzako ipuin kontaketa**  
*Non bizi dira munstroak?*, Saioa Aizpuruarekin.  
*Umeen liburutegian, 18:00etan.*

**ARRASATE Margo taldearen erakusketa**  
Inaugurazio ekitaldia egingo dute gaur, egubakoitza, 19:00etan.  
*Kulturaten, abenduaren 21era arte.*

**OÑATI 'La moral natural'**  
Roman Agirreren berbaldia.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**OÑATI 'Zer daukagu harrobiaren kontra?'**  
Hitzaldia, gaztetxearen jardunaldietan.  
*Antixenan, 19:00etan.*

**ARRASATE 'La del Soto del Parral' zarzuela**  
Izaskun Murgia Elkarteak Lirikoarekin.  
*Amaia antzokian, 20:00etan.*

**OÑATI Domeketarrok taldea**  
Kontzertua egingo dute.  
*Otamendi tabernan, 19:30etan.*

**ARETXABALETA Bakarrizketa**  
Oscar Tramoyeresen eta Maria La Vikingaren saioa. Sarrerak, lau euro.  
*Arkupen, 20:00etan.*

**OÑATI Urbarriko jaiak**  
Etxafuegoak (21:00) eta mus txapelketa Urbiagainen (22:00).  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*



### OÑATI Mikopoteoa Arantzazun

Bi ekitaldi egongo dira: 18:00etan, Perretxikoak nola bereiztu? delako berbaldia egingo du Javier Gomezek Gandiaga topagunean; eta, 19:30ean mikopoteoa Arantzazuko tabernetan. m  
*Bihar, zapatua, aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**OÑATI Metal musikaren jaialdia**  
Latzen (bertsioak), Cannibial Grandpa eta Gabezia.  
*Antixenan, 22:00etan.*

**BERGARA Bakarrizketa**  
Andoni Olabegogeoaskoetxearen saioa.  
*Osintxun, 22:15ean.*

**OÑATI 'El Florido Pensil-Neskak' antzezlan**  
Tanttaka taldearen lana. Astoreka, Irureta, Calo, Aizpuru eta Beitia oholatza gainean.  
*Santa Anan, 22:30etan.*

## ZAPATUA 26

**ELGETA Aixolako bidea konpontzeko auzolana**  
Elgetatik Urbedeinkatura doazen bide bazterrak garbituko dituzte.  
*Elgetako frontoian, 08:30ean.*

**OÑATI Xake txapelketa**  
Suitzar erara eta sei itzulitara jokatu dute 22. txapelketa.  
*Gaztelekuan, 09:00etan.*

**ARETXABALETA Dantza saioa**  
Ecstatic Dance saioa egingo du Oskar Estanga DJak, Jaiki elkarteak gonbidatuta.  
*Kiroldegian, 10:00etan.*

**OÑATI Muralak margotzera**  
Errekalde eta San Lorentzo arteko tunelean, Ainara Azpiazu margolariarekin.  
*Tunelaren sarreran, 10:30ean.*

**LEINTZ GATZAGA 'Haurrak nola zaindu'**  
Beldurra, borondatea, aurreiritziak, gorrotoa eta beste hainbat kontzeptu landuko dituzte.  
*Kultura etxean, 10:30ean.*

**OÑATI Liburu aurkezpena**  
*Borroka armatua eta kartzelak* delako liburua aurkeztuko du Zuriñe Rodriguez idazleak.  
*Gaztelexean, 11:00etan.*

**OÑATI Herrixa kantuan**  
Txantxiku Ikastolako eta Jose de Azpiazu musika eskolako eskutik.  
*Foruen plazan, 12:30etan.*

**OÑATI Urbarriko jaiak**  
Haurrendako jolasak eta merienda (16:00) eta auzo-afaria (21:00).  
Ostean, erromeria.  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**ARRASATE 'Txapa bat, emakumeenganako hitz polit baten truke'**  
Gaztexoendako ekintza.  
*Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.*

**ARETXABALETA 'Txapa bat, emakumeenganako hitz polit baten truke'**  
Gaztexoendako ekintza.  
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ESKORIATZA 'Txapa bat, emakumeenganako hitz polit baten truke'**  
Gaztexoendako ekintza.  
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ESKORIATZA Musika banden topaketa

San Asensioko (Errioxa), Orduñako (Bizkaia) eta Eskoriatzako bandak. Kalejira (18:00) eta kontzertua kiroldegian (20:00).  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**ANTZUOLA Gaztaina jana plazan**  
100 kilo gaztaina erreko dituzte.  
*Herriko plazan, 19:00etan.*

**ARRASATE 'La del Soto del Parral' zarzuela**  
Izaskun Murgia Elkarteak Lirikoarekin.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

**BERGARA Landarbaso abesbatza**  
Errenteriako taldearen kontzertua, doan.  
*Santa Marinan, 20:00etan.*

**BERGARA Egan eta Kokein**  
Xabier Saldiasen taldearen azken kontzertua izango da. Sarrerak, bost euro.  
*Santa Marinan, 20:00etan.*

## DOMEKA 27

**ELGETA Orixolera ibilaldia**  
Aramaiotik igoko dira. Elgetatik autobusez joango dira.  
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**  
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik irtengo dira. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 telefonoan edo *turismo@debagoiena.eus* helbidean.  
*Aipatutako lekuan, 10:00etan.*

**ARETXABALETA Bisita gidatua: Goroeta-Aozaratz**  
Aitor Antxia Leturiaren azalpenekin. Besteak beste, auzoetako kontu zaharrak eta Otorra jauregikoak kontatuko ditu. Lekuak mugatuak dira.  
*Goroetako elizan, 10:30ean.*

**BERGARA Dantza Solte Txapelketa**  
39. Euskal Herriko gazteen txapelketa jokatu dute.  
*Udal pilotalekuan, 12:30ean.*

**OÑATI Urbarriko jaiak**  
Meza nagusia (12:00) eta, ostean, luntxa eta bertsolariak Haizpe elkarteak.  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**OÑATI Santa Zeziliaren omenezkoa**  
Udal Musika Bandak eta parrokiako abesbatzek parte hartuko dute.  
*Santa Anan, 12:45ean.*

**BERGARA Erretiratuen bazkaria**  
*Azaroa Gaztainetan* ekimena.  
*Osintxun, 14:00etan.*

**ARETXABALETA Pelikula**  
Gaztexoendako ekintza.  
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Pelikula emanaldia**  
Gaztexoendako ekintza.  
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARRASATE Pelikula emanaldia**  
Gaztexoendako ekintza.  
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**BERGARA Ur jolasak**  
Askotariko jolasak egongo dira umeek erabiltzeko. Begiraleak ere egongo dira.  
*Agorrosinen, 17:00etan.*

**OÑATI Oñati eta Alaia abesbatzak**  
Biak batera, Miren Gurutze Plazaolaren aginduetara. Sarrerak, sei euro.  
*Santa Anan, 19:00etan.*

**ELGETA Herrixa Dantzan**  
Dantza tradizionalen saioa Patxi Monterok gidatuta.  
*Espaloian, 19:00etan.*

**OÑATI 'Ikimilikiliklik JA Artzeren unibertsoa' erakusketa**  
Gaur, domeka, da erakusketa ikusteko azken eguna.  
*Gandiaga topagunean*

## ASTELEHENA 28

**OÑATI 'Lotsa' erakusketa**  
Gaur, astelehena, inauguratuko dute Hotz Oñati taldearen erakusketa, 18:00etan.  
*Kultura etxean, abenduaren 4ra.*

**OÑATI Jostailu bilketa**

Truke azokarako materiala batuko dute.

*Ludotekan, 16:45ean.*

**MARTITZENA 29****ARRASATE Jostailu truke merkatua**

Okendo ludotekan batuko dute materiala.

*Aipatutako lekuan, 17:30ean.*

**BERGARA 'Haurren autoestimua'**

Mireia Centenok egingo du berba.

*Zabalotegin, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Cabaret' ikustera joateko izena emateko epea**

Gaur, martitzena, da azken eguna izena emateko: autobusa eta sarrerak 75 euro. Amuskako bazkideek, 65 euro. Abenduaren 17an Bilboko emanaldia ikustera joango dira.

*Bolintxon, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Enbido txikira!'**

Alberto Huenchumila (Txile) eta Candelaria Ramos (Kolonbia) izango dira hizlariak. Iñaki Bolibarrek elkarrizketatuko ditu.

*Zaldibarren, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Semblanza de un mondragones: Pedro Bernardo Villarreal de Berriz Andicano'**

Iragana Astitzen zikloaren azkena.

*Kulturaten, 19:00etan.*

**ARETXABAETA 'Bhutan' ikus-entzunezkoa**

Joseba Egibar argazkilaria aretxabaletarren lana.

*Arkupen, 19:30ean.*

**BERGARA Ipuin erotikoa**

Hotzikara delako saioa egingo du Ines Bengoak, 15 urtetik gorako gazteendako.

*Irizarren, 19:30ean.*

**EGUAZTENA 30****ARRASATE Jostailu truke merkatua**

San Antolin parkean batuko dute materiala.

*Aipatutako lekuan, 17:30ean.*

**OÑATI Irakurketa kluba**

San Antolin parkean batuko dute materiala.

*Aipatutako lekuan, 17:30ean.*

**BERGARA Odol ateratzea**

Deialdi irekia egin dute.

*Osasun zentroan, 18:00etan.*

**BERGARA Kirol argazkien erakusketa**

Lehiaketara aurkeztutako lanik onenak ikusgai.

*Aroztegin, abenduaren 4ra arte.*

**ARETXABAETA Makina eolikoak**

Gaur, eguaztana, da erakusketa ikusteko azken eguna. 26 eraikuntza proposamen daude ikusgai.

*Osasun zentroan, 18:00etan.*

**EGUENA 1****ARETXABAETA Irteera oinez 'Atxabalta Mugi'-rekin**

Bigarren irteera egingo dute erretiratuen egoitzatik. Elkartutakoen arabera intentsitate handiko eta txikiko ibilaldiak proposatuko dituzte begiraleek. Eta bukatutakoan, salda hartuko dute Basotxo elkartearen.

*Aipatutako lekuan, 10:00etan.*

**ARRASATE Jostailu truke merkatua**

Usaetxe ludotekan batuko dute materiala.

*Aipatutako lekuan, 17:30ean.*

**BERGARA 'Burmuina, hizkuntza eta dislexia'**

Dislegi-ko kideek egingo dute berba.

*San Martin Agirre eskolan, 18:00etan.*

**ARRASATE Gazta dastatzea**

Lau ekoizle ezberdinen gaztak probatzeko aukera.

*Ereindajanen, 18:00etan.*

**BERGARA 'Pintxo baten inguruan, gure sorkuntza aztertzen'**

Lehenengo tailerra egingo dute eta ostean tertulia.

*Irizarren, 19:00etan.*

**ZINEMA****BERGARA****ZABALOTEGI**

**Esperando al rey**  
Domeka: 19:30.

**Angry birds**

Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA****100 metros**

Egubakoitzeta eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Heidi**

Zapatua: 17:00.  
Domeka: 12:00, 17:00.

**ARETXABAETA****ARKUPE****Inferno**

Egubakoitzeta eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Buscando a Dory**

Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR****COLISEO****Aliados**

Zapatua eta domeka: 17:00.

**La bailarina**

Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Marea negra**

Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Zikoinak**

Zapatua: 17:00.

**ANTZOKIA****Aliados**

Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Cigüeñas**

Domeka: 17:00.

**GASTEIZ****FLORIDA**

**Aliados**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Un monstruo viene a verme**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Despues de la tormenta**  
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Bar Bahar**

Egubakoitzetik domekara: 16:45, 20:35, 22:30.  
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Yo, Daniel Blake**

Egubakoitzetik domekara: 18:30.  
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**La reina de España**

Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Animales fantasticos...**

Egubakoitzetik astelehenera eta eguena: 17:00, 19:45.  
Martitzena eta eguaztana: 17:00.

**No culpes al karma...**

Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**La llegada**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Sully**

Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

**La doctora de Brest**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**El ciudadano ilustre**

Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

**Los exámenes**

Egubakoitzeta: 17:30, 20:00, 22:30.  
Zapatutik eguenera: 20:00, 22:30.

**Rotas**

Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Los caballeros blancos**  
Zapatua: 12:00.

**Ozzy**

Zapatua eta domeka: 12:00.

**Cigüeñas**

Zapatua eta domeka: 12:00.

**Peppa Pig**

Zapatua eta domeka: 12:00.

**Trolls**

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

**BOULEVARD****La reina de España**

Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:40, 22:20.

**Aliados**

Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 18:30, 19:45, 21:00, 22:15.  
Egubakoitzeta eta zapatua: 23:30.  
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Marea negra**

Egubakoitzeta eta astelehenetik eguenera: 17:10, 19:30, 21:50.  
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

**Backseat figther**

Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Animales fantasticos...**

Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:45, 19:45, 21:30, 22:20.  
Egubakoitzeta eta zapatua: 23:35.  
Zapatua eta domeka: 16:00.

**La llegada**

Egubakoitzeta eta zapatua: 16:10, 18:45, 21:10, 23:35.  
Domeka eta astelehenetik eguenera: 17:00, 19:35, 22:00.

**Cigüeñas**

Zapatua eta domeka: 16:20.

**100 metros**

Egubakoitzetik eguenera: 18:20, 22:45.

**Sully**

Egubakoitzetik domekara: 20:40.

**Trolls**

Zapatua; 16:00, 18:00, 20:00.  
Egubakoitzeta eta domeka: 16:00, 18:00.

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:00, 19:00.

**No culpes al karma...**

Egubakoitzeta, domeka eta astelehenetik eguenera: 20:00.

**Peppa Pig**

Zapatua eta domeka: 16:15.

**Un monstruo viene a verme**

Egubakoitzetik

**KRITIKA****La doctora de Brest** ★★☆☆☆

**Zuz.:** Emmanuelle Bercot. **Herr.:** Frantzia (2016). **Aktoreak:** Sidse Knudsen, Benoit Magimel.

**David, Golliaten aurka****ANTONIO ZABALA**

Aurtengo Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean aurkeztutako lehenengo filma izan zen. Frantzian benetan gertatutako istorio batera hurbiltzen gaitu. Irene Frachon izeneko mediku batek farmaziako laborategi bat salatu zuen merkatura ateratako *Mediator* delako botika oso kaltegarria eta arriskutsua zelako. Gizarte-segurantzak, medikuek eta paziente askotok ona zela pentsatzen zuten. Baina enpresa handiek pisu nabarmena dute eta ez da erraza izaten horren kontra borrokatzea. Franchon, jasandako presioa handia izan arren, ez da kikilduko eta etzoto guztiak gainditzen ahaleginduko da gizarteari egia ezagutarazteko. David Golliaten kontrako lehia. Behin baino



FOTOGRAMAS

gehiagotan ikusi izan ditugu halako filmak. *La doctora de Brest*-k *Erin Brokovich*-en bidea jarraitzen du. Ustelkeria kasu asko daudenean ikuslea zinematik indarberrituta ateratzen da. Etsipenean erortzen ez bagara, oraindik gauzak aldatzea posible dela esaten diogu gure buruari.

Pelikulak bide ezagun batetik eramaten gaitu: ereduza izaera duen pertsona ustelkeriaren kontra borrokatzen. Filmak erritmoa du eta gustura ikusten da, baina nahiko konbentzionala da. Sidse Babet Knudsen aktore daniarra pertsonaiaren indarra, kemena eta bizitasuna islatzen ahalegintzen da.

# Memoriaren Plaza Arrasaten

Memoriaren,  
Bizikidetzaren eta  
Giza Eskubideen Institutua

*Gogora*

Instituto de la Memoria,  
la Convivencia  
y los Derechos Humanos

Maria Ubarretxena Arrasateko Alkateak, eta Aintzane Ezenarro Memoria, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuko zuzendariak, **Memoriaren Plaza erakusketaren** baitan burutuko diren ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu, **Arrasateko Herriko plazan** azaroaren 28tik abenduaren 4ra.

28

**Azaroaren 28an, 18:00etan:**  
Erakusketaren irekiera-ekitaldia.

29

**Azaroaren 29an, 19:00etan:**  
Memoria historikoari buruzko hitzaldia.

**Paco Etxeberria:**  
"Hobiak desehortziz Duintasunak berreskuratuz".  
**Intxorta 1936 Elkartea:**  
"Arrasateko memoria historikoa"  
Aurkezlea: Iban Arantzabal,  
Goienako Zuzendari Nagusia.

1

**Abenduaren 1ean, 18:00etan:**  
Arrasateko biktimen testigantzak, **Olatz Etxaberen**  
eta **Sandra Carrascoren** parte hartzearekin.

## Dokumentalen emanaldiak:

Lanegunetan  
17:00etan "El valor de la autocrítica"  
Jaiegunetan  
13:00etan "Arrasate 1936. Emakumea, gerra eta errepresioa"  
15:00etan "Oinatz galduak"

Informazio gehiagotarako :

944 032 840  
688 670 177